# I. ERANSKINA.–OINARRIZKO GAITASUNAK ETA FUNTSEZKO KONPETENTZIAK HELDUENTZAKO OINARRIZKO HEZKUNTZAN

Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioak, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziei buruzkoak, estatu kideei eskatzen die beren herritarrek funtsezko konpetentzia horiek eskuratzeko behar diren neurriak har ditzatela, hau da, pertsona guztiek behar dituztenak beren errealizazio eta garapen pertsonalerako, enplegagarritasunerako, gizarteratzeko, bizimodu jasangarrirako, gizarte baketsuetan arrakastaz bizitzeko, bizimodu osasungarrirako eta herritartasun aktiborako. Gomendio hori da, egokituta, oinarrizko irakaskuntzaren amaierako irteera-profila osatzeko erreferentzia nagusia; eta irteera-profil hori da etapa amaitzean ikasleek lortzea espero diren funtsezko konpetentziak identifikatu eta definitzeko baliatzen den tresna, XXI. mendeko erronkekin lotuta. Era berean, irteera-profila barne eta kanpo ebaluaziorako erreferentzia da, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko.

Helduentzako oinarrizko irakaskuntzan islatzen da zenbateko ahalegina egiten duen hezkuntza sistemak derrigorrezko eskolatze garaian zailtasunak izan zituzten pertsonek benetako aukera izan dezaten beren burua prestatzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko. Horregatik, foru dekretu honek jasotzen dituen curriculumak prestatzean, funtsezko konpetentzien ikuspegi estruktural eta funtzionala hartu da, eta ekintza zehatzetan txertatu dira konpetentzia horien hiru alderdiak –kognitiboa edo ezagutzarena, instrumentala edo trebetasunena eta jarrerazkoa–, abiapuntu hartuta helduen interesekiko hurbilak diren testuinguruak eta mundu profesionalarekiko lotura handiagoa dutenak.

Gomendio horretan bertan esaten da ezen, funtsezko konpetentziak garatzen laguntzeko, oinarrizko gaitasunen (irakurketa-idazketa, kalkulua eta oinarrizko gaitasun digitalak) lorpen maila goratzea ezinbesteko esku-hartzea dela. Gaitasun bat oinarrizkotzat jotzeko, trebetasun eta jarrera funtzionalak eta egokiak izan behar ditu, eta aukera eman horiek eguneroko hainbat egoeratan aplikatzeko. Hortaz, esan daiteke oinarrizko gaitasunak funtsezko konpetentzien oinarria direla.

Funtsezko ikaskuntza horiek emateko asmoz, Hasierako Irakaskuntzen curriculuma kokatzen da Europar Batasuneko Kontseiluaren 2016ko abenduaren 19ko Gomendioan (Gaitasunak hobetzeko ibilbideak: helduentzako aukera berriak) jasotako oinarrizko gaitasunen garapenaren esparruan. Horrela, espero da ikasleek etapa honetan egiten dituzten ikaskuntzak oinarria izan daitezen ondorengo etapako funtsezko konpetentziak garatzeko. Hauek dira Hasierako Irakaskuntzen arloak zehazten dituzten oinarrizko gaitasunak:

1. Komunikatzeko gaitasuna, hots, identifikatu, ulertu, interpretatu, sortu eta komunikatzeko abilezia, horretarako erabiliz idatzizko hizkuntza, ahozkoa, zeinu bidezkoa edo hizkuntza multimodala, kontuan izanda bizitza helduaren testuinguru bakoitzerako zein den egokia. Barnean biltzen ditu esparru pertsonalean zein gizarte, prestakuntza eta laneko esparruan hizkuntza eraginkortasunez erabiltzeko behar diren ezagutza, trebetasun eta jarrerak.

2. Gaitasun matematikoa, hots, bizitza helduaren askotariko testuinguruetan agertzen diren egoera matematikoak erlazionatu eta kudeatzeko informazio eta ideia matematikoak atzitu, erabili, interpretatu eta komunikatzeko abilezia, erantzun ahal izateko eguneroko bizitzako eskari eta premia matematikoei prestakuntza edo laneko esparruetan eta interakzio sozialean.

3. Gaitasun digitala, hots, behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak modu kritiko, seguru, sortzaile eta independentean erabili ahal izateko informazioaren teknologiek hezkuntzarako, lanerako, aisialdirako eta komunikazio sozialerako eskaintzen dituzten tresnak.

Helduentzako Bigarren Hezkuntzan, irteera-profilean jasotzen diren funtsezko konpetentziak lortu eta garatu behar dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskuratzeko LOMLOEn aurreikusitako konpetentziak eta helburuak erdietsi gogo badira. Hori izan da Helduentzako Bigarren Hezkuntzaren curriculuma egiteko erreferentzia, ikasle helduen profilak behar dituen egokitzapenekin.

Gomendioan adierazten denarekin bat, ez dago funtsezko konpetentzien arteko hierarkiarik, denek garrantzi berdina dutela uste baita. Ezin da funtsezko konpetentzien arteko muga argirik ezarri, elkarri lotuta eta gainjarrita baitaude eta elkar indartzen baitute. Prestakuntza formaleko, ez-formaleko eta

informaleko beste bide batzuetatik ere eskuratu daitezke. Konpetentziek honako hauek biltzen dituzte, ulertuta ezagutza, gaitasun eta jarreren konbinazio bat direla:

–Ezagutzek barnean hartzen dituzte egitate eta zifrak, kontzeptuak, ideiak eta teoriak, dagoeneko ezarrita daudenak eta arlo edo gai jakin bat ulertzen laguntzen dutenak.

–Trebetasunak dira prozesuak gauzatzeko abileziak eta norberaren ezagutzak baliatuz emaitzak lortzekoak.

–Jarrerek biltzen dute ideien, pertsonen edo egoeren aurrean jardun edo erreakzionatzeko pentsamoldea eta prestasuna.

Arau honen ondoreetarako, funtsezko konpetentziak dira:

1.–Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia.

Konpetentzia honen funtsa interakzioa da –ahozkoa, idatzizkoa, zeinatua edo multimodala–, koherentziaz eta egoki egina, hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat asmo komunikatiborekin aritzeko. Berekin dakar modu kontzientean abian jartzea ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak, mezu ahozkoak, idatzizkoak, zeinatuak edo multimodalak ulertu, interpretatu eta modu kritikoan baloratzea ahalbidetzen dutenak, manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestuta, bai eta eraginkortasunez komunikatzea ere beste pertsona batzuekin, lankidetzan, sormenez, etikaz eta begirunez.

Era berean, oinarria da norberaren pentsamendurako eta jakintzaren eremu guztietan ezagutza eraikitzeko. Hori dela eta, konpetentzia honen garapena loturik dago gogoeta esplizitu batekin, ezagutza arlo bakoitzaren diskurtso genero espezifikoetan hizkuntzak duen funtzionamenduaz, bai eta ahozkotasunaren, idazketaren edo zeinatzearen erabileraz ere, pentsatu eta ikasteko. Azkenik, posible egiten du hizkuntzaren alderdi estetikoaz ohartzea eta kultura literarioaz gozatzea.

2.–Eleaniztasunerako konpetentzia.

Eleaniztasunerako konpetentziak berekin dakar hizkuntza bat baino gehiago, ahozkoak nahiz zeinatuak, ikaskuntzan eta komunikazioan modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea. Konpetentzia honi esker banakoaren hizkuntza profilak ezagutu eta errespetatzen dira, eta norberaren esperientziak aprobetxatzen dira estrategiak garatzeko, hizkuntzen arteko transferentziak (hizkuntza klasikoak barne) eta bitartekaritza egiteko eta, hala dagokionean, familiaren hizkuntzan edo hizkuntzetan zein hizkuntza ofizialetan trebetasunak mantendu eta eskuratzeko. Era berean, dimentsio historiko eta kulturartekoak integratzen ditu, gizartearen hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutu, baloratu eta errespetatzeko, elkarbizitza demokratikoa sustatzeko helburuarekin.

3.–Matematikarako konpetentzia, eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia.

Konpetentzia honek (STEM konpetentzia, ingelesezko siglan) berekin dakar mundua ulertzea metodo zientifikoak, pentsamolde eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniaritzaren metodoak erabiliz, ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.

Matematikarako konpetentziak ahalbidetzen du ikuspegi eta arrazoitze matematikoak garatu eta aplikatzea askotariko problemak hainbat testuingurutan ebazteko.

Zientziarako konpetentziak berekin dakar ingurune naturala eta soziala ulertu eta azaltzea ezagutza eta metodologia multzo bat erabiliz, barne direla behaketa eta esperimentazioa, galderak egiteko eta probetan oinarritutako ondorioak ateratzeko, naturaren mundua eta testuinguru soziala interpretatu eta eraldatu ahal izateko.

Teknologia eta ingeniaritzarako konpetentziak bere baitan biltzen du zientziei dagozkien ezagutzak eta metodologiak aplikatzea gure gizartea eraldatzeko, pertsonen behar edo nahien arabera, segurtasunez, erantzukizunez eta jasangarritasunez.

4.–Konpetentzia digitala.

Konpetentzia digitalak berekin dakar teknologia digitalak modu seguru, osasungarri, jasangarri, kritiko eta arduratsuan erabiltzea, ikasteko, lanerako eta gizartean parte hartzeko, eta haiekiko interakziorako. Konpetentzia honetan biltzen dira informazioan eta datuetan alfabetatzea, komunikazioa eta elkarlana, heziketa mediatikoa, eduki digitalak sortzea (programazioa barne), segurtasuna (ongi-

zate digitala eta zibersegurtasunarekin lotutako konpetentziak barne), eta herritartasun digitalarekin, pribatutasunarekin, jabetza intelektualarekin, arazoak ebaztearekin eta pentsamendu konputazional eta kritikoarekin lotutako gaiak.

5.–Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.

Konpetentzia honek berekin dakar norberari buruz gogoeta egiteko gaitasuna, nork bere burua ezagutu, onartu eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzea; beste batzuekin elkarlanean aritzea, modu eraikitzailean; erresilientziari eustea; eta ikaskuntza kudeatzea bizitzan zehar. Berekin dakar, halaber, ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egitea; aldaketetara moldatzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; elkarbizitzaren kontrako jarrerak identifikatu eta horiek lantzeko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalean laguntzea eta, horretarako, nork bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatzea erantzukidetasunaren bitartez; etorkizunari begira bizitzeko gaitasuna izatea; enpatia adieraztea, eta gatazkei testuinguru integratzaile eta laguntzazkoan heltzea.

6.–Herritar konpetentzia.

Herritar konpetentziak laguntzen du ikasleak herritar arduratsu izan daitezen eta bizitza sozial eta zibikoan osotara parte har dezaten; kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarritzen da, bai eta mundu mailako gertaeren ezagutzan, jasangarritasunarekiko konpromiso aktiboan eta munduko herritarra izatea lortzean ere. Barne biltzen ditu alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratiko bati dagozkion balioak kontzienteki onartzea, gure garaiko arazo etiko nagusiei buruzko gogoeta kritikoa egitea eta bizimodu jasangarri bat garatzea, 2030 Agendan jasotako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorrena.

7.–Ekimenerako konpetentzia.

Ekimenerako konpetentziak berekin dakar aukera eta ideien gainean jardutera bideratutako bizi ikuspegi bat garatzea, beste pertsona batzuentzako balioa duten emaitzak sortzeko behar diren ezagutza espezifikoak erabiliz. Hainbat estrategia ematen ditu, ahalbidetzen dutenak begirada egokitzea, beharrak eta aukerak detektatzeko; pentsamendua entrenatzea, ingurunea aztertu eta ebaluatzeko eta ideiak sortu eta birplanteatzeko, irudimena, sormena, pentsamendu estrategikoa eta gogoeta etiko, kritiko eta eraikitzailea erabilita, sormen eta berrikuntza prozesuen barruan; eta ikasteko, arriskuak hartzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko gogoa piztea. Era berean, berekin dakar informazioan eta ezagutzan oinarritutako erabakiak hartzea eta elkarlan malgua izatea beste pertsona batzuekin, motibazioz, enpatiaz eta komunikazio eta negoziaziorako trebetasunekin, planteatutako ideiak gauzatzeko, balio soziala, kulturala eta ekonomiko-finantzarioa duten proiektu jasangarriak planifikatuta eta kudeatuta.

8.–Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako konpetentzia.

Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako konpetentziak berekin dakar ulertu eta errespetatzea kultura guztietan ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta askotariko adierazpen artistiko eta kulturalen bidez adierazi eta komunikatzeko modua. Berekin dakar, halaber, norberaren ideiak eta norberak gizartean betetzen duen tokia edo zeregina ulertu, garatu eta adierazteko konpromisoa. Era berean, eskatzen du norberaren identitatea bilakaeran ulertzea, baita kultura ondarearena ere, aniztasuna bereizgarri duen mundu batean, eta benetan jabetzea artea eta beste adierazpen kultural batzuk munduari begiratzeko eta itxura emateko modu bat izan daitezkeela.

## II. ERANSKINA.–HASIERAKO IRAKASKUNTZETAKO ARLOEN CURRICULUMA

Hasierako Irakaskuntzak izaten dira, sarritan, bizitza osoko ikaskuntza prozesuaren abiapuntua. Irakaskuntza hauek oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzen dute, eta gaitasun horiek pertsona guztien eskura egon behar dute, funtsezko ikaskuntzak baitira. Ikaskuntza horiek lortuz gero, helduak errazago integratuko dira, eta aukera gehiago izanen dituzte beren prestakuntzarekin jarraitzeko eta inguruabar pertsonal, sozial eta profesionalak hobetzeko. Halaber, bide ematen die gizartean aktiboki parte hartzeko, erantzukizun sozial eta zibikoak bere gain hartzeko eta etengabe aldatzen ari den mundu konplexu honetan aurrean izanen dituzten egoeretara egokitzeko.

Oinarrizko gaitasunak oinarriak dira etengabeko ikaskuntzarako funtsezko konpetentziak eskuratzeko hobe prestatuta egoteko, Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 22ko Gomendioan jasotzen den moduan. Komunikazioarekin, matematikekin eta ingurune informatizatuetako problemen ebazpenarekin lotutako ezagutza, trebetasun eta jarreren maila egokia lortzea dakarten gaitasun horiek dira Hasierako Irakaskuntzak osatzen dituzten arloen jatorria: komunikazioaren arloa, matematikaren arloa eta arlo digitala.

### *KOMUNIKAZIOAREN ARLOA*

Komunikazioa funtsezko ikaskuntza bat da, praktikan jarri behar dena etengabe aldatzen ari den gure errealitate konplexuaren eskariei modu hausnartu, eraginkor eta eguneratuan erantzun ahal izateko. Komunikazioak laguntzen digu gainerakoekin eta inguruarekin loturak eta harremanak ezartzen, eta tresna baliagarria da informazioa trukatzeko, errealitatea irudikatu, interpretatu eta ulertzeko, ezagutza eraiki eta eskualdatzeko, eta baita pentsamendua, emozioak eta jokabidea antolatu eta autorregulatzeko ere. Komunikatzen ikasteak, halaber, aukera ematen die ikasle helduei kultura berrietara hurbiltzeko eta berdintasuna zein errespetua oinarri hartuta, besteak beste, elkarrekin bizitzeko gaitasuna garatzeko, bai eta gatazkak modu elkarrizketatzaile eta baketsuan ebazteko aukera ere.

Helduentzako Hasierako Irakaskuntzetako komunikazioaren arloa ezinbestekoa da ikasleek XXI. mendeko gizartearen erronkei erantzuten ikas dezaten. Izan ere, gizarte horrek eskatzen ditu pertsona kritikoak eta ongi informatuak, hitzen erabilera eraginkor eta etikoa egiteko gai direnak; desberdintasunak errespetuz hartzen dituztenak; informazioa ezagutza bihurtzeko gai direnak eta beren kabuz ikasteko, informatzeko, lankidetzan aritzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna dutenak; sortzaileak eta ekintzaileak; eta garapen jasangarriarekin, giza eskubideen defentsarekin eta berdintasunezko elkarbizitza inklusibo, baketsu eta demokratikoarekin konprometituak. Komunikazioak berekin dakar konbentzio sozialen, balio eta alderdi kulturalen eta hizkuntzak testuinguruaren eta komunikazio asmoaren arabera duen moldakortasunaren kontzientzia hartzea.

Arlo honen helburua da ikasleak gaztelaniaz behar bezala komunikatzea. Horretarako, planteamendu eleaniztuna hartuko da abiapuntu, eta ikasleen errepertorioak osatzen dituzten hizkuntza eta aldaerak kontuan hartuko dira, hartara ikasleei aukera emanda gaztelaniaz zein errepertorio horretako gainerako hizkuntzetan duten komunikazio gaitasuna hobetzeko.

Arloko konpetentzia espezifikoek barnean biltzen dituzte irakaskuntza hauen amaierako xedeak, hau da: gaztelaniazko ulermen, ekoizpen eta interakzio ahozkoak eta idatzizkoak; komunikazio jardun diskriminatzaileak baztertu eta saihestea; alfabetatze mediatiko eta informazionala, eta irakurtzeko ohitura garatzea. Konpetentzia hauek eskuratzeak ikasle helduei lagunduko die zenbait premia komunikatibori erantzuten, zenbait esparrutako gaiei buruzko elkarrizketetan parte hartzen, irakurketaren xedeak betetzen eta irakurtzeko ohitura hartzen. Hortaz, konpetentzia espezifikoak orientatzen dira behar diren ezagutza, trebetasun eta jarrerak garatzeko, zehazki, oinarrizko ahozko testu edo testu multimodalak ulertu eta interpretatzeko, ahozko testu edo testu multimodal errazak ekoizteko, zenbait esparrutako idatziko testuak ulertu eta interpretatzeko eta idatzizko testuak zenbait euskarritan ekoizteko. Horrek guztiak berekin dakar interakzioaren oinarrizko arauak erabiltzen ikastea, testuetako informazio esanguratsuena eta zentzu orokorra identifikatzea, ahozko testu eta testu multimodalak egoki egituratzea eta idatzizko testuak oinarrizko koherentzia eta zuzentasun ortografikoarekin idaztea.

Arlo honetako ebaluazio irizpideen bidez zehazten ahal da ikasleek konpetentzia espezifikoak zer mailatan eskuratu dituzten, eta, beraz, haiei lotuta aurkezten dira. Konpetentziei dagokienez, irizpideek adierazten dute ikasleek zer prozesu edo gaitasun eskuratu behar duten eta zein diren prozesu edo gaitasun hori aplikatu eta erabiltzeko testuingurua edo modua. Ebaluazio irizpideen mailakatzeak kontuan hartu beharko ditu beti ikasleen esperientziak, inguruabarrak eta ezaugarri espezifikoak.

Bestalde, oinarrizko jakintzek arloko konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoak diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea) bateratzen dituzte, eta ikaskuntzak irizpideen bidez ebaluatzen laguntzen dute. Lau bloketan egituratzen dira: «Alfabetatze mediatiko eta informazionala», «Komunikazioa», «Irakurtzeko ohitura» eta «Hizkuntzari buruzko hausnarketa».

Curriculum hau garatu eta ezartzea ahalbidetzeko, ikasgelan baliatzen diren proposamen didaktikoak lagungarriak izan behar dira ikaskuntzak zein irakaskuntza-prozesuak eta irakas-praktika aztertu eta baloratzeko; horrela, metodologiak testuinguru bakoitzera egokitzen ahalko dira. Orientazio metodologikoak eta ebaluaziorako orientazioak estuki lotuta daude Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalarekin (IDU), eta aukera ematen dute proposamen pedagogiko eklektiko eta malguak diseinatu eta aplikatzeko, irakasleek diziplinarteko zeregin kontestualizatu, garrantzitsu eta esanguratsuak sortu ditzaten. Arlo honetarako metodologia egokiak izanen dira laguntzen dutenak hizkuntzen tratamendu integratutik abiatzen diren ikaskuntza egoerak garatzen, ikaslea hartzen dutenak gizarte eragile gero eta autonomoagotzat eta bere ikaskuntza prozesuaren gero eta erantzuleagotzat, eta kontuan hartzen dituztenak ikaslearen errepertorioak, aurretiko esperientziak, interesak, premiak eta inguruabar espezifikoak. Arloko ikaskuntzetan aurrera egiteak aukera eman behar die ikasleei komunikazio egoera errealei erantzuteko, eremu pertsonalean, sozialean nahiz prestakuntzakoan. Komunikazioaren arloan, konpetentzia espezifikoak eskuratzeko, une oro sustatu behar dira interakzio komunikatiboa eta elkarlana, bai ikasleen artean bai irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan esku hartzen duten gainerako eragileekin. Nolanahi ere, diziplinarteko lanak balio erantsia emanen die ikaskuntzei, haien konpetentzia izaera indartuz. Bukatzeko, ikastetxe gehienetan hizkuntza aniztasuna dagoenez eta begi-bistakoa izanik hezkuntza eleaniztuna behar dela ikasle guztientzat, hizkuntzen tratamendu integratua bide egokia da hizkuntzen arteko hausnarketa sustatzeko eta benetako erabilera sozialei heltzeko, horietan bi hizkuntza edo gehiago erabili behar baitira sarritan.

## *1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak.*

*1. konpetentzia espezifikoa.*

Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, eta zentzu orokorra eta informazio garrantzitsuena identifikatzea, komunikazio beharrei erantzuteko.

1. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Komunikazio prozesuan, igorlearen eta hartzailearen artean partekatutako ezagutzaz gain, beste elementu kontestual eta kotestual batzuk ere erabiltzen dira, aukera ematen dutenak testuaren esanahiaz harago joan eta zentzua interpretatzeko. Eskolak askotariko esparruetako praktika diskurtsiboak sar ditzake eta sartu behar ditu, ikasleentzat esanguratsuak direnak eta garrantzi ekosoziala eta kulturala duten gaiak jorratzen dituztenak. Konpetentzia espezifiko hau lagungarria da modu eraginkor eta kritikoan komunikatzen diren, ondo informatuta dauden eta gaitasun kritikoa duten gizabanako gisa moldatzea ahalbidetzen duten estrategiak ikasten hasteko azken helbururako.

Ahozko mezuak ulertu eta interpretatzeko, trebetasun espezifikoak eskuratu behar dira, horiek laguntzen baitute zenbait testuingurutako (pertsonalak eta lanekoak) eguneroko ahozko komunikazioen oinarrizko zentzua ulertzen, jaso den ahozko informazioaren edo informazio multimodalaren daturik garrantzitsuenak ulertzen, konplexutasun txikiko jarduera jakinak egiteko jarraibide errazak ulertzen eta agurrak ezagutzen. Ahozko ulermenak trebetasun espezifikoak eskatzen ditu kortesiazko ohiko esaldiak eta hitzezko zein hitzik gabeko hizkuntza identifikatzeko, eta baita ideia ez esplizituak identifikatu eta judizio kritikoa egiteko ere.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
| --- | --- |
| 1.1. Konplexutasun txikiko jarduerei buruzko jarraibide errazak ulertzea, hitzezko zein hitzik gabeko hizkuntza behar bezala interpretatuz.<br>1.2. Esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzaren esparruko ahozko testu edo testu multimodaletan jaso den informazioaren zentzu orokorra eta daturik esanguratsuenak identifikatzea, ideia ez esplizituak interpretatuz eta oinarrizko ulermen estrategiak aplikatuz. | 1.1. Jarduera jakinei buruzko jarraibideak ulertzea, hitzezko zein hitzik gabeko hizkuntza behar bezala interpretatuz.<br>1.2. Eguneroko ahozko komunikazioen zentzua identifikatzea zenbait testuingurutan, ideia ez esplizituak interpretatuz eta judizio kritikoa egi-nez.<br>1.3. Esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzaren esparruko ahozko testu edo testu multimodaletan jaso den informazioaren ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea, ideia ez esplizituak interpretatuz eta ulermen estrategia errazak aplikatuz. |

*2. konpetentzia espezifikoa.*

Ahozko testu edo testu multimodal errazak behar bezala egituratuta ekoiztea, interakzioaren oinarrizko arauak baliatuz ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional edo prestakuntzaren esparruko gaiei buruzko elkarrizketak izateko.

2. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Ikasleen komunikaziorako konpetentzia garatzeko, ezinbestekoa da ahozko erabilerei arreta eskaintzea, adierazteko, ikasteko eta nork bere jokabidea kontrolatzeko bide gisa. Komunikazioaren arloan, testuinguru dibertsifikatu eta esanguratsuak eskaini behar dira, ikasleek aukera izan dezaten beren ingurune pertsonal, sozial edo profesionalarekin lotutako elkarrizketa errazei ekiteko, solaskideari ulertu ez duten mezua errepikatzea eskatzeko, oinarrizko ahozko mintzaldi bati koherentziaz erantzuteko, ezagutzak eta iritziak adierazteko, eta beren lanari, familiari, eguneroko bizitzari, interesei edo zaletasunei buruzko azalpenak emateko. Ahozko interakziorako pixkanaka bereganatu behar dira komunikazioaren interakzio, mintzatzeko eta kortesiazko oinarrizko arauak erabiltzeko estrategiak, kortesiazko agurrak eta ohiko esaldiak erabiliz, eta ahozko testuak ere ekoitzi behar dira, esaldi ez oso konplexuak erabiliz eta gainerakoen ideiekiko begirunea azalduz. Ikasleen komunikatzeko gaitasuna hobetzeko, planteamendu eleaniztuna hartuko da, ikasleen errepertorioa osatzen duten hizkuntzak eta aldaerak kontuan hartzen dituena.

Ahozko ekoizpen formalak oinarrizko plangintza estrategietan hastera bultzatzen du ikaslea, eta estrategia horiek etapa osoan zehar barneratuko dira, pixkanaka. Era berean, zenbait komunikazio egoera eta esparrutara egokitutako ereduak eskainiko dira, ahozko testua ordenatzeko, erregistroa moldatzeko eta hitzik gabeko jokabidea zaintzeko (keinuak, mugimenduak, begirada, gorpuztasuna, etab.).

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
| --- | --- |
| 2.1. Ingurune pertsonal, sozial, profesional edo prestakuntzako ingu-runearekin lotutako elkarrizketa erraza hastea, kortesiazko agurrak eta oinarrizko formulak erabiliz.<br>2.2. Solaskideari ulertu ez den zerbaiten inguruko mezua errepikatzea eskatzea, esaldi motz eta errazak erabiliz.<br>2.3. Oinarrizko ahozko mintzaldi bati koherentziaz erantzutea, informazioa behar bezala egituratuz.<br>2.4. Norbere lanari, familiari, eguneroko bizitzari, interesei edo zaletasunei buruzko azalpenak ematea, komunikazioaren interakzio, mintzatzeko eta kortesiazko oinarrizko arauak baliatuz. | 2.1. Ingurune pertsonal, sozial, profesional edo prestakuntzako ingurunea-rekin lotutako elkarrizketa bat mantentzea, gainerakoen ideiak errespetatuz eta konbentzionalismo soziolinguistiko eta soziokulturalak baliatuz.<br>2.2. Ahozko mintzaldi bati koherentziaz erantzutea, informazioa behar bezala egituratuz.<br>2.3. Ezagutzak eta iritziak ahoz adieraztea eta norbere lanari, familiari, eguneroko bizitzari, interesei eta zaletasunei buruzko azalpenak ematea, ordenaz eta koherentziaz, komunikazioaren mintzatzeko eta kortesiazko arauak erabiliz. |

*3. konpetentzia espezifikoa.*

Ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruko idatzizko testuak zenbait euskarritan ulertu eta interpretatzea, zentzu orokorra eta funtsezko informazioa identifikatuz, irakurketa xedeak betetzeko eta irakurtzeko ohitura hartzen hasteko.

3. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Testuak ulertu eta interpretatzeko, irakurketa jardunekiko motibazioa lortu behar da lehenik. Ikasleek estrategiak bereganatu behar dituzte, alde batetik, informazio esanguratsu eta esplizitua aurkitzeko, eta, bestetik, gainazaleko esanahietatik haratago doazen ondorioak ateratzeko eta zentzu bikoitza eta ironia ulertzeko ere.

Irakurtzeko konpetentzia garatzeko ikasleek erabili behar dituzten estrategiek bide emanen dute errealitateko zenbait esparrutako idatzizko testuek daramaten informazio orokorra egoki interpretatzeko, hainbat formatutan: jarraibideak, kartelak, iragarki sinpleak, turismo liburuxkak, mapak, menuak, etab. Arreta berezia eskainiko zaio gogoetazko ulermenari, ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruetako eguneroko testuen isilpeko irakurketa zein irakurketa ozenaren bidez. Ikasleek, halaber, informazioa bilatzeko estrategiak eskuratu behar dituzte, bai jatorri bibliografikoko iturrietan bai informazioaren eta komunikazioaren teknologietan bilatzekoak.

Horrez gain, konpetentzia hau garatzeak berekin dakar norberaren irakurle identitatea eraikitzeko bideari ekitea eta irakurleen eta testuen arteko lotura afektiboa ezartzea, gozamen eta ezagutza iturri diren aldetik; beraz, ezinbestekoa da testu egoki eta askotarikoen corpus bat osatzea, helduen interes eta premia indibidualak –pertsonalak zein profesionalak– kontuan hartzen dituena. Gomendagarria da, halaber, beren interesekoak diren testuak hautatzeko, testu horiek barneratzeko eta irakurketaren esperientzia pertsonala partekatzeko lagungarriak diren estrategiei bide ematen dien irakurleen komunitate bat osatzea.

Konpetentzia espezifiko honen helburua da mota guztietako testuak irakurtzen dituzten ikasle trebeak, autonomoak eta kritikoak prestatzeko oinarriak ezartzea, gai izanen direnak testu horien kalitatea eta fidagarritasuna kritikoki ebaluatzeko, bai eta beren bizitzako esparru guztietan erantzuteko ere irakurtzeko helburu desberdinei.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 3.1. Eguneroko testuinguruko iragarki edo zerrenda labur eta ezagunetan informazio orokorra hautatzea, informazio horren oinarrizko esanahia interpretatuz.<br>3.2. Ilustrazioez lagundutako jarraibide errazak irakurri eta ulertzea, esanahia interpretatuz.<br>3.3. Idatzizko testu edo testu multimodal errazetan dauden azalpen esplizituen esanahia ulertzea, zentzu orokorra eta funtsezko informazioa ulertuz eta dokumentu mota identifikatuz.<br>3.4. Ikasleen gustu, interes eta beharretara moldatutako idazlan errazak laguntzarekin irakurtzea, isilpean zein ozen, norberaren irakurketa prozesuaren berri emanez eta irakurketa esperientzia eta idazlanak hautatzeko irizpideak partekatuz.<br>3.5. Liburutegietan eta Interneten eskura dauden oinarrizko baliabide bibliografiko eta digitalak baliatuz informazio zehatza lortzea. | 3.1. Askotariko oinarrizko testuen (kartelak, iragarkiak, turismo liburuxkak, mapak, menuak, jarraibideak, etab.) zentzu orokorra eta informazio espezifiko garrantzitsuena irakurri eta ulertzea, zenbait euskarritan, testuak aurkezteko formatua identifikatuz eta edukia behar bezala interpretatuz.<br>3.2. Ikasleen gustu, interes eta beharretara moldatutako idazlan askotarikoak laguntzarekin interpretatu eta irakurtzea, isilpean zein ozen, norberaren irakurketa aurrerapenaren berri emanez eta irakurketa esperientzia eta idazlanak hautatzeko irizpideak partekatuz.<br>3.3. Ikasleen interesekoak diren gaien inguruko ikerketa gidatua egitea, informazioa zenbait iturri analogiko eta digitaletan bilatuz eta hautatuz. |

*4. konpetentzia espezifikoa.*

Idatzizko testuak ekoiztea, zenbait euskarritan, koherentziaz eta oinarrizko zuzentasun ortografikoarekin, komunikazio eskari zehatzei erantzuna emateko.

4. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Testuak ikasgelako pertsonen arteko harremanen testuinguruan eginen dira, edo informazioa antolatu edo partekatzeko asmoz. Modu espontaneoenetan ere, testu bat idazteko plangintza eta berrikusketa behar dira. Etapa honetan, aurrerapenak eginen dira argi eta koherentziaz adierazteko estrategiak bereganatzeko, ingurune pertsonalarekin lotutako idazki laburren bidez, zenbait euskarritan, eta ortografia eta puntuazio arau errazenak ezagutzeko: inprimakiak betetzea, jarraibideak idaztea, iritziak edo sentimenduak adieraztea, etab.

Era berean, informazioa eta pentsamendua antolatzen laguntzen duten testuak egiten ikasiko dute, hala nola laburpen eta eskema sinpleak. Hori lagungarria izanen da ikasten ikasteko konpetentzia eskuratzen joateko.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 4.1. Datu, gertakari, iritzi edo sentimenduak komunikatzea, testu labur eta errazak idatziz, zenbait euskarritan eta puntuazioaren eta ortografiaren oinarrizko arauak errespetatuz.<br>4.2. Inprimaki errazak zenbait euskarritan betetzea, oinarrizko informazio pertsonal eta profesionala emanez.<br>4.3. Jarraibide erraz, argi eta koherenteak idaztea, egitura ordenatuarekin eta puntuazioaren eta ortografiaren oinarrizko arauak aplikatuz. | 4.1. Datu, gertakari, iritzi edo sentimenduak komunikatzea, ikasleen ingurune pertsonal, profesional edo sozialarekin lotutako testuak zenbait euskarritan idatziz, horretarako ordena logiko bati jarraituz, puntuazioaren eta ortografiaren arauak errespetatuz eta beharrezkoak ez diren hitzak edo esamoldeak errepikatzea saihestuz.<br>4.2. Hainbat dokumentu mota osatzea, zenbait euskarritan, eskatzen den informazioa emanez.<br>4.3. Jarraibide argi eta koherenteak idaztea, egitura ordenatuarekin eta puntuazioaren eta ortografiaren oinarrizko arauak aplikatuz. |

***2.–Oinarrizko jakintzak.***

A. Alfabetatze mediatiko eta informazionala:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| A.1 | Informazio fidagarria bilatzeko eta hautatzeko oinarrizko estrategiak. | Informazio fidagarria eta egokia bilatzeko eta hautatzeko oinarrizko estrategiak. |
| A.2 | Informazioa antolatzeko oinarrizko estrategiak: oharrak, eskemak, mapa kontzeptualak, laburpenak, etab. | Informazioa antolatzeko oinarrizko estrategiak: oharrak, eskemak, mapa kontzeptualak, laburpenak, etab. |
| A.3 | Informazio-iturri nagusiak: oinarrizko iturri bibliografiko eta digitalak. | Informazio-iturri nagusiak: oinarrizko iturri bibliografiko eta digitalak. |
| A.4 | | Jabetza intelektualaren oinarrizko alderdiak. |
| A.5 | Hurbileko inguruneko alderdiak deskribatzea: etxea, auzoa, eskola, toki komunak eta gorputz atalak. | Ingurune zabalagoetako alderdiak deskribatzea: hiria, garraiobideak, zerbitzu publikoak eta giza gorputza. |
| A.6 | Animaliekin, landareekin eta ohiko fenomeno meteorologikoekin lotutako testu multimodalak ulertzea. | Ekosistemei eta horien interakzioei buruzko testu multimodalak ulertzea. |
| A.7 | Nork bere burua aurkeztea. | Nork bere burua deskribatzea. |
| A.8 | Norberaren informazioari buruzko galdera errazak ulertzea. | Norberaren zainketa ohitura eta osasunari buruzko galdera errazak ulertzea. |
| A.9 | Oinarrizko jarraibideei erantzutea. | Eguneroko bizitzako jarraibideei erantzutea. |

B. Komunikazioa:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| B.1. Zenbait esparrutako ahozko testuak, idatzizkoak eta multimodalak ekoitzi eta ulertzeko oinarrizko estrategiak, alderdi hauei arreta paratuz: | | |
| B.1.1 | Koherentzia testualaren oinarrizko mekanismoak. | Koherentzia testualaren oinarrizko mekanismoak. |
| B.1.2 | Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza. | Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza. |
| B.1.3 | Agurren formulak. | Hizkuntzaren kortesiazko funtsezko formulak. |
| B.1.4 | Ideia garrantzitsuenak, zentzu globala eta ideia ez esplizituak identifikatzea. | Ideia nagusi eta bigarren mailako ideiak identifikatzea eta ideia ez esplizituak interpretatzea. |
| B.1.5 | Eguneroko testuinguruko jarraibideak, deskribapenak, inprimakiak eta informazio testuak: iragarkiak, zerrendak, etab. | Eguneroko idatzizko testuak: jarraibideak, kartelak, iragarki errazak, turismo liburuxkak, mapak, menuak, etab. |
| B.1.6 | Elementu grafiko eta paratestualak. | Elementu grafiko eta paratestualak. |
| B.1.7 | Oinarrizko agiriak betetzea. | Agiriak betetzea. |
| B.1.8 | Oinarrizko interakzio arauak: ulertu ez den informazioa errepikatzea eskatzea eta ingurune pertsonal, sozial, profesional edo prestakuntzako ingurunearekin lotutako elkarrizketak hastea. | Interakzio arauak ingurumen pertsonal, sozial, profesional edo prestakuntzako ingurunearekin lotutako elkarrizketetan. |
| B.1.9 | Datu, gertakari, iritzi edo sentimenduak komunikatzea. | Ingurune historiko eta kulturalari buruzko datu, gertakari, iritzi edo sentimenduak komunikatzea, banaka zein taldeka. |
| B.1.10 | Testuaren plangintza egiteko estrategiak. | Testuaren plangintza egiteko estrategiak. |
| B.1.11 | Idatzizko kodearen oinarrizko konbentzioak: ortografia, puntuazio zeinuak. | Idatzizko kodearen konbentzioak: ortografia, puntuazio markak. |
| B.1.12 | Zuhaitz genealogikoak, iragan hurbilari heltzeko. | Garai historiko nagusiak ezagutzeko denbora lerroak edo ardatz kronologikoak. |
| B.1.13 | Klimari, eguneroko jarduerei edo bizikidetza arauei buruzko oinarrizko elkarrizketetan parte hartzea. | Ingurumena zaintzeari edo gizartearen arazoei buruzko eztabaida edo elkarrizketa errazetan parte hartzea. |
| B.1.14 | Eguneroko errutinak edo inguruneko jarduerekin lotutako jarduerak ahoz azaltzea. | Eguneroko jarduerei, ingurune naturalari edo gertakari historikoei buruzko deskribapen xehatuak idaztea. |

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| B.1.15 | Ingurunea, errutinak edo animaliak deskribatzeko esaldi sinpleak idaztea. | Ingurumen arazoak eta horien irtenbideak norberaren ikuspegitik azaltzeko testu sinpleak idaztea. |
| B.1.16 | Inguruneko gaiekin (esaterako, elikagai osasungarriak, urtaroak edo oinarrizko geografia fisikoaren elementuak) lotutako zerrendak edo eskemak idaztea. | Zenbait gairi buruzko oinarrizko laburpenak egitea, hala nola ohitura osasuntsuak edo dibertsitate kultural edo geografikoa. |

C. Irakurtzeko ohitura:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| C.1 | Ikasleen intereseko idazlan errazak: irakurketa eta idazlanak interpretatzen ikasteko estrategiak. | Ikasleen eta gizartearen intereseko askotariko idazlanak: irakurketa eta idazlanak interpretatzen ikasteko estrategiak, oinarrizko ingurumen arazoak eta horiek konpontzeko irtenbide errazak identifikatzea, eta gertakari historiko garrantzitsuak, tokiko ohiturak eta garai historiko nagusiak ezagutzea. |
| C.2 | Irakurketa esperientzia adierazteko oinarrizko estrategiak, baliabideak eta formatuak. | Irakurketa esperientzia adierazteko estrategiak, baliabideak eta formatuak. |
| C.3 | Testu errazetan hitz eta esaldi gakoak ezagutzea, hala nola ordutegietan, etiketetan edo seinaleetan. | Testu funtzionaletan hitz eta esaldi gakoak ezagutzea. |
| C.4 | Zenbaki, kolore, asteko egun edo hilabeteekin lotutako hiztegia identifikatzea. | Landu den gaiaren oinarrizko hiztegia identifikatzea. |
| C.5 | Eguneroko errutinei, bizikidetza arauei edo ingurumena zaintzeko oinarrizko alderdiei buruzko testu sinpleak irakurtzea. | Fenomeno naturalei, tokiko kulturari eta pertsonaia historiko nabarmenei buruzko testu laburrak irakurtzea. |
| C.6 | Inguruneari buruzko kartelak eta seinaleak interpretatzea. | Ingurune kultural, historiko eta sozialarekin lotutako diagramak edo eskemak interpretatzea. |
| C.7 | Ikusizko testuak ulertzea, hala nola auzoko edo eskolako mapa sinpleak. | Kondaira edo gertakari historikoei buruzko testu narratibo sinpleak ulertzea. |

D. Hizkuntzari buruzko hausnarketak:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| D.1 | Hizkuntza ez-baztertzailea eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena. | Hizkuntza ez-baztertzailea eta desberdintasunekiko errespetua gordetzen duena. |
| D.2 | Oinarrizko terminologia gramatikal eta linguistikoa. | Oinarrizko terminologia gramatikal eta linguistikoa. |

## *ARLO DIGITALA*

Arlo digitalaren helburua da ikasleei ingurune digitalak gehiago eta segurtasun handiagorekin erabiltzen laguntzea eta horretarako heziketa eta prestakuntza ematea. Arlo honetan ezarriko dira helduek teknologia digitalak modu seguru, kritiko eta arduratsuan erabiltzeko oinarriak, bai esparru pertsonalean eta sozialean, bai prestakuntzaren eta lanaren esparruan. Horrela, ikasleak gizarte gero eta digitalizatuago batera egokitzeko beharrari erantzunen zaio, eta ikasleak gizarteratzen lagunduko da, prestakuntzan parte har dezaten sustatuz eta, aldi berean, lanbide prestakuntzarako eta prestakuntzazko eguneratze profesionalerako aukerak handituz.

Egungo herritarren prestakuntza alfabetatze digitaletik harago doa, arreta espezifikoa behar baita baliabide teknologikoak modu etiko, arduratsu, seguru eta kritikoan erabiltzeko behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratzeko. Ondorioz, informazio, datu eta eduki digitaletan alfabetatzeko konpetentziak eskuratzen, komunikatu eta lankidetzan aritzen eta eduki digitalak sortzen lagunduko die arlo honek ikasle helduei. Era berean, segurtasunari –ongizate digitala, zibersegurtasuna, osasuna eta jasangarritasuna barne–, eduki digitalen tratamenduko jabetza intelektualari, arazoen ebazpenari eta pentsamendu kritikoari lotutako gaiak jorratuko dira.

Arlo digitalaren hezkuntza balioa lotuta dago konpetentzia espezifikoak herritarren eguneroko testuinguruetan integratzearekin, eta hori curriculumaren ardatz nagusietako bat da. Arlo honetan eskuratuko dituzte ikasle helduek ingurune digitaletan modu aktibo, seguru eta arduratsuan parte hartzeko behar dituzten ikaskuntzak. Hortaz, Interneten informazioa edo datuak bilatzeko eta plataforma digitaletan erlazionatu eta interakzioa izateko beharrezkoak diren ezagutza, trebetasun eta jarrerak

garatzea da konpetentzia espezifikoen helburu nagusia. Horri esker ulertuko dute ikasleek informazioa, informazio-iturriak eta horien xedeak testuinguruan kokatu eta alderatzeko irizpideak aplikatu behar direla Interneten, eta, aldi berean, bizitza osoko ikaskuntzarako eta egungo gizartean aktiboki parte hartzeko ezinbesteko tresna dela. Horretarako, datuak eta edukiak partekatzen ikasi beharko dute, eta informazioa zenbait formatutan sortu eta moldatzen, betiere etiketa digitala, erabilera lizentziak eta egile eskubideak errespetatuz. Konpetentziek berekin dakarte halaber ingurune digitalak oker edo segurtasun gutxirekin erabiliz gero agertzen diren arriskuak ezagutzea eta oinarrizko babes neurriak aplikatzea, bai identitate digitala eta datu pertsonalak babesteko, bai erabiltzaileen osasun fisiko eta mentala babesteko, eta baita ingurumena zaintzeko ere. Ohiko moduan erabiltzen diren gailu digitalak kudeatu eta mantentzearekin lotutako oinarrizko arazoak konpontzeko behar dituzten ikaskuntzak ere eskuratuko dituzte ikasleek arlo honetan.

Ebaluazio irizpideak konpetentzia espezifikoen eskuratze maila baloratzeko aukera ematen duen elementu dira eta bideratuta daude ikasleek beren praktikari buruz gogoeta egitera, beren ohiturez jabetzera eta errutina digital osasungarri, jasangarri, seguru eta praktika desegokiekiko kritikoak sortzera.

Oinarrizko jakintzak elkarri lotutako lau bloketan antolatuta daude. Lehenengoak, «Gailu digitalak, sistema eragileak eta komunikazioa», barne ditu, alde batetik, gailu digitalen eta beren gailu konektatuen (hardwarea) arkitektura eta oinarrizko osagaien ezagutzaren inguruko jakintzak, eta, bestetik, sistema eragileen (softwarea) eta komunikazio sistema eta Interneten instalazio eta konfigurazioaren inguruko jakintzak. Bigarren blokeak, «Ingurune pertsonal, sozial eta profesionalaren digitalizazioa», barne ditu alfabetatze digitalaren inguruko ezagutza, trebetasun eta jarrerak; beraz, bloke honetako jakintzak lotuta daude informazioa bilatu, hautatu eta artxibatzearekin; eduki digitalak editatu eta sortzearekin; eta ingurune digitaletan lankidetzan aritu eta datuak hedatzearekin. «Segurtasuna eta ongizate digitala» blokeak segurtasunaren hiru oinarriak ditu ardatz: gailuena, datuena eta pertsonen osotasunarena. Jakintza horiei esker, ikasleek prebentzio eta babes neurriak ezagutu eta ezarriko dituzte, gailuek, datuek eta pertsonek jasaten ahal dituzten arriskuei eta mehatxuei aurre egiteko, ingurune digitaletan etengabe interakzioan ari garen mundu batean. Barne ditu, beraz, identitate digitala zaintzearekin, datuen pribatutasunarekin eta aztarna digitalarekin lotutako alderdiak. Azken blokeak, «Herritartasun digital kritikoa», erabilera jasangarriko ohiturekin eta sareko elkarreragitearekin lotutako jakintzak ditu barne; beraz, hor landuko dira, besteak beste, teknologiaren inpaktua, etiketa digitala, lizentzien erabilera edo baliabide digital partekatuen jabetza intelektuala, bai eta albiste faltsuak eta iruzurrak antzemateko estrategiak ere. Kudeaketa administratiboak eta online merkataritzaren interakzioak ere ezagutzea komeni da, eta bloke honetan daude.

Arlo digitalean, ikasle helduen errealitatea curriculumeko elementuekin erlazionatuko da, tresna eta teknologia digitalak esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzaren esparruan erabiltzeari buruzko zalantzak eta arazoak abiapuntu hartuta. Era berean, sareko segurtasuna hobetzeko ere balioko du, beste pertsona batzuekiko interakzioetan eta ohiko aplikazioak erabiltzean. Arloa ahal bezain ongi garatze aldera, gomendatzen da diseinatzen diren ikaskuntza egoerak bideratuta egotea testuinguruan kokatutako zereginak ebaztera, zeinak ikasleen prestakuntza beharretara moldatuta egonen baitira eta ikaskuntza esperientziak sortzen baitituzte, aldatzen dituztenak ikasleen antolaketa kognitiboa eta ebazte gaitasuna, eskari sozial, pertsonal eta profesionalei aurre egiteko.

***1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak.***

*1. konpetentzia espezifikoa.*

Interneten bilaketa gidatuak egitea, aldez aurretik hautatutako iturri digitaletan, informazioaren tratamendu digitalerako estrategia errazak aplikatuz (hitz gako hitzak, informazio esanguratsua hautatzea, etab.), fidagarriak diren iturriak fidagarriak ez diren horietatik desberdinduz eta edukiei buruzko jarrera kritikoarekin, premia edo interes zehatzetarako informazioa eskuratzeko helburuarekin.

1. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Ikerketa egiteko, gizartean parte hartze aktiboa izateko eta norbanakoaren garapen profesional eta pertsonala lortzeko, sarritan beharrezkoa da konpetentzia berriak eskuratzea, lotuta daudenak

Interneteko hainbat iturritan informazioa bilatu eta hautatzearekin, premia edo interes zehatzei erantzuteko datuak lortu ahal izateko.

Egungo gizartean informazio zaparrada etengabea da, eta horrek ez du beti errealitatea islatzen. Batzuetan, informazioa gezurrekin, funtsik gabeko gertakariekin eta sinesmen pseudozientifikoekin nahasten da; beraz, ezinbestekoa da zentzu kritikoa garatzea eta informazio-iturri fidagarriak eta ez fidagarriak ezagutu eta desberdintzeko estrategiak ikastea.

Konpetentzia espezifiko horri esker ikasleek behar duten informazioa Interneten aurkitzen ikasiko dute, informazioaren tratamendu digitalerako estrategia errazak aplikatzen dituzten bilaketa gidatuekin, hala nola gako hitzak erabiltzea edo informazio esanguratsu eta fidagarria hautatzea. Ordenagailu, gailu mugikor eta maiz erabiltzen diren gainerako IKT gailuetan informazioa bilatzeko elementu ohikoenak erabiltzen jakin behar dute ikasleek, bai eta datuak bilatu eta hautatzen ere, aldez aurretik aukeratu diren iturri digitaletan bilaketa gidatuak eginez. Horrez gain, konpetentzia horrek Interneten eskuragarri dauden edukiekin jarrera kritikoa garatzen lagunduko die, gizarte demokratiko gero eta digitalizatuago batean aktiboki parte hartu ahal izateko.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 1.1. Informazio zehatza lortzea, aldez aurretik hautatu diren iturri digitaletan informazioa bilatzeko oinarrizko estrategiak aplikatuz, gidaritzarekin.<br>1.2. Iturri digitaletatik lortutako informazio esanguratsuena hautatzea, iturri fidagarriak eta ez fidagarriak desberdinduz. | 1.1. Informazio, datu edo eduki zehatzak lortzea, aldez aurretik hautatu diren iturri digitaletan bilaketa gidatuak eginez eta informazioaren tratamendu digitalerako estrategia errazak aplikatuz (gako hitzak, iragazki errazak, biltegiratzea, etab.).<br>1.2. Iturri digitaletatik lortutako informazioa modu kritikoan hautatu eta aztertzea, iturri fidagarriak eta ez fidagarriak desberdinduz. |

*2. konpetentzia espezifikoa.*

Komunikazio plataforma birtualetan datu eta eduki digitalak partekatzea, teknologia egoki eta errazak baliatuz eta etiketa digitalaren oinarrizko arauak betez, gizartean parte hartze aktibo eta arduratsua izateko.

2. konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Teknologia digitalak nabarmen zabaldu dira, eta horrek harremanak ezartzeko modu berri bat sortu du. Etengabe aritzen gara interakzioan eta etengabe partekatzen ditugu datu, informazio eta eduki digitalak sarean. Gainera, zerbitzu publiko zein pribatuetako izapideek gero eta gehiago eskatzen diete herritarrei bitarteko digitalak baliatzea. Ondorioz, komunikatzeko eta kudeatzeko gehien erabiltzen diren plataforma birtualak ezagutu behar dira teknologia behar adina aprobetxatzen dela ziurtatzeko. Ikasleek ulertu behar dute, halaber, teknologiak erabiltzeak aztarna digitala sortzen dugula, eta horrek onura eta arriskuak dakartzala. Horrela ikasiko dute beren identitate digitala kudeatzen eta gizartean modu aktibo eta arduratsuan parte hartzen.

Etapa honetan, konpetentzia honek erabiltzaileekiko interakzioa eta sareko edukia biltzen ditu; hala, internautarekiko tratu zuzena ez ezik, beste pertsona batzuek egiten dituzten ekintzekiko errespetua ere lantzen da, eta jokabideak etiketa digitalaren oinarrizko arauetara moldatzen dira. Kudeaketa administratibo telematikoei (online zerbitzu publikoak, erregistro digitalak eta ziurtagiri ofizialak) eta merkataritza ekintza elektronikoei (faktura digitalak eta ordaintzeko moduak) ere heltzen die. Hartara, sarean herritartasun aktibo, arduratsu, begirunetsu eta segurua gauzatzeko aukera ematen duten ekintzak ikasiko dituzte ikasleek.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 2.1. Ingurune digital mugatuetan eta gainbegiratuta, informazio eta eduki digitalak partekatzea, komunikazio plataforma birtualak baliatuz eta erreferentzia eta esleipen jardun errazak identifikatuz.<br>2.2. Teknologia digital erraz egokienak identifikatzea, planteatu diren komunikazio xedeak aintzat hartuta.<br>2.3. Etiketa digitalaren oinarrizko arauak ezagutzea, horren beharraz jabetuz eta baliagarritasuna azalduz. | 2.1. Ingurune digital mugatuetan eta gainbegiratuta, datu eta eduki digitalak partekatzea, komunikazio plataforma birtualak baliatuz eta erreferentzia eta esleipen jardun errazak aplikatuz, betiere etiketa digitalaren arauak errespetatuta.<br>2.2. Teknologia digital erraz egokienak gidatuta hautatzea, oinarrizko irizpideak aplikatuz eta planteatu den helburua kontuan hartuta. |

*3. konpetentzia espezifikoa.*

Informazio digital zehatz eta erraza sortu eta berregitea, zenbait formatutan, eduki digital jatorrizkoak eta aldatuak desberdinduz eta erabiltzen diren edukien jabetza intelektuala eta egile eskubideak errespetatuz, ideiak eta iritziak adierazteko.

3. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Elementu teknologikoek eta bitarteko digitalek gure bizitzan duten presentzia gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da. Horrenbestez, ikasleek ikasi behar dute informazioa prozesatzen, egile eskubideak dituzten edukiak ezagutzen eta beren eduki digital propioak sortu eta berregiten.

Konpetentzia honek lotura dauka alfabetatze informazionalarekin, jatorrizko eduki digitalak eta eraldatutakoak desberdintzearekin, eta informazio digitala zenbait formatutan (testua, taulak, irudia, audioa, bideoa, etab.) sortzearekin, horretarako aplikazio eta tresna digitalak baliatuz. Konpetentzia hori eskuratzean, ikasleek berrerabiltzen dituzten edukien jabetza intelektualeko eskubideak eta egile eskubideak ezagutu eta errespetatuko dituzte, eta baita eduki digitalak erabiltzeko lizentziak ere. Horretarako, baliabide libreak eskaintzen dituzten gordailu nagusiak ezagutu eta erabiltzen jakin beharko dute, eta jatorrizko eduki digitalak jatorrizkoak ez direnetatik desberdintzeko estrategiak garatu beharko dituzte. Era berean, tresna digital hauek ideiak eta iritziak adierazi eta zabaltzeko eskaintzen dituzten aukerak ulertu eta aprobetxatuko dituzte, etiketa digitala errespetatuz.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 3.1. Ideia eta iritziak adieraztea, eduki digital errazak sortuz zenbait formatutan.<br>3.2. Jatorrizko eduki digitalak eta eduki digital eraldatuak desberdintzea, gidatuta, oinarrizko erabilera lizentziak eta eduki horien egile eskubideak identifikatuz. | 3.1. Ideiak eta iritziak eduki digitalak sortuz adieraztea, zenbait formatutan, horretarako informazio digital zehatz eta erraza prozesatu eta berrerabiliz, eta betiere berrerabili diren edukien jabetza intelektuala errespetatuz.<br>3.2. Eduki digital jatorrizkoak eta eraldatuak desberdintzea, eduki horiek erabiltzeko oinarrizko lizentziak identifikatuz eta haien arteko aldeak azalduz. |

*4. konpetentzia espezifikoa.*

Ingurune digitalak oker eta segurtasun gutxirekin erabiltzeak dakartzan arriskuak ezagutzea, funtsezko babes neurriak hartuta, oinarrizko teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, osasuntsu, arduratsu eta jasangarria egiteko.

4. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Konpetentzia honek dakar ingurune digitalak oker eta segurtasun gutxirekin erabiltzen ditugunean ager daitezkeen arriskuak ezagutzea. Arrisku horiek identitate digitalari eta datu pertsonalei, erabiltzaileen osasun fisiko eta mentalari eta ingurumen eta energia efizientziari buruzkoak izan daitezke. Arriskuok saihesteko, ikasleek funtsezko segurtasun neurriak hartzen ikasi beharko dute, alde batetik, datu pertsonalak babesteko, oinarrizko teknologia digitalen erabilera kritiko eta seguruaren bidez; eta, bestalde, norberaren osasun fisiko eta mentala zaintzeko, teknologiaren erabilera osasuntsu eta arduratsuaren bidez. Azkenik, gailuak zaintzen eta erabilera jasangarrirako ohiturak hartzen ere ikasiko dute, teknologia horiek ingurumenean duten inpaktua murrizteko.

Konpetentzia hori eskuratzeko, gailuen konfigurazioari buruzko alderdi teknikoekin lotutako jakintzak aplikatu beharko dituzte, baita datu pertsonalak babesteari eta identitate digitalaren kudeaketari buruzkoak ere, islatzen den irudia eta sarean uzten den aztarna kontuan hartuta. Era berean, energia aurrezteko eta teknologia digitalak birziklatzeko aukerak landuko dira.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 4.1. Ingurune digitalen erabilera oker eta ez oso seguruari lortutako arrisku nagusiak ezagutzea, kasu bakoitzerako oinarrizko babes neurriak gidaritzapean identifikatuz.<br>4.2. Gailu digitalak modu osasuntsuan erabiltzeko ohiturak identifikatzea, gehiegizko erabileraren edo erabilera okerraren arrisku fisiko eta mentalak azalduz. | 4.1. Oinarrizko gailu digitalak modu kritiko, seguru eta arduratsuan erabiltzea, oinarrizko babes neurriak hartuta.<br>4.2. Gailu digitalak gehiegi edo oker erabiltzetik eratorritako arrisku fisiko eta mentalak saihestea, erabilera ohitura osasuntsuak gidaritzapean garatuz. |

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 4.3. Teknologia digitalak ingurumenean duen inpaktua azaltzea, gidatuta, eta teknologia digitala modu jasangarrian erabiltzeko ohiturak identifikatzea. | 4.3. Teknologia digitalak ingurumenean duen inpaktua azaltzea, eta teknologia digitala modu jasangarrian erabiltzeko bidea ematen duten ohiturak identifikatzea. |

*5. konpetentzia espezifikoa.*

Soluzio digital erraz eta jasangarriak identifikatu eta aplikatzea, antzeman diren arazo teknikoei buruzko informazioa bilatuz, bai arazo horiek konpontzeko, bai ohiko premia pertsonal eta profesionalak asetzeko.

5. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Konpetentzia honek ohiko gailu digitalak kudeatzen eta mantentzen hasteko balioko die ikasleei. Teknologia digitalak maiz erabiltzen dira hezkuntzaren arloan eta arlo profesional eta administratiboan; beraz, ikasleek gailuen oinarrizko mantentzeari eta arazo tekniko errazak konpontzeari buruzko trebetasunak garatu beharko dituzte, hala bermatzen ahalko da teknologia horiek aprobetxatzen dituztela eta premia pertsonal zein profesionalak asetzeko baliatzen dituztela.

Konpetentzia honek ekipamenduen funtzionamenduari eta horiek erabiltzeko behar diren aplikazio eta programei buruzko alderdi teknikoak ikastea dakar. Halaber, komunikazioaren teknologiek gaur egun duten eginkizuna kontuan hartzea ere badakar. Horrela, ezinbestekotzat jotzen da ikasleek Interneteko funtzionalitateak ongi ezagutzea, komunikazio sistema ohikoenen oinarrizko elementuak identifikatzea eta premia pertsonal eta profesionalak kudeatzeko teknologia berriak baliatzea, esaterako, administrazio publikoan izapideak egiteko edo curriculuma prestatzeko, besteak beste.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 5.1. Gailu digitalen eta aplikazio ohikoenen arazo teknikoak identifikatzea, antzeman diren arazoei buruzko informazioa bilatuz.<br>5.2. Ohiko behar pertsonal eta profesionalak asetzeko aplikazio eta tresna digitalak identifikatzea, gidatuta, eta horien ezaugarri eta oinarrizko funtzioak ezagutzea. | 5.1. Gailu digitalen eta maiz erabiltzen diren aplikazioen oinarrizko arazo teknikoak konpontzea, horien inguruko informazioa bilatuz eta irtenbide digital erraz eta jasangarriak proposatuz.<br>5.2. Ohiko behar pertsonal eta profesionalak asetzeko aplikazio eta tresna digitalak hautatzea, eta horien ezaugarri eta oinarrizko funtzioak azaltzea. |

***2.–Oinarrizko jakintzak.***

A. Gailu digitalak, sistema eragileak, komunikazio sistemak eta Internet:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| A.1 | Ordenagailuen arkitektura: oinarrizko elementuak. | Ordenagailuen arkitektura: oinarrizko elementuak eta konfigurazioa. |
| A.2 | | Sistema eragileak: definizioa, baliagarritasuna, mantentzea, etab. |
| A.3 | Internet: informazio, komunikazio eta zerbitzu sarea. | Oinarrizko komunikazio eta Internet sistemak. |

B. Ingurune pertsonal, sozial eta profesionalaren digitalizazioa:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| B.1 | Oinarrizko informazio-iturri digitalak. | Informazio-iturri digitalak. |
| B.2 | Informazioa bilatzeko oinarrizko estrategiak. | Informazioa eta datuak bilatzeko oinarrizko estrategiak. Bilaketa iragazkiak. |
| B.3 | Informazioa ebaluatzeko oinarrizko estrategiak: indarraldi eta fidagarritasuna aztertzeko oinarrizko irizpideak. | Informazioa eta datuak ebaluatzeko oinarrizko estrategiak: kalitatea, baliagarritasuna, indarraldi eta fidagarritasuna aztertzeko oinarrizko irizpideak. |
| B.4 | Edukiak sortu eta editatzea: editatzeko oinarrizko aplikazioak. | Edukiak sortu eta editatzea: produktibitatea hobetu eta editatzeko oinarrizko aplikazioak. |
| B.5 | Sareko komunikazioa: komunikazio sinkrono eta asinkronorako oinarrizko tresnak. Komunikazio plataforma birtual nagusiak. | Sareko komunikazioa: komunikazio sinkrono eta asinkronorako tresnak. Komunikazio plataforma birtual nagusiak. |

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| B.6 | Identitate digitalak. | Identitate digitalak. |
| B.7 | Ingurune pertsonal, sozial eta profesionaleko aplikazio eta tresna digital nagusiak: ezaugarriak eta oinarrizko funtzioak. | Ingurune pertsonal, sozial eta profesionaleko aplikazio eta tresna digitalak: ezaugarriak eta oinarrizko funtzioak. |

C. Segurtasuna eta ongizate digitala:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| C.1 | Gailuen segurtasuna: oinarrizko prebentzio neurriak (antibirusa, pasahitz seguruak, etab.). | Gailuen segurtasuna: oinarrizko prebentzio neurriak (suebakia, antibirusa, segurtasun kopiak, etab.). |
| C.2 | Datuen segurtasuna eta babesa: pribatutasuna eta aztarna digitala. Oinarrizko prebentzio neurriak. | Datuen segurtasuna eta babesa: pribatutasuna eta aztarna digitala. Oinarrizko prebentzio neurriak. |
| C.3 | Osasun fisiko eta mentala babestu eta zaintzeko oinarrizko neurriak. Ongizate pertsonalerako arrisku eta mehatxuak (egoneko bizitza, teknologiarekiko mendekotasuna, etab.). Jardunbide osasuntsuak. | Osasun fisiko eta mentala babestu eta zaintzeko oinarrizko neurriak. Ongizate pertsonalerako arrisku eta mehatxuak (egoneko bizitza, teknologiarekiko mendekotasuna, etab.). Jardunbide osasuntsuak. |

D. Herritartasun digital kritikoa:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| D.1 | Sarean elkarreragitea: etiketa digitalaren oinarrizko arauak, jabetza intelektuala, egile eskubideak eta erabilera lizentziak. Erreferentzia eta esleipen jardun errazak. | Sarean elkarreragitea: etiketa digitalaren arauak, jabetza intelektuala, egile eskubideak eta erabilera lizentziak. Erreferentzia eta esleipen jardun errazak. |
| D.2 | Komunikazio estrategiak eta sarearen erabilera kritikoa. Albiste faltsuak eta iruzurrak hautemateko oinarrizko estrategiak. | Komunikazio estrategiak eta sarearen erabilera kritikoa. Albiste faltsuak eta iruzurrak hautemateko tresnak. |
| D.3 | Erabilera jasangarrirako ohiturak: teknologia digitalak ingurumenean duen inpaktua eta hori murrizteko oinarrizko neurriak. | Erabilera jasangarrirako ohiturak: teknologia digitalak ingurumenean duen inpaktua eta hori murrizteko oinarrizko neurriak. |
| D.4 | Oinarrizko kudeaketa administratiboak: online zerbitzu publikoak. | Administrazioarekiko gestioak: online zerbitzu publikoak, erregistro digitalak eta ziurtagiri ofizialak. |
| D.5 | Merkataritza elektronikoa: ordaintzeko moduak. | Merkataritza elektronikoa: faktura digitalak eta ordaintzeko moduak. |

## *MATEMATIKAREN ARLOA*

Gaur egungo gizartean, oinarrizko konpetentzia matematikoa izatea ezinbestekoa da herritartasun libre eta arduratsuak izan gaitzezen. Giza jarduera gehienetan agertzen da matematika; izan ere, diren ideia eta jokabideen multzoak bide ematen du errealitatea ezagutu, egituratu eta aztertzeko eta informazio berria eta hasiera batez agerikoak ez ziren ondorioak eskuratzeko. Matematika ikastean eskuratzen diren ezagutza, trebetasun eta jarrerek, eta baita instrumentuek ere, aukera ematen dute egoera-problema bat formulatzean ikuspuntu eta arrazoibide matematikoa aplikatzeko, problema ebazteko tresna egokiak hautatzeko, soluzioak testuinguru jakin batean interpretatzeko eta erabaki estrategikoak hartzeko. Matematikaren ulermen horri esker, ikasle helduek judizio arrazoituak eginen dituzte eta erabakiak hartuko dituzte; hala, aurrean jartzen zaizkien erronkei erantzuteko gai diren herritar konprometitu eta zuhur bihurtuko dira, eta beren interesetarako onuragarriak diren erabaki informatuak hartuko dituzte egoera bakoitzean.

Matematikaren arloaren curriculuma hiru konpetentzia espezifikoren inguruan egituratzen da, matematikaren hiru oinarrizko alderdirekin lotuta: zenbakiak eta kalkulua, formak eta neurriak, eta grafikoak eta estatistikak. Konpetentzia horiek eskuratzen badituzte, ikasleak ohiko egoerak interpretatu, aztertu eta ebazteko prest egonen dira, honako hauek ezagutu eta egiten jakinen dutelako: zenbakiak eta oinarrizko kalkulua, objektuak espazioan deskribatzea eta mapa eta planoak erabiltzea, kasu bakoitzean egokienak diren neurketa unitateak hautatu eta aplikatzea, grafiko matematikoak interpretatzea eta datu baliagarriak ateratzea. Era berean, probabilitatea zer den ulertuko dute eta eguneroko bizitzako ziurgabetasun egoeretan erabaki egokienak hartzeko probabilitatea nola aplikatu ikasiko dute, informazio estatistikoa abiapuntu hartuta.

Arlo honetako ebaluazio irizpideek zehazten dute ikasleek konpetentzia espezifikoak zer mailatan eskuratu dituzten, eta, beraz, horiei lotuta aurkezten dira. Konpetentzien formulazioan, ikasleek bere-

ganatu behar duten prozesua edo gaitasuna eta prozesu edo gaitasun hori aplikatzeko eta erabiltzeko testuingurua edo modua adierazten dira.

Oinarrizko jakintzek batera biltzen dituzte arloaren konpetentzia espezifikoak eskuratzeko behar diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea), eta, orobat, laguntzen dute ikaskuntzak irizpideen bidez ebaluatzen. Hiru bloketan banatzen dira. Lehenengo blokea, «Zenbakiak eta kalkulua», zenbait zenbaki multzorekin lotutako jakintzek osatzen dute (zenbaki naturaletatik frakzionarioetara), bai eta hamarreko potentziak barnean dituzten oinarrizko kalkulu-eragiketek ere. Bloke honetan biltzen diren alderdiek ikasleei laguntzen diete sistema numerikoa ulertzen eta proportzio eta portzentajeak zein lortutako emaitzak aztertzen; hala, ikasleek aukera izanen dute alderdi horiekin koherenteak diren erabakiak hartzeko, eta gaitasun handiagoa lortuko dute ohiko eta eguneroko problemak ebazteko. Bigarren blokea, «Formak eta neurriak», geometriarekin lotutako jakintzak ditu barnean, trebetasunak eta jarrerak lantzeko funtsezko ezagutza baitira. Jakintza horiek lotuta daude eguneroko bizitzako egoerekin eta estrategiak ematen dizkiete ikasleei egoera bakoitzean neurri baliagarri eta egokienak hartzeko, horretarako beharrezkoak diren tresnak baliatuz eta unitate egokiekin erlazionatuz. Hirugarren blokeak, «Grafikoak eta estatistikak», barnean ditu grafikoak interpretatzeko eta datuak eta ondorioak grafikoki adierazteko ikasleek behar dituzten ikaskuntzak, bai eta datuak biltzeko eta erlazio estatistikoak adieraztekoak ere. Ziurgabetasun matematikoari eta eguneroko egoeretan zoria kuantifikatu eta zenbatesteari buruzko jakintzak ere baditu.

Matematikaren arloa diseinatu da ikasleek ikasten dutena beren eguneroko errealitatearekin konektatu ahal izateko, eta ordura arte guztiz ulertzen ez zituzten zalantzak argitu eta egoerak ulertzeko gai izan daitezen. Testuinguruan kokatu diren eta ikasle helduen hasierako mailara moldatu diren ikaskuntza egoerak diseinatu eta martxan jarriko dira, erronka moduko gradazio egokia dutela, hori funtsezkoa izanen baita ikasleen antolaketa kognitiboa eta ebazte gaitasuna eraldatzen dituzten ikaskuntza esperientziak lortzeko; modu horretan, aurre egin beharreko eskari sozial, pertsonal eta profesionalei erantzunen diete.

***1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak.***

*1. konpetentzia espezifikoa.*

Bizitza errealeko egoeretan agertzen diren problema matematikoak identifikatu, planteatu eta aztertzea, arrazoibide numerikoa eta kalkulatzeko eta adierazteko zenbait teknika eta estrategia aplikatuz, problema horiek ebatzi eta lortu diren emaitzen baliozkotasuna egiaztatzeko.

1. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Problema bat ulertzea da beti problema hori ebazteko lehenengo urratsa. Zenbakien oinarrizko ezagutza, arin kalkulatzea eta adierazpen estrategia eraginkorrak aplikatzen jakitea lagungarriak dira bizitza errealeko egoerak hobe identifikatu, planteatu eta ebazteko. Problema ebazteko kalkulu-estrategia aukeratzeak eta hura aldizka berrikusteak esan nahi du erabakiak hartu behar direla, erantzuna aurreikusi behar dela, ezarritako jarraibideei lotu beharra dagoela, arriskuak hartu behar direla eta errorea ikasteko aukera gisa ulertu behar dela.

Konpetentzia hau garatzean lehentasuna emanen zaio zenbakien ulermen eta erabilerari (irakurketa, adierazpena, ordena, alderaketa, konposizioa eta deskonposizioa), oinarrizko eragiketei, horien propietateak ezagutzeari, buruz kalkulatzeko trebetasunak garatzeari, zatigarritasunari eta arrazoibide proportzionalari; hori guztia bizitza errealeko problemak ebazteko.

Soluzioen baliozkotasuna egiaztatzeko, jarraitu den prozesuari buruz hausnartu behar da eta soluzioak ebaluatu behar dira, ez bakarrik zuzentasun matematikoaren ikuspuntutik, baizik eta soluzio horiek planteatu den testuingururako egokiak diren ere aztertuz. Era berean, soluzioek kontsumo arduratsuaren, osasunaren, ingurumenaren eta abarren aldetik izanen dituzten inplikazioak eta ondorioak ere modu kritikoan aztertu behar dira.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 1.1. Planteatu diren galderak ulertzea eta soluzio koherenteak proposatzea, eguneroko bizitzako problemetan edo egoera problematizatu errazetan agertzen den informazio numerikoa ezagutu eta interpretatuz, eta kalkulatzeko zenbait estrategia eta tresna baliatuz.<br>1.2. Eguneroko bizitzako egoerak ebaztea, egoera problematizatu errazak adierazteko adibideak proposatuz, informazio numerikoa baliatzea eskatzen duten manipulazio baliabide eta baliabide grafikoekin.<br>1.3. Problema numeriko batetik soluzioak eta ondorioak ateratzea, emaitzen koherentzia egiaztatzeko zenbait estrategia aplikatuz, esaterako, kalkulu mentala, arkatza eta papera eta kalkulagailua. | 1.1. Eguneroko bizitzako problemetan edo egoera problematizatuetan agertzen den informazio numerikoa ulertu eta ebaluatzea, ahoz eta grafikoki ongi arrazoitutako erabaki egokiak hartuz.<br>1.2. Egoera problematizatuen adierazpen adibideak interpretatu eta adieraztean lengoaia aljebraikoa zuzen ulertu eta erabiltzea, informazio numerikoa baliatzea eskatzen duten eguneroko bizitzako problemak ebazten laguntzen duten manipulazio baliabideekin, baliabide grafikoekin eta baliabide teknologikoekin.<br>1.3. Problema numerikoetan ekuazioak ebatzi eta aldagaiak kalkulatzea, emaitzen zuzentasun matematikoa eta koherentzia zenbait estrategiaren bidez egiaztatuz. |

*2. konpetentzia espezifikoa.*

Forma geometrikoak, magnitudeak, neurketa unitateak eta kalkulu numerikoa ezagutu, erlazionatu eta erabiltzea, egoera errealetako patroi numeriko eta geometrikoak ezagutuz, hartara askotariko egoera eta testuinguruetan problemak interpretatu eta ebazteko gai izateko.

2. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Objektu matematikoen arteko loturak (kontzeptuak, prozedurak, irudikapen sistemak, etab.) laguntzen du bereganatutako jakintza sakonago eta iraunkorrago ulertzen, eta norberaren ikaskuntzari buruzko ikuspegi zabalagoa ematen du. Ikuspegi global eta elkar erlazionatu horrek balio du bizitza errealarekin konexioak egiteko eta ingurunea eta bertan gertatzen dena hobeki ulertzeko; izan ere, oinarri solido bat eraikitzen da aldi berean ikaskuntza berriak finkatzeko eta erronka berriei aurre egiteko.

Konpetentzia hau garatzeko, ezinbestekoa da zenbatetsi, neurtu eta alderatzeko unitate egokiak hautatzea, neurketak egiteko instrumentu egokiak erabiltzea eta magnitudeen arteko erlazio esperimentalak ulertzea. Horretarako, komeni da zenbait objekturen ezaugarri komunak bistaratzea lehenestea, objektuen alderaketa errazteko eta objektu horien atributu neurgarriak, neurriak eta neurketa unitateak identifikatzeko, eguneroko objektuen atributuen neurketa errealak eginez. Era berean, formen inguruko ezagutzak funtsezkoak dira munduko alderdi geometrikoak ulertu eta aintzat hartzeko. Ezagutza horien barne daude formak identifikatu, irudikatu eta sailkatzea; formen propietate eta erlazioak ezagutzea; formen mugimendu eta eraldaketak deskribatzea, eta formekin arrazoitzea.

Geometria errealitatearen abstrakzioa da eta, hortaz, testuinguru egokia da arrazoiketan, argudiaketan eta egoera errealetan hartutako erabakien justifikazioan hasteko. Konpetentzia hau garatzeak berekin dakar bi eta hiru dimentsioko figuren ezaugarriak aztertzea, erlazio geometrikoak ikuspuntu matematikotik arrazoitzea, eta arrazoibide espaziala baliatzea mapak erabiltzean, ibilbideak diseinatzean, planoak interpretatzean eta sorkuntza artistikoan. Planteamendu globalizatu bat lehenetsi beharko da, ingurunearekiko erlazio matematikoak agerian uzten dituena, eta alde batera utziko da figuren definizio eta sailkapenak buruz ikastea.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 2.1. Zenbait elementu matematiko konektatzen dituzten aieru matematikoak egitea, patroiak, propietateak eta erlazioak gidaritzapean aztertuz, eguneroko bizitzako objektuen figura geometrikoak ezagutu eta sailkatzeari esker.<br>2.2. Ohiko objektuen zenbait magnitude eta neurketa unitate neurtzea eta kalkulatzea eskatzen duten problemen adibideak proposatzea, eguneroko egoerak oinarri hartuta, neurtzeko instrumentu egokienak aukeratuz.<br>2.3. Irudikapen espazial errazak interpretatzea (planoak, krokisak eta mapak), elementu matematikoen arteko konexioak bilatuz, jarraibide zehatzen arabera. | 2.1. Zenbait elementu matematiko konektatzen dituzten aieru matematikoak erabiltzea, patroiak, propietateak eta erlazioak aztertuz, egoera errealen eta eguneroko bizitzako objektuen figura geometrikoak ezagutu eta sailkatzeari esker.<br>2.2. Ohiko objektuen zenbait magnitude eta neurketa unitate neurtzea eta kalkulatzea eskatzen duten problema berriak eta ebazpen estrategiak proposatzea, eguneroko egoerak oinarri hartuta, neurtzeko instrumentu egokienak aukeratuz.<br>2.3. Irudikapen espazialak aztertu eta interpretatzea (planoak, krokisak, mapak, ibilbideak eta maketak), elementu matematikoen arteko erlazioak era autonomoan bilatuz. |

*3. konpetentzia espezifikoa.*

Datu, prozedura eta emaitza matematikoak atera, komunikatu eta adieraztea, eta informazio estatistikoarekin eta ziurgabetasunarekin lotutako ideiak era kritikoan interpretatu eta ebaluatzea, betiere terminologia eta hizkera egokia erabiliz, ideia matematikoei esanahia emateko eta mundu errealeko ziurgabetasun eta arrisku egoeretan parte hartu eta horiek kudeatzeko.

3. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Komunikatzea eta ideiak trukatzea funtsezkoak dira hezkuntza zientifikoan eta matematikoan. Komunikazioaren bidez, ideiak hausnarketarako, hobekuntzarako, eztabaidarako eta zuzenketarako objektu bilakatzen dira. Arrazoitutakoa hitzez aztertzeko eta adierazteko gaitasuna behar-beharrezkoa da gizartean moldatzeko. Horretarako, hiztegi matematiko egokia erabili behar da, transmititu nahi diren ideiak azaldu eta antolatu behar dira eta aurkako argudioak onartu edo eztabaidatu behar dira. Hortaz, ikasleek hiztegi espezifikoa ezagutu eta ulertu behar dute, datu, prozedura eta emaitza matematikoak adierazteko, hurbileko hizkuntza batetik abiatuz eta pixkanaka bereganatuz matematikak berezko dituen terminologia zehatza eta zorroztasun zientifikoa, eta, aldi berean, informazio matematikoa transmititu behar dute, zenbait euskarri eta formatutan, ahoz, idatziz edo komunikazio multimodalaren bidez, kontuan izanda hartzaileak eta asmo komunikatiboa.

Gaur egun, informazio numeriko eta grafikoak berebiziko garrantzia du eguneroko bizitzan. Ezinbesteko trebetasunak dira honako hauek: komunikabide, telefono mugikor, publizitate liburuxka, infografia eta abarretan ageri diren grafikoak ikastea, begirada kritikoarekin aztertzea eta hortik ondorioak ateratzea. Grafikoen irudikapen analogiko zein digitala ere, ideiak eta ondorioak adierazteko modua den aldetik, konpetentzia honen barne dago.

Bestalde, zoriak eta probabilitateak arrazoitzea eta datuak interpretatzea sustatzen dute, baita balorazio kritikoa eta informazio estatistikotik abiatuta erabakiak hartzea ere. Konpetentzia garatzean, halaber, lortuko dituzten ezagutzek zerikusia dute ikasleen eguneroko bizitzako ausazko fenomenoak ulertzearekin eta komunikatzearekin; beraz, konpetentziaren garapena ziurgabetasuna aztertzera bideratu behar da, ausazko jokoak ez diren beste testuinguru batzuetan. Ikasleek hobeki ulertuko dute inguruan duten errealitatea eta hobeki kudeatuko dituzte agertzen zaizkien ziurgabetasun eta arrisku egoerak probabilitatearen ideia pixkanaka eraikitzen badute, ausazko egoerak eta egoera deterministak desberdintzen badituzte, ausazko fenomeno baten emaitzak zerrendatzen ikasten badute eta datuak bilduz erantzun daitezkeen galderak aztertzen badituzte.

Ebaluazio irizpideak:

| HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|
| 3.1. Eguneroko testuinguruetan dagoen matematika hizkuntza erraza ezagutzea, bizitza pertsonal edo profesionaleko taulak, diagramak eta grafikoak interpretatuz.<br>3.2. Eguneroko bizitzan aurki daitezkeen ideia eta prozesu matematikoak azaltzea, hiztegi egokia eta grafiko errazetako informazio numerikoa baliatuz.<br>3.3. Zoria tartean den eguneroko bizitzako egoerak ezagutzea, gertaera jakinen probabilitatea azalduz eta alderatuz. | 3.1. Datu errazak interpretatu eta aztertzea, ikasleen bizitza pertsonaleko, laneko edo prestakuntza esparruko egoeretan agertzen diren taula, diagrama eta grafikoetan, eta eguneroko testuinguruetan aurkitzen duten matematika hizkuntza ulertzea.<br>3.2. Eguneroko bizitzako gaietan ideia eta prozesu matematikoak komunikatzea, zenbait formatutan, hiztegi espezifikoa erabiliz eta grafikoetan ageri den informazio matematikoa interpretatuz.<br>3.3. Zoria tartean den eguneroko egoerak interpretatzea, gertatzeko probabilitatea baloratuz, eta matematika hizkuntzaren bidez azaltzea bai problema ebaztera iritsi arte emandako datuak, bai problemaren emaitzak. |

***2.–Oinarrizko jakintzak.***

A. Zenbakiak eta kalkulua:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| A.1 | Zenbaki naturalak, zenbaki dezimalak eta zatikiak izendatzailearekin –10era arte– irakurtzea, irudikatzea (zenbakizko zuzena eta manipulatzeko materialak barne), alderatzea, konposatzea, deskonposatzea eta berriz konposatzea. | Zenbaki naturalak, osoak, dezimalak eta zatikizko zenbakiak dituzten kantitateak irakurtzea eta irudikatzea (zenbakizko zuzena eta manipulatzeko materialak barne). Zifren balio posizionala. |

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| A.2 | Zenbaki naturalak batu, kendu, biderkatu eta zatitzea, testuinguruan kokatutako egoeretan: propietateak eta ebazteko estrategiak eta tresnak. | Zenbaki naturalak, dezimalak eta zatikiak dituzten eragiketa aritmetikoak ebazteko estrategiak (buruz, idatziz edo kalkulagailuarekin): propietateak eta testuinguruan kokatutako egoeretarako erabilgarritasuna. |
| A.3 | Zenbaki naturalekin buruz kalkulatzeko estrategiak: unitatearekin biderkatzea eta zatitzea, zeroak atzean dituela, testuinguru errealetan. | Zenbaki naturalekin, zatikiekin, dezimalekin eta portzentaje errazekin buruz kalkulatzeko estrategiak. |
| A.4 | Hamar oinarriko zenbaki sistema: eragiketek sortzen dituzten erlazioak. Zifren balio posizionala. | Karratuak eta kuboak. 10 oinarriko berreturak. |
| A.5 | | Zatigarritasun erlazioak: 2aren, 5aren eta 10aren multiplo eta zatigailuak eta zatigarritasun irizpideak. |
| A.6 | | Zenbaki dezimalen, zatikien eta portzentajeen arteko erlazioa. |
| A.7 | | Egoera proportzional eta ez proportzionalak eguneroko bizitzako problemetan: proportzionaltasunarekin lotutako problemak ebazteko estrategiak. |
| A.8 | | Portzentajeak: eguneroko bizitzako problemak ebazteko eta finantza testuinguru errazetarako baliagarritasuna. |

B. Formak eta neurria:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| B.1 | Bi dimentsioko irudi geometriko sinpleak eguneroko bizitzako objektuetan: elementuak eta haien arteko erlazioak. | Bi eta hiru dimentsioko irudi geometrikoak eguneroko bizitzako objektuetan: elementuak eta haien arteko erlazioak. |
| B.2 | Problema geometrikoak testuinguruan kokatuak. | Problema geometrikoak testuinguruan kokatuak. |
| B.3 | Posizioa planoan eta espazioan: mapak eta planoak. | Lokalizazioa eta lekualdaketak plano eta mapetan, abiapuntu hartuta erreferentzia puntuak (puntu kardinalak barne), helbideak eta distantzien kalkuluak (eskalak). |
| B.4 | Magnitude konbentzionalak (luzera, masa, denbora eta azalera) neurtzeko unitateak eguneroko bizitzako egoeretan. | Magnitude konbentzionalak (luzera, masa, denbora, azalera eta bolumena) neurtzeko unitateak eguneroko bizitzako egoeretan. |
| B.5 | Oinarrizko terminologia eta hiztegi geometrikoa. | Oinarrizko terminologia eta hiztegi geometrikoa. |
| B.6 | Magnitude bereko neurriak alderatzeko eta ordenatzeko estrategiak: unitateen arteko baliokidetasunak eguneroko bizitzako problemetan. | Magnitude bereko neurriak alderatzeko eta ordenatzeko estrategiak: unitateen arteko baliokidetasunak (ohiko multiplo eta azpimultiploak) eguneroko bizitzako problemetan. |
| B.7 | Neurtzeko prozesuak eta instrumentuak (erregelak, zinta metrikoak, balantzak, egutegiak, etab.) testuinguru ezagunetan. Unitateak eta instrumentuak: ezaugarriak eta eginkizuna. | Forma eta neurriak adierazteko euskarri fisiko eta birtualak. |
| B.8 | Neurketa problema errazak ebaztea, eguneroko bizitzako testuinguruetan. | Neurketa problema ebaztea eguneroko bizitzako testuinguruetan: instrumentuak, estrategiak, formulak eta neurketa unitateak. |

C. Grafikoak eta estatistika:

| | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK I | HASIERAKO IRAKASKUNTZAK II |
|---|---|---|
| C.1 | Eguneroko bizitzako barra-grafikoak, taulak eta piktograma estatistikoak: irakurtzea eta interpretatzea. | Grafiko estatistiko errazak (barra-diagrama, sektore-diagrama, histograma, etab.). |
| C.2 | | Datuen multzoak eta grafiko estatistikoak eguneroko bizitzan: deskribatzea, interpretatzea eta modu kritikoan aztertzea. |
| C.3 | Datuak adierazteko manipulazio baliabideak: ezaugarriak eta baliagarritasunak. | Datuak adierazteko baliabide analogiko eta digitalak: ezaugarriak eta baliagarritasunak. |
| C.4 | Datuak eta informazioa erraz adierazteko oinarrizko hiztegi eta terminologia, grafikoak eta estatistikak baliatuz. | Datuak eta informazioa adierazteko oinarrizko hiztegi eta terminologia, grafikoak eta estatistikak baliatuz. |
| C.5 | Datu kualitatibo edo kuantitatibo diskretuak biltzeko, sailkatzeko eta antolatzeko estrategia errazak. | Datu kualitatibo edo kuantitatiboak biltzeko, sailkatzeko eta antolatzeko estrategia errazak. |
| C.6 | Ziurgabetasuna eguneroko bizitzako egoera errazetan eta esperimentuak egiterakoan. | Ziurgabetasuna eguneroko bizitzako egoeretan eta esperimentuak egiterakoan. |
| C.7 | Gertaera segurua, gertaera posiblea eta ezinezko gertaera. | Zoria eguneroko bizitzako egoeretan: kuantifikazioa eta zenbatespena. |

# III. ERANSKINA.–HELDUENTZAKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ESPARRUEN CURRICULUMA

## *KOMUNIKAZIO ESPARRUA*

Komunikatzerakoan hizkuntza erabiltzen dugu erlazionatzeko, informazioa trukatzeko, errealitatea adierazi, interpretatu eta ulertzeko, ezagutza eraiki eta eskualdatzeko, eta baita pentsamendua, emozioak eta portaera antolatu eta autorregulatzeko. Komunikazioari esker ezartzen ditugu loturak eta erlazioak gainerakoekin eta ingurunearekin, eta horrek beste kultura batzuetara hurbiltzen eta elkarrekin bizitzeko gaitasuna garatzen laguntzen digu, berdintasuna eta errespetua oinarri hartuta, eta gatazkak elkarrizketarekin eta modu baketsuan ebazteko ere balio du.

Helduentzako Bigarren Hezkuntzako komunikazio esparruak XXI. mendeko gizartearen erronkei erantzuteko behar diren komunikazio tresnak eskuratzen laguntzen du. Izan ere, gizarte horrek eskatzen ditu pertsona kritikoak eta ongi informatuak, hitzen erabilera eraginkor eta etikoa egiteko gai direnak; desberdintasunak errespetuz hartzen dituztenak; informazioa ezagutza bihurtzeko gai direnak eta beren kabuz ikasteko, informatzeko, lankidetzan aritzeko eta taldean lan egiteko gaitasuna dutenak; sortzaileak eta ekintzaileak; eta garapen jasangarriarekin, giza eskubideen defentsarekin eta berdintasunezko elkarbizitza inklusibo, baketsu eta demokratikoarekin konprometituak. Komunikazioak berekin dakar konbentzio sozialen, balio eta alderdi kulturalen eta hizkuntzak testuinguruaren eta komunikazio asmoaren arabera duen moldakortasunaren kontzientzia hartzea.

Esparru honen helburua da ikasleek gaztelania uler eta hartan hitz egin dezaten eta, D ereduaren kasuan, euskaraz, eta atzerriko hizkuntzan egoki komunikatzen ikas dezaten, eta, A ereduaren kasuan, euskaraz; hala lortuko dute norberaren hizkuntza errepertorioa zabaltzea, norberaren esperientziei onura aterata komunikazio trebetasunak hobetzeko. Horretarako, planteamendu eleaniztuna hartuko da abiapuntu, eta ikasleen errepertorioak osatzen dituzten hizkuntza kontuan hartuko dira, hartara ikasleei beren komunikazioa hobetzeko aukera emanda, bai dagoeneko menderatzen dituzten hizkuntzekin, bai ikasten ari diren horiekin. Era berean, leku garrantzitsua dute irakurtzeko ohitura sustatzeak, kultura aniztasuna onartzeak eta horretara egokitzeak, bai eta kulturen arteko elkarrizketarekiko errespetuak eta jakin-minak ere.

Esparru honek, gainera, informazio inguruneetan hobeki moldatzeko aukera ematen die ikasleei, ezagutza berriak eskuratzeko bitarteko gisa, informazioaren bilaketa eta hautaketarako oinarrizko trebetasunekin lotutako zenbait alderdi biltzen baititu. Horrek esan nahi du, gainera, manipulazio eta desinformazio arriskuei aurre egiteko behar diren tresnak eskuratu behar direla, eta informazioa eta komunikazioa ikuspegi kritikoz eta norberaren beharretara egokituta landu behar direla. Alde horretatik, tresna digitalek ahalmen handia dute, ongi aprobetxatu litekeena esparru honen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa sendotzeko. Horregatik, pentsamendu kritikoaren garapena, alfabetatze mediatiko eta informazionala, eta teknologiaren erabilera egoki, seguru, etiko eta arduratsua ikaskuntzako elementu hagitz garrantzitsuak dira.

Komunikazio esparruko konpetentzia espezifikoek aurrera eramanen dituzte ikasleek hezkuntza formal, ez-formal eta informalaren bidez eskuratutako ezagutza, trebetasun eta jarrerak, eta horiek izanen dira, hain zuzen, etapa berri honetarako abiapuntua, zeinean kontuan hartu beharko baitira bai ikasleen ezaugarri espezifikoak, bai haien errepertorioak eta esperientziak, haien gizarteratze soziala eta profesionala bermatzeko.

Ebaluazio irizpideen bidez zehazten ahal da ikasleek konpetentzia espezifikoak zer mailatan eskuratu dituzten, eta, beraz, haiei lotuta aurkezten dira. Konpetentziei dagokienez, irizpideek adierazten dute ikasleek zer prozesu edo gaitasun eskuratu behar duten eta zein diren prozesu edo gaitasun hori aplikatu eta erabiltzeko testuingurua edo modua. Ebaluazio irizpideen mailakatzeak kontuan hartu beharko ditu beti ikasleen esperientziak, inguruabarrak eta ezaugarri espezifikoak.

Bestalde, oinarrizko jakintzek esparru honetako konpetentzia espezifikoak eskuratzeko beharrezkoak diren ezagutzak (jakitea), trebetasunak (egiten jakitea) eta jarrerak (izaten jakitea) bateratzen dituzte. Bi bloketan egituratzen dira, esparrua osatzen duten ikasgaiekin bat datozenak. Alde batetik, «Gaztela-

niazko komunikazioa» blokeak hizkuntza horretan eraginkortasunez eta zuzentasunez komunikatzeko gaitasunarekin lotutako jakintzak biltzen ditu, bai eta literatura hezkuntzarako eta irakurtzeko ohitura garatu eta sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza, trebetasun eta jarrerak ere. Horrez gain, bloke horretan biltzen dira hizkuntzaren inguruko hausnarketari buruzko jakintzak, hura baita komunikazio trebetasunak eta alfabetatze informazionala hobetzeko bitartekoa. Bestalde «Atzerriko hizkuntzako komunikazioa» blokean multzokatzen dira atzerriko hizkuntzan ulermen, ekoizpen eta interakzio egokiak lortzeko jakintzak. Bloke horretan biltzen dira eleaniztasunarekin eta kulturartekotasunarekin lotutako alderdiak ere, haiek baitira atzerriko hizkuntza eta kultura ikasteko baliabideak, abiapuntua izanik ikasle bakoitzaren ezagutzak, esperientziak eta errepertorioak. Hizkuntza-ereduaren arabera, hirugarren bloke bat gehituko da: «Euskarazko komunikazioa (D eredua)» edo «Euskarazko komunikazioa (A eredua)». «Euskarazko komunikazioa (D eredua)» blokeak hizkuntza horretan eraginkortasunez eta zuzentasunez komunikatzeko gaitasunarekin lotutako jakintzak biltzen ditu, bai eta informazioa modu kritikoan eta jabetza intelektuala errespetatuz eskuratzeko beharrezkoak diren jakintzak eta ikasleengan irakurtzeko ohitura garatu eta sustatzea ere. Horrez gain, bloke horretan biltzen dira hizkuntzaren inguruko hausnarketari buruzko jakintzak, hura baita komunikazio trebetasunak eta alfabetatze informazionala hobetzeko bitartekoa. Bestalde, «Euskarazko komunikazioa (A eredua)» blokean multzokatzen dira atzerriko euskaraz ulermen, ekoizpen eta interakzio egokiak lortzeko jakintzak. Euskal hizkuntza eta literaturarekin lotutako alderdiak ere sartuko dira bloke horretan.

Curriculumeko elementuen ikuspegia, mailakatzea eta definizioa planteatzeko abiapuntu gisa, ikaskuntza prozesu dinamiko, jarraitu, malgu eta irekitzat hartzen da, ikasle helduen inguruabarrekin, premiekin eta interesekin bat etorri behar duena. Espero da ikasleak gai izanen direla oinarrizko jakintza guztiak abian jartzeko, esparruei dagozkien komunikazio egoeretan (esparru pertsonala, soziala, prestakuntzakoa eta profesionala) hainbat testuingurutatik abiatuta. Testuinguru horien gaiak izanen dira egunerokoak, ikaslearentzat garrantzia dutenak edo interes publikokoak, eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta XXI. mendeko erronka eta desafioekin lotutako hainbat alderdi jasoko dituzte. Curriculum honen izaera konpetentzialak irakasleak gonbidatzen ditu diziplinarteko zereginak sortzera, testuinguruan kokatuak, esanguratsuak eta garrantzitsuak, eta ikaskuntza egoerak garatzera, non helduak gizarte eragile autonomo eta beren ikaskuntza prozesuaren arduradun gisa hartuko diren. Hortaz, lankidetzan aritzeko aukera ematen dieten eta lankidetza horri esker emaitza errealak eskainiko dituzten zereginetan parte hartuko dute. Horrek berekin dakar ikasleen errepertorioak, interesak eta premiak aintzat hartzea, baita beren inguruabar bereziak ere, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren oinarriak ezartzeko.

***1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak.***

*1. konpetentzia espezifikoa.*

Gaztelaniaz eta, D ereduaren kasuan, euskaraz modu kooperatiboan eta errespetuz komunikatzea, diskurtso generoen berezko konbentzioak kontuan hartuta eta hainbat esparru eta testuingurutara egokituta, ezagutza eraikitzeko eta premia zehatzei erantzuteko.

1. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Konpetentzia espezifiko honek barne ditu ulermena, ekoizpena eta interakzioa, bai ahozkoa zein idatzizkoa eta multimodala ere. Konpetentzia hori eskuratzeko, esparru barruko trebetasun zehatzak beharko dira, hainbat egoera, testuinguru eta beharretara lotuak eta horien arabera definituak, arreta berezia jarrita komunikabide sozialetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan eta administrazio agirietan. Konpetentzia hau garatzean, helduek estrategiak lortuko dituzte esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruan garatzeko, ezagutza eraikitzeko eta bizitza sozial, kultural, politiko eta ekonomikoan parte hartzeko, hori guztia errespetuz, eraginkortasunez, behar bezala informatuta eta gaitasun kritikoarekin komunikatu eta erlazionatzen diren pertsona gisa.

Ahozko ulermenarekin lotutako trebetasun espezifikoen barne dira edukia aurreikustea, helburuaren arabera garrantzitsua den informazioa gogoratzea, zentzu orokorra eta diskurtsoaren zatien arteko lotura ulertzea, gertaerak eta iritziak modu kritiko eta arrazoituan desberdintzea eta testuaren fidagarritasuna ebaluatzea, bai eta testuaren forma eta edukia baloratzea ere. Ahozko ekoizpenak, bere

aldetik, eraginkortasunez, arin, argi eta ahoskera zuzenarekin adierazteko estrategiak eskatzen ditu; zuzentasuna, ordena eta koherentzia; eta baita tonu, erregistro eta hitzik gabeko hizkuntza egokiak ere. Era berean, ahozko erabilera formal eta informal, espontaneo nahiz prestatuen inguruan hausnartzera gonbidatzen ditu ikasleak. Ahozko interakziorako entzunaldi aktiboko estrategiak behar dira, eta baita hitz egiteko txandak kudeatzekoak, elkarrizketako kortesia eta lankidetzakoak, eta baita inferentziak eta ondorioak ateratzekoak ere. Konpetentzia hau garatzean, helduek hizkuntza erabiltzen ikasiko dute, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak ulertu eta ahoz adierazteko, lotura pertsonalak ezartzeko eta askotariko ahozko komunikazio egoeratan behar bezala parte hartzeko, autonomiaz eta jarrera begirunetsu, kooperatibo eta enpatikoarekin.

Irakurtzeko konpetentziaren garapenak irakurle autonomo eta kritikoak sortzearekin du zerikusia. Testu bat ulertzeak esan nahi du haren esanahi orokorra, ideia nagusiak eta irakurketa asmoaren araberako informazio garrantzitsua aipagarria atzematen direla, zenbait hitzez hitzeko esanahietatik haratago joaten dela, informazio esplizitua aurkitu, ulertu eta integratzen dela, hipotesiak egiten direla testuen azpiko asmo komunikatiboaz, eta gogoeta egiten dela formaren eta edukiaren inguruan. Azkenik, idazten jakiteak esan nahi du, gaur, zenbait euskarri eta formatutan idazten jakitea, horietako asko hipertestualak eta multimodalak, eta horretarako, beharrezkoa da ezagutu eta bereganatzea erabilera esparruen berezko praktika komunikatibo idatziak gauzatzeko moldeak: diskurtso generoak. Idazketa lau fase dituen prozesu batean garatzen da: plangintza, idazketa, berrikusketa (autonomoa izan daiteke edo beste ikasle batzuekin batera egiten dena, edo irakasleek gidatutakoa) eta edizioa. Prozesu horren helburua da testuak autonomiaz sortzea, koherentzia, kohesio eta egokitasun irizpideak errespetatuz, gramatika eta ortografia zuzenekin eta aberastasun lexikoarekin, eta diskurtso generoei dagozkien konbentzioen arabera.

Bestalde, komunikatzeko konpetentzia garatzeak berekin dakar ere hizkuntzaren inguruko hausnarketa gidatua, testuinguru errealetan, hizkuntzari buruzko ikaskuntzak eta hizkuntzari aplikatzen zaizkion arauak baliatuz, eta komunikazioa eraginkorrago egiten duen oinarrizko terminologia egokiarekin. Komunikatzeko konpetentzia garatzeak esan nahi du, halaber, hizkuntza aniztasun ezagutu eta errespetatzea, eta kultura aberastasun gisa ulertzea, alde batera utzita estereotipoak eta hizkuntza aurreiritziak. Bizikidetza demokratikorako eta gatazken ebazpen baketsurako ere balio du, desberdinkeriak, indarkeria modu guztiak edo diskriminazioa antzeman eta baztertzen laguntzen duen hizkuntzaren erabilera etikoa ahalbidetzen baitu.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, ELK3, STEM4, KD1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK3, EK1, KKAK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 1.1. Esparru hurbiletako ahozko eta idatzizko testu eta testu multimodal errazetako zentzu orokorra, ideia nagusiak eta mezu esplizitu zein inplizituak ulertu eta interpretatzea, testuen fidagarritasuna eta hizkuntzaren erabilera etikoa aintzat hartuz, eta oinarrizko alderdi formalak aztertuz.<br>1.2. Nolabaiteko plangintza izan duten ahozko azalpenak egitea, interes pertsonal edo profesionaleko gaien inguruan, diskurtso genero nagusiekin eta testuinguruarekin bat datozen oinarrizko konbentzioetara moldatuz, gero eta zuzenago, arinago eta koherenteago hitz eginez, eta erregistro eta hitzik gabeko jarrera egokiekin.<br>1.3. Idatzizko testu eta testu multimodal errazak sortzea, oinarrizko koherentzia, kohesio eta egokitasunarekin, aberastasun lexikoarekin eta gramatika eta ortografia arau nagusiak errespetatuz, horretarako informazioa bilatzeko, antolatzeko, testuan kokatzeko eta berrikusteko oinarrizko estrategiak baliatuz.<br>1.4. Ahozko interakzio formal eta informaletan modu aktibo eta egokian parte hartzea, horretarako entzunaldi aktiboko, elkarrizketetan lankidetzan aritzeko eta hizkuntzaren kortesiazko oinarrizko estrategiak aplikatuz; eta ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adieraztea, hizkuntza aniztasuna errespetatuz eta hizkera ez diskriminatzailea erabiliz. | 1.1. Zenbait esparrutako ahozko eta idatzizko testu eta testu multimodaletako zentzu orokorra, ideia nagusiak eta mezu esplizitu zein inplizituak ulertu eta interpretatzea, testuen fidagarritasuna eta hizkuntzaren erabilera etikoa aintzat hartuz, eta alderdi formalak aztertuz.<br>1.2. Aldez aurretik antolatu diren ahozko azalpenak egitea, interes pertsonala, profesionala edo prestakuntza interesa duten gaien inguruan, diskurtso generoekin eta testuinguruarekin bat datozen konbentzioetara moldatuz, zuzen, arin eta koherentziaz hitz eginez, eta erregistro eta hitzik gabeko jarrera egokiekin.<br>1.3. Idatzizko testu eta testu multimodalak sortzea, koherentzia, kohesio eta egokitasunarekin, aberastasun lexikoarekin eta gramatika eta ortografia arauak errespetatuz, horretarako informazioa bilatzeko, antolatzeko, testuan kokatzeko eta berrikusteko estrategiak baliatuz.<br>1.4. Ahozko interakzio espontaneo eta arautuetan modu aktibo eta egokian parte hartzea, horretarako entzunaldi aktiboko, elkarrizketetan lankidetzan aritzeko eta hizkuntzaren kortesiazko estrategiak aplikatuz eta inferentziak eta ondorioak ateraz; eta ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adieraztea, hizkuntza aniztasuna errespetatuz eta hizkera ez diskriminatzailea erabiliz. |

*2. konpetentzia espezifikoa.*

Ikasleen interesekoak diren askotariko literatura obrak irakurri eta interpretatzea, irakurketa esperientziak partekatuz eta funtsezko konbentzioak identifikatuz, irakurle identitate propio bat eraikitzeko, literatura adierazpen artistikoa dela ulertzeko eta jarduera horren alderdi sozialaz gozatzeko.

2. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Konpetentzia hau garatzeko, irakurtzeko autonomia eta irakurle identitatea taxutzeko bidean aurrera egin behar da, bizitza osoan zehar. Horretarako, aldizka eta etengabe eman behar zaio denbora irakurketari, bai banaka, bai partekatuta. Horrez gain, irakurtzeko ohitura sendotzeko eta irakurleak plazer, ezagutza eta inspirazio iturri diren testuekin afektiboki lotzeko estrategia egokiak erabili behar dira, adin handiagoko pertsonei beren konpetentziak areagotzeko eta eguneratzeko aukera ere bermatuz.

Funtsezkoa da testuen corpus egoki eta askotarikoa eratzea, kalitatezko lanez osatua, helduen banakako interes eta beharrei –pertsonalak eta profesionalak– erantzunen diena eta, pixkanaka, haien berehalako esperientziatik aldenduko dena, egungo literatura forma inprimatu eta digitalekin eta sortu berri diren kultura jardunekin kontaktua izanen duena, idazle gizon eta emakumeen presentzia orekatuz, eta bakearen kulturari, genero berdintasunari, aniztasunarekiko errespetuari, garapen jasangarriari eta ohitura osasuntsuei buruzko hausnarketarantz hurbiltzen lagunduko duena. Testu horiek, halaber, helburu artistiko eta sortzailea duten testuak sortzeko eredu izanen dira.

Literatura hezkuntza ulertzen da literaturarako hurbilketa gisa, izan ahozkoak nahiz idatzizkoak. Ezinbestekoa da ikasleak literatura eta kultura ondarera hurbilduko dituzten esperientzia atseginak ahalbidetzea, bai eta irakurtzeko, interpretatzeko, aztertzeko eta baloratzeko abileziak garatzen laguntzea ere, obraren zentzua obrako testu elementuekin eta testuinguru elementuekin erlazionatzeko, literatura generoa identifikatzeko, obren berezko lengoaiak eta elementu teknikoak ezagutzeko, eta irakurritako obraren eta beste testu eta adierazpen artistiko eta kultural batzuen artean loturak ezartzeko, hartara kultura bizitzan parte hartzeko gaitasuna garatzen lagunduz. Gomendagarria da, halaber, erreferentzia partekatuak dituzten irakurleen komunitate bat eratzeko lan egitea, gizarte bazterketaren arriskuak zuzentzen laguntzeko; ikasleei interesatzen zaizkien testuak aukeratzen, bereganatzen eta irakurketa esperientzia pertsonala partekatzen lagunduko dieten estrategiak eskaintzeko; eta komunikazio esparruan eta pertsonen arteko harremanetan gaitasunak garatzeko. Hori dela eta, konpetentzia hori eskuratzeko funtsezko inguruneak liburutegiak izanen dira, birtualak barne.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK1, HKK2, HKK4, KPSII1, KPSII3, KPSII5, KKAK1, KKAK2, KKAK3, KKAK4.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 2.1. Norberaren gustu, behar eta interesetara moldatzen diren idazlanak irakurri eta interpretatzea, irakurketa ibilbidearen aurrerapena jasota utziz eta irakurketak hautatzeko irizpideak azalduz.<br>2.2. Hainbat euskarritako literatura irakurketaren esperientzia partekatzea, irakurritako testua beste arte adierazpen batzuekin lotuta, gaien, egituren, hizkuntzaren eta balio etiko eta estetikoen arabera, eta ikastetxeko zein gizarteko irakurleen komunitateetan parte hartzea. | 2.1. Norberaren interesekin bat datozen literatura obrak irakurri eta interpretatzea, pixkanaka, haien berehalako esperientziatik aldenduko direnak, irakurketa ibilbidearen aurrerapena jasota utziz eta irakurketak hautatzeko irizpideak azalduz.<br>2.2. Hainbat euskarritako literatura irakurketaren esperientzia partekatzea, irakurritako testuen funtsezko konbentzioak identifikatu eta testuok beste adierazpen artistiko eta kultural batzuekin lotuta, gaien, egituren, hizkuntzaren eta balio etiko eta estetikoen arabera, eta irakurleen komunitateetan parte hartzea.<br>2.3. Asmo artistiko edo sortzailea duten testuak banaka edo taldeka idaztea, emandako ereduak modu pertsonalean birsortuz. |

*3. konpetentzia espezifikoa.*

Atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz komunikatzea, gero eta autonomia handiagoarekin, baliabide analogikoak eta digitalak erabilita eta ulermenerako, ekoizpenerako eta interakziorako oinarrizko estrategiak erabilita, behar pertsonal eta profesional zehatzei sormenez eta eraginkortasunez erantzuteko.

3. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz komunikatzeak esan nahi du ikasleentzat garrantzi pertsonala, prestakuntzakoa edo profesionala duten ohiko eta eguneroko gaiei buruzko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak praktikan jartzea, ahozko zein idatzizko ulermena, ekoizpena eta elkarrekintza lortzeko, eta multimodala ere bai. Maila honetan, ulertzeak esan nahi du testuak ulertu eta interpretatu behar direla, eta haien esanahi orokorra atera behar dela, komunikazio premia zehatzak asetzeko, pertsonalak zein profesionalak. Ikasleentzat erabilgarrienak diren ulermen estrategien artean, funtsezko hizkuntza elementuen inferentzia eta identifikazioa daude. Ekoizpenak, berriz, hainbat formatu eta euskarritan testuak idaztea eta azaltzea ekarri behar du. Helduentzako hezkuntzan, deskribapen edo gertaera txiki bat azaltzea izan daiteke, ikasleei interesatzen zaien gai bati buruzko aurkezpen formal bat, edo ikasleen prestakuntza premia edo premia profesionaletarako baliagarriak izanen diren testuak idaztea, tresna digital eta analogikoen bidez. Formatu multimodalean, ekoizpenak berekin dakar zenbait baliabide (idazketa, irudia, grafikoak, taulak, diagramak, soinua, keinuak, etab.) batera erabiltzea esanahia sortzeko, eta horietako egokiena aukeratu eta aplikatzea kasuan kasuko zereginaren eta beharren arabera. Azkenik, interakzioak bi parte hartzaile edo gehiago behar ditu diskurtso bat eraikitzeko. Interakzioan erabiltzen dira hizkuntza kortesia eta etiketa digitala, komunikazioaren hitzezko eta hitzik gabeko elementuak, bai eta erregistro eta genero dialogikoetara –ahozkoak, idatziak eta multimodalak– egokitzea ere, ingurune sinkrono edo asinkronoetan.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK1, HKK2, HKK5, ELK1, ELK2, STEM1, KD3, KPSII5, HK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 3.1. Esanahi orokorra eta informazio espezifikoa eta esplizitua interpretatzea atzerriko hizkuntzako eta, A ereduaren kasuan, euskarazko erregistro estandarrean argi adierazita dauden ahozko testuetan, testu idatzietan eta testu multimodaletan, ohiko eta eguneroko gaiak oinarri hartuta, ikasleentzat garrantzi pertsonala, profesionala edo prestakuntzarako garrantzia dutenak.<br>3.2. Atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz, ahozko testuak, testu idatziak eta multimodalak sortzea, laburrak, errazak eta ulergarriak direnak eta koherentzia, kohesio eta komunikazio egoerarekiko egokitasun onargarria dutenak, ezarritako jarraibideei jarraituz eta tresna eta baliabide analogikoak eta digitalak erabiliz.<br>3.3. Atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz, egoera eta ekintza gidatu sinkrono eta asinkrono labur eta errazetan parte hartzea, eguneroko gaiei buruz eta ikasleentzat garrantzi pertsonala, profesionala edo prestakuntzarako garrantzia duten gaiei buruz, baliabide egokiak erabiliz, hala nola errepikapena, erritmo geldia, argibideak eskatzea edo hitzik gabeko hizkuntza, betiere enpatiarekin eta hizkuntza kortesiarekiko eta etiketa digitalarekiko errespetua erakutsiz, bai eta solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioekiko ere.<br>3.4. Lagunduta, oinarrizko estrategiak erabiltzea komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartzeko eta emateko, eta argibideak eta azalpenak eskatu eta formulatzeko, atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz. | 3.1. Atzerriko hizkuntzako eta, A ereduaren kasuan, euskarazko erregistro estandarrean argi adierazita dauden ahozko testuen, testu idatzien eta testu multimodalen esanahi orokorra eta informazio espezifikoa eta esplizitua interpretatzea eta aztertzea, ohiko eta eguneroko gaiak oinarri hartuta, ikasleentzat garrantzi pertsonala, profesionala edo prestakuntzarako garrantzia dutenak.<br>3.2. Atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz, ahozko testuak, testu idatziak eta multimodalak sortzea, laburrak, errazak, egituratuak, ulergarriak eta komunikazio egoerarekiko egokiak direnak, ezarritako jarraibideei jarraituz eta tresna eta baliabide analogikoak eta digitalak erabiliz.<br>3.3. Atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz, egoera eta ekintza gidatu sinkrono eta asinkrono labur eta errazetan parte hartzea, eguneroko gaiei buruz eta ikasleentzat garrantzi pertsonala, profesionala edo prestakuntzarako garrantzia duten gaiei buruz, enpatiarekin eta hizkuntza kortesiarekiko eta etiketa digitalarekiko errespetua erakutsiz, bai eta solaskideen behar, ideia, kezka, ekimen eta motibazioekikoa ere.<br>3.4. Lagunduta, estrategia egokiak erabiltzea komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartzeko eta emateko, eta argibideak eta azalpenak eskatu eta formulatzeko, atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz. |

*4. konpetentzia espezifikoa.*

Kritikoki baloratzea eta hizkuntza eta kultura aniztasunera egokitzea, errepertorio pertsonalak erabiliz eta norberaren estrategien eta ezagutzen kontzientzia hartuta, kulturarteko egoerak enpatiaz eta errespetuz kudeatzeko.

4. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Eleaniztasunak eta kulturartekotasunak hizkuntza eta kultura aniztasuna esperimentatzea dakarte, baita hura aztertu eta hartaz baliatzea ere. Eleaniztasunak aukera ematen du norberaren hizkuntza

errepertorioak erabiltzeko, ikasleek, beren esperientzietatik abiatuta, hizkuntza berrien ikaskuntza zabaldu eta hobetu ahal izan dezaten, errepertorio hori garatzeaz eta aberasteaz batera. Bestalde, kulturartekotasunak arreta berezia merezi du ikasleen esperientziaren parte izan dadin eta aniztasunari buruz duten pertzepzioa estereotipoek desitxuratu ez dezaten eta edozein diskriminazio motaren jatorria izan ez dadin. Balorazio kritikoari eta aniztasunari egokitzeari esker, ikasleek enpatiaz eta errespetuz jokatzen ahalko dute esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruko egoeretan.

Hizkuntza eta kultura aniztasunaren kontzientziak hainbat hizkuntza eta kultura erlazionatzeko aukera ematen die ikasleei. Gainera, beste kultura batzuetako pertsonekin harremanak izateko estrategia ugari identifikatzeko eta erabiltzeko gaitasuna garatzen laguntzen du. Konpetentzia espezifiko honek aukera ematen du beste esperientzia, ideia, gizarte eta kultura batzuetara irekitzeko, desberdinarekiko interesarekin; norberaren ikuspegia eta balio kulturalen sistema bera erlatibizatzeko; eta edozein diskriminazio motaren edo estereotipoen errefortzuaren gainean oinarritutako jarreretatik aldentzeko eta horiek saihesteko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK5, ELK2, ELK3, KPSII1, KPSII3, HK3, KKAK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 4.1. Atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz komunikatzeko gaitasuna hobetzea, norberaren hizkuntza eta kultura errepertorioko ezagutzak eta estrategiak erabilita, beste parte hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzarekin.<br>4.2. Hizkuntza eta kultura aniztasuna identifikatzea eta onartzea, aberastasun pertsonalaren eta profesionalaren iturri gisa, eta errespetua, jasangarritasuna eta demokrazia sustatzen dituzten kultura eta hizkuntza elementuak identifikatzea. | 4.1. Atzerriko hizkuntzan eta, A ereduaren kasuan, euskaraz komunikatzeko gaitasuna hobetzea, norberaren hizkuntza eta kultura errepertorioko ezagutzak eta estrategiak erabilita, beste parte hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzarekin.<br>4.2. Hizkuntza eta kultura aniztasuna onartzea eta aberastasun pertsonalaren eta profesionalaren iturri gisa baloratzea, eta errespetua, jasangarritasuna eta demokrazia sustatzen dituzten kultura eta hizkuntza elementuak identifikatzea. |

*5. konpetentzia espezifikoa.*

Informazioa bilatzea, hautatzea eta alderatzea, hainbat iturritatik abiatuta, haren fidagarritasuna eta egokitasuna beharren arabera ebaluatuta eta manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestuta, ezagutza gisa integratzeko eta sormenez komunikatzeko, jabetza intelektuala errespetatuz.

5. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Informaziorako sarbidea izateak ez du bermatzen ezagutza eraikitzea. XXI. mendeko gizartean moldatzeko, ezinbestekoa da ikasleek informazioa bilatzearekin, hautatzearekin, kudeatzearekin, tratatzearekin, ebaluatzearekin, alderatzearekin eta ezagutza bihurtzearekin lotutako abileziak eta trebetasunak eskuratzea, informazioa noiz behar den jakinda eta ikuspuntu kritikoa hartuta, manipulazioaren eta desinformazioaren balizko arriskuak saihesteko eta informazioaren fidagarritasuna, segurtasuna eta egokitasuna ebaluatzeko, eta gertaerak eta iritziak desberdintzea. Era berean, pertsona helduek informazioa modu pertsonal, sortzaile eta testuinguruarekiko egokian komunikatzeko gaitasuna garatu behar dute, konbentzioak errespetatuz eta jabetza intelektualarekiko jarrera etiko eta arduratsua hartuz, eta ikaskuntza berria zabaltzean jatorrizko iturriak aipatuz.

Konpetentzia hori eskuratzeko, funtsezko inguruneak izanen dira komunikabide sozialak eta informazioaren teknologiak, bai eta liburutegiak ere, birtualak barne, ikasteko sormen gune gisa ulertuta.

Hortaz, prozesu bat proposatzen da, non ikasleek, banaka edo lankidetzan, informazioa bilatzeko autonomiarantz aurrera eginen duten, askotariko iturriak kontsultatuz, hainbat formatu eta euskarritan, eta beren esperientziatik eta interes pertsonal, profesional edo prestakuntzako interesetik hurbil dauden askotariko gaiak oinarri hartuta, ondoren informazio hori hainbat helburutarako erabiltzeko. Horrela, helduek beren ezagutzak, abileziak eta trebetasunak etengabe zabaltzea eta berritzea errazten da, haien kualifikazioa eta hezkuntza sistemako irakaskuntzetara sartzeko aukerak hobetuz.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HK3, KD1, KD4, KPSII4, KPSII5, EK3.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 5.1. Hainbat iturritako informazioa aurkitzea eta hautatzea, digitalak barne, eta, gidatuta, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzea, premien arabera, eta manipulazio eta desinformazio arriskuak ezagutzea.<br>5.2. Ikasleentzat garrantzi pertsonala, prestakuntzakoa edo profesionala duen gai bati buruzko ikerketa errazak egitea, banaka edo taldeka, jabetza intelektualaren oinarrizko printzipioak errespetatuz. | 5.1. Iturri desberdinetatik (digitalak barne) informazioa aurkitzea eta hautatzea, premien arabera fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz eta manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestuz.<br>5.2. Ikasleentzat garrantzi pertsonala, prestakuntzakoa edo profesionala duen gai bati buruzko ikerketa errazak egitea, banaka edo taldeka, emaitzak modu sortzailean komunikatuz eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz. |

***2.–Oinarrizko jakintzak.***

A. Komunikazioa gaztelaniaz:

I. MAILA

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| | A.1 Komunikazioa | |
| A.1.1 | Esparru hurbiletako ahozko testu errazak, idatzizkoak eta multimodalak ekoitzi, ulertu eta kritikoki aztertzeko oinarrizko estrategiak, arreta paratuz alderdi hauetan:<br>–Testuingurua: egoera, parte hartzaileak, komunikazio xedea, kanala, erregistroa eta komunikazioaren hitzik gabeko elementuak.<br>–Koherentzia, kohesio eta egokitasunerako oinarrizko mekanismoak.<br>–Diskurtso generoetako hastapenak:<br>–Esparru pertsonalaren berezko diskurtso generoak: elkarrizketa.<br>–Esparru sozialaren berezko diskurtso generoak. Gizarte sareak eta hedabideak. Etiketa digitala eta desinformazio, manipulazio eta pribatutasuna urratzeko arriskuak. Irudia eta osagai paratestualak testu ikoniko-hitzezkoetan eta multimodaletan. Prestakuntzaren esparruko berezko diskurtso generoak: laburpena, eskema, ahozko azalpena, iruzkina.<br>–Prestakuntzaren esparruko diskurtso generoak: laburpena, eskema, ahozko azalpena, iruzkina.<br>–Esparru profesionalaren berezko diskurtso generoak: curriculum vitae-a, motibazio gutuna eta lan elkarrizketa.<br>–Prozesuak:<br>–Ahozko eta idatzizko interakzio informala eta formala. Elkarrizketarako lankidetza, hizkuntza kortesia eta etiketa digitala. Inferentziak eta hitz egiteko txandak kudeatzea. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarrizketa bidez konpontzea. Oinarrizko diskurtso eta elkarrizketa estrategiak norberaren eta besteen beharrak, bizipenak eta emozioak enpatiaz adierazi eta entzuteko. Ideiak adierazteko, lankidetzako entzunaldi begirunetsurako, konfrontaziorako eta akordiorako oinarrizko estrategiak.<br>–Ahozko ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa. Edukia aurreikustea eta informazio garrantzitsua hautatzea helburuaren arabera. Igorlearen asmoa.<br>–Ahozko ekoizpen formala. Hartzaileetara eta azalpenaren denborara egokitzea. Hitzik gabeko osagaiak. Diskurtsoaren eta hizkuntzaren oinarrizko ezaugarriak ahozkotasun formalean. Ahozko erabilera formalak eta informalak. Ahozko adierazpen arin, argi eta ordenaturako estrategiak.<br>–Irakurriaren ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa. Igorlearen asmoa. Ulermenaren zerbitzura dauden elementu grafikoak eta paratestualak identifikatzea.<br>–Idazmena. Oinarrizko plangintza, idazketa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan.<br>–Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa. Puntuazio zeinu nagusiak, testu idatzia antolatzeko mekanismo gisa. Esanahiarekin duten harremana. Aberastasun lexikoa eta oinarrizko terminologia egokia. Hiztegiak, kontsultarako eskuliburuak eta zuzentzaile ortografikoak euskarri digitalean. | Esparru hurbiletako ahozko testu errazak, idatzizkoak eta multimodalak ekoitzi, ulertu eta kritikoki aztertzeko oinarrizko estrategiak, arreta paratuz alderdi hauetan:<br>–Testuingurua: egoera, parte hartzaileak, komunikazio xedea, kanala, erregistroa eta komunikazioaren hitzik gabeko elementuak.<br>–Koherentzia, kohesio eta egokitasunerako oinarrizko mekanismoak.<br>–Diskurtso generoetako hastapenak:<br>–Esparru pertsonalaren berezko diskurtso generoak: elkarrizketa.<br>–Esparru sozialaren berezko diskurtso generoak. Gizarte sareak eta hedabideak. Etiketa digitala eta desinformazio, manipulazio eta pribatutasuna urratzeko arriskuak. Irudia eta osagai paratestualak testu ikoniko-hitzezkoetan eta multimodaletan. Prestakuntzaren esparruko berezko diskurtso generoak: laburpena, eskema, ahozko azalpena, iruzkina.<br>–Prestakuntzaren esparruko diskurtso generoak: laburpena, eskema, ahozko azalpena, iruzkina.<br>–Esparru profesionalaren berezko diskurtso generoak: curriculum vitae-a, motibazio gutuna eta lan elkarrizketa.<br>–Prozesuak:<br>–Ahozko eta idatzizko interakzio informala eta formala. Elkarrizketarako lankidetza, hizkuntza kortesia eta etiketa digitala. Inferentziak eta hitz egiteko txandak kudeatzea. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarrizketa bidez konpontzea. Oinarrizko diskurtso eta elkarrizketa estrategiak norberaren eta besteen beharrak, bizipenak eta emozioak enpatiaz adierazi eta entzuteko. Ideiak adierazteko, lankidetzako entzunaldi begirunetsurako, konfrontaziorako eta akordiorako oinarrizko estrategiak.<br>–Ahozko ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa. Edukia aurreikustea eta informazio garrantzitsua hautatzea helburuaren arabera. Igorlearen asmoa.<br>–Ahozko ekoizpen formala. Hartzaileetara eta azalpenaren denborara egokitzea. Hitzik gabeko osagaiak. Diskurtsoaren eta hizkuntzaren oinarrizko ezaugarriak ahozkotasun formalean. Ahozko erabilera formalak eta informalak. Ahozko adierazpen arin, argi eta ordenaturako estrategiak.<br>–Irakurriaren ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa. Igorlearen asmoa. Ulermenaren zerbitzura dauden elementu grafikoak eta paratestualak identifikatzea.<br>–Idazmena. Oinarrizko plangintza, idazketa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan.<br>–Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa. Puntuazio zeinu nagusiak, testu idatzia antolatzeko mekanismo gisa. Esanahiarekin duten harremana. Aberastasun lexikoa eta oinarrizko terminologia egokia. Hiztegiak, kontsultarako eskuliburuak eta zuzentzaile ortografikoak euskarri digitalean. |

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.2 Literatura hezkuntza eta irakurtzeko ohitura | | |
| A.2.1 | Ikasleen gustu, interes eta beharretara moldatutako obrak, irakurketa ibilbideetan antolatuta. | Ikasleen gustu, interes eta beharretara moldatutako obrak, irakurketa ibilbideetan antolatuta. |
| A.2.2 | Literatura ondareko obra eta zati erraz eta esanguratsuak lagunduta irakurtzea, gaiaren edo generoaren araberako ibilbide baten barruan. | Literatura ondareko obra eta zati erraz eta esanguratsuak lagunduta irakurtzea, gaiaren edo generoaren araberako ibilbide baten barruan. |
| A.2.3 | Obren interpretazioa modu partekatuan eraikitzeko oinarrizko estrategiak: literaturari buruzko eztabaidak edo elkarrizketak. | Obren interpretazioa modu partekatuan eraikitzeko oinarrizko estrategiak: literaturari buruzko eztabaidak edo elkarrizketak. |
| A.2.4 | Obraren esanahiaren eraikuntza, haren oinarrizko elementu formaletatik eta kontestualetatik abiatuta. Norberaren adierazpenerako baliabideen ondorio nagusiak harreran. | Obraren esanahiaren eraikuntza, haren oinarrizko elementu formaletatik eta kontestualetatik abiatuta. Norberaren adierazpenerako baliabideen ondorio nagusiak harreran. |
| A.2.5 | Norberaren esperientzia, irakurritakoarena eta esperientzia kulturala mobilizatzeko estrategiak, irakurritako lanaren eta aktualitatearen alderdien artean funtsezko loturak ezartzeko, baita beste testu eta beste arte adierazpen batzuen artean ere. | Norberaren esperientzia, irakurritakoarena eta esperientzia kulturala mobilizatzeko estrategiak, irakurritako lanaren eta aktualitatearen alderdien artean funtsezko loturak ezartzeko, baita beste testu eta beste arte adierazpen batzuen artean ere. |
| A.2.6 | Bakarkako irakurketa ibilbideak eraikitzen hastea. Gustuak eta interesak adierazteko estrategiak. | Bakarkako irakurketa ibilbideak eraikitzen hastea. Gustuak eta interesak adierazteko estrategiak. |
| A.3 Hizkuntzari buruzko hausnarketa | | |
| A.3.1 | Hizkuntza biografia eta inguruneko hizkuntza aniztasuna. | Hizkuntza biografia eta inguruneko hizkuntza aniztasuna. |
| A.3.2 | Aniztasun etnokultural eta linguistikoa, hizkuntzen arteko hausnarketaren aberastasun eta tresna moduan. Hurbilketa zeinu hizkuntzetara. | Aniztasun etnokultural eta linguistikoa, hizkuntzen arteko hausnarketaren aberastasun eta tresna moduan. Hurbilketa zeinu hizkuntzetara. |
| A.3.3 | Espainiako hizkuntzak eta gaztelaniaren dialekto aldaerak. Hizkuntzen gaineko aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzeko eta zalantzan jartzeko estrategiak. | Espainiako hizkuntzak eta gaztelaniaren dialekto aldaerak. Hizkuntzen gaineko aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzeko eta zalantzan jartzeko estrategiak. |
| A.3.4 | Hizkuntzaren etika: hizkuntza ez baztertzailea eta desberdintasunekiko begirunetsua. | Hizkuntzaren etika: hizkuntza ez baztertzailea eta desberdintasunekiko begirunetsua. |
| A.3.5 | Hizkuntzara hurbiltzea sistema gisa ikusita, baita haren oinarrizko unitateetara ere, testu errealen ekoizpen eta ulermen testuinguruetan: soinua eta idazteko sistema, hitzak (forma eta esanahia) eta diskurtsoan duten antolaketa (hitzen ordena eta perpaus osagaien arteko lotura). | Hizkuntzara hurbiltzea sistema gisa ikusita, baita haren oinarrizko unitateetara ere, testu errealen ekoizpen eta ulermen testuinguruetan: soinua eta idazteko sistema, hitzak (forma eta esanahia) eta diskurtsoan duten antolaketa (hitzen ordena eta perpaus osagaien arteko lotura). |
| A.3.6 | Hitzak eskuratu eta sortzeko oinarrizko prozedurak. Esanahiaren aldaketak, hitzen arteko harreman semantikoak eta haien balio denotatiboak eta konnotatiboak testuinguruaren eta komunikazio xedearen arabera. | Hitzak eskuratu eta sortzeko oinarrizko prozedurak. Esanahiaren aldaketak, hitzen arteko harreman semantikoak eta haien balio denotatiboak eta konnotatiboak testuinguruaren eta komunikazio xedearen arabera. |
| A.4 Alfabetatze mediatiko eta informazionala | | |
| A.4.1 | Informazio-iturri fidagarriak, egokiak eta kalitatezkoak bilatzeko eta hautatzeko oinarrizko estrategiak. | Informazio-iturri fidagarriak, egokiak eta kalitatezkoak bilatzeko eta hautatzeko oinarrizko estrategiak. |
| A.4.2 | Jabetza intelektualaren oinarrizko alderdiak. | Jabetza intelektualaren oinarrizko alderdiak. |
| A.4.3 | Manipulazioaren eta desinformazioaren arrisku eta ondorio nagusiak. | Manipulazioaren eta desinformazioaren arrisku eta ondorio nagusiak. |
| A.4.4 | Informazioa antolatzeko oinarrizko estrategiak: oharrak, eskemak, mapa kontzeptualak, laburpenak, etab. | Informazioa antolatzeko oinarrizko estrategiak: oharrak, eskemak, mapa kontzeptualak, laburpenak, etab. |
| A.4.5 | Informazioaren teknologiak. Informazioa bilatzeko gailuak, aplikazio informatikoak eta plataforma digitalak. | Informazioaren teknologiak. Informazioa bilatzeko gailuak, aplikazio informatikoak eta plataforma digitalak. |

## II. MAILA

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.1 Komunikazioa | | |
| A.1.1 | Esparru desberdinetako ahozko eta idatzizko testu eta testu multimodal errealak ekoitzi, ulertu eta kritikoki aztertzeko estrategiak, arreta paratuz alderdi hauetan:<br>–Testuingurua: egoera, parte hartzaileak, komunikazio xedea, kanala, erregistroa eta komunikazioaren hitzik gabeko elementuak.<br>–Testu koherentzia, kohesioa eta egokitasuna lortzeko mekanismoak.<br>–Diskurtso generoak:<br>–Esparru pertsonalaren berezko diskurtso generoak: elkarrizketa, arreta berezia jarriz solaskidearen irudia mehatxatzen duten hizketa egintzetan (desadostasuna, kexa, agindua, gaitzespena).<br>–Esparru sozialaren berezko diskurtso generoak. Gizarte sareak eta hedabideak. Etiketa digitala eta desinformazio, manipulazio eta pribatutasuna urratzeko arriskuak. Irudia eta osagai paratestualak testu ikoniko-hitzezkoetan eta multimodaletan.<br>–Prestakuntzaren esparruko berezko diskurtso generoak: laburpena, eskema, ahozko azalpena, iruzkina. | Esparru desberdinetako ahozko eta idatzizko testu eta testu multimodal errealak ekoitzi, ulertu eta kritikoki aztertzeko estrategiak, arreta paratuz alderdi hauetan:<br>–Testuingurua: egoera, parte hartzaileak, komunikazio xedea, kanala, erregistroa eta komunikazioaren hitzik gabeko elementuak.<br>–Testu koherentzia, kohesioa eta egokitasuna lortzeko mekanismoak.<br>–Diskurtso generoak:<br>–Esparru pertsonalaren berezko diskurtso generoak: elkarrizketa, arreta berezia jarriz solaskidearen irudia mehatxatzen duten hizketa egintzetan (desadostasuna, kexa, agindua, gaitzespena).<br>–Esparru sozialaren berezko diskurtso generoak. Gizarte sareak eta hedabideak. Etiketa digitala eta desinformazio, manipulazio eta pribatutasuna urratzeko arriskuak. Irudia eta osagai paratestualak testu ikoniko-hitzezkoetan eta multimodaletan.<br>–Prestakuntzaren esparruko berezko diskurtso generoak: laburpena, eskema, ahozko azalpena, iruzkina. |

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| | –Esparru profesionalaren berezko diskurtso generoak: curriculum vitae-a, motibazio gutuna eta lan elkarrizketa.<br>–Prozesuak:<br>–Ahozko eta idatzizko interakzio informala eta formala, espontaneoa eta aurrez prestatua. Elkarrizketarako lankidetza, hizkuntza kortesia eta etiketa digitala. Inferentziak eta hitz egiteko txandak kudeatzea. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarrizketa bidez konpontzea. Diskurtso eta elkarrizketa estrategiak norberaren eta besteen beharrak, bizipenak eta emozioak enpatiaz adierazi eta entzuteko. Ideiak adierazteko, lankidetzako entzunaldi begirunetsurako, konfrontaziorako eta akordiorako estrategiak.<br>–Ahozko ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa. Edukia aurreikustea eta informazio garrantzitsua hautatzea helburuaren arabera. Igorlearen asmoa.<br>–Ahozko ekoizpen formala. Hartzaileetara eta azalpenaren denborara egokitzea. Hitzik gabeko osagaiak. Diskurtsoaren eta hizkuntzaren ezaugarriak ahozkotasun formalean. Ahozko deliberazio argudiatua. Ahozko erabilera formalak eta informalak, espontaneoak eta aurrez prestatuak. Ahozko adierazpen arin, argi eta ordenaturako estrategiak.<br>–Irakurriaren ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa. Igorlearen asmoa. Ulermenaren zerbitzura dauden elementu grafikoak eta paratestualak.<br>–Idazmena. Plangintza, idazketa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan.<br>–Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa. Puntuazio zeinuak, testu idatzia antolatzeko mekanismo gisa. Esanahiarekin duten harremana. Aberastasun lexikoa eta oinarrizko terminologia egokia. Hiztegiak, kontsultarako eskuliburuak eta zuzentzaile ortografikoak euskarri digitalean. | –Esparru profesionalaren berezko diskurtso generoak: curriculum vitae-a, motibazio gutuna eta lan elkarrizketa.<br>–Prozesuak:<br>–Ahozko eta idatzizko interakzio informala eta formala, espontaneoa eta aurrez prestatua. Elkarrizketarako lankidetza, hizkuntza kortesia eta etiketa digitala. Inferentziak eta hitz egiteko txandak kudeatzea. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarrizketa bidez konpontzea. Diskurtso eta elkarrizketa estrategiak norberaren eta besteen beharrak, bizipenak eta emozioak enpatiaz adierazi eta entzuteko. Ideiak adierazteko, lankidetzako entzunaldi begirunetsurako, konfrontaziorako eta akordiorako estrategiak.<br>–Ahozko ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa. Edukia aurreikustea eta informazio garrantzitsua hautatzea helburuaren arabera. Igorlearen asmoa.<br>–Ahozko ekoizpen formala. Hartzaileetara eta azalpenaren denborara egokitzea. Hitzik gabeko osagaiak. Diskurtsoaren eta hizkuntzaren ezaugarriak ahozkotasun formalean. Ahozko deliberazio argudiatua. Ahozko erabilera formalak eta informalak, espontaneoak eta aurrez prestatuak. Ahozko adierazpen arin, argi eta ordenaturako estrategiak.<br>–Irakurriaren ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa. Igorlearen asmoa. Ulermenaren zerbitzura dauden elementu grafikoak eta paratestualak.<br>–Idazmena. Plangintza, idazketa, berrikuspena eta edizioa hainbat euskarritan.<br>–Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa. Puntuazio zeinuak, testu idatzia antolatzeko mekanismo gisa. Esanahiarekin duten harremana. Aberastasun lexikoa eta oinarrizko terminologia egokia. Hiztegiak, kontsultarako eskuliburuak eta zuzentzaile ortografikoak euskarri digitalean. |
| | A.2 Literatura hezkuntza eta irakurtzeko ohitura | |
| A.2.1 | Ikasleen interesetara moldatutako obrak, irakurketa ibilbideetan antolatuta. | Ikasleen interesetara moldatutako obrak, irakurketa ibilbideetan antolatuta. |
| A.2.2 | Literatura ondareko obra eta zati esanguratsuak lagunduta irakurtzea, gaiaren edo generoaren araberako ibilbide baten barruan. | Literatura ondareko obra eta zati esanguratsuak lagunduta irakurtzea, gaiaren edo generoaren araberako ibilbide baten barruan. |
| A.2.3 | Obren interpretazioa modu partekatuan eraikitzeko estrategiak: literaturari buruzko eztabaidak edo elkarrizketak. | Obren interpretazioa modu partekatuan eraikitzeko estrategiak: literaturari buruzko eztabaidak edo elkarrizketak. |
| A.2.4 | Obraren esanahiaren eraikuntza, haren elementu formaletatik eta kontestualetatik abiatuta. Norberaren adierazpenerako baliabideen ondorioak harreran. | Obraren esanahiaren eraikuntza, haren elementu formaletatik eta kontestualetatik abiatuta. Norberaren adierazpenerako baliabideen ondorioak harreran. |
| A.2.5 | Testuetako funtsezko konbentzioak identifikatzeko estrategiak. | Testuetako funtsezko konbentzioak identifikatzeko estrategiak. |
| A.2.6 | Norberaren esperientzia, irakurritakoarena eta esperientzia kulturala mobilizatzeko estrategiak, irakurritako lana eta aktualitatearen alderdi batzuk lotzeko modu argudiatuan, baita beste testu batzuk eta beste arte adierazpen batzuk ere. | Norberaren esperientzia, irakurritakoarena eta esperientzia kulturala mobilizatzeko estrategiak, irakurritako lana eta aktualitatearen alderdi batzuk lotzeko modu argudiatuan, baita beste testu batzuk eta beste arte adierazpen batzuk ere. |
| A.2.7 | Bakarkako irakurketa ibilbideak eraikitzea. Gustuak eta interesak adierazteko estrategiak. | Bakarkako irakurketa ibilbideak eraikitzea. Gustuak eta interesak adierazteko estrategiak. |
| A.2.8 | Ereduak oinarri hartuta, asmo artistiko eta sormenezkoa duten testuak sortzeko estrategiak. | Ereduak oinarri hartuta, asmo artistiko eta sormenezkoa duten testuak sortzeko estrategiak. |
| | A.3 Hizkuntzari buruzko hausnarketa | |
| A.3.1 | Hizkuntza biografia eta inguruneko hizkuntza aniztasuna. | Hizkuntza biografia eta inguruneko hizkuntza aniztasuna. |
| A.3.2 | Aniztasun etnokultural eta linguistikoa, hizkuntzen arteko hausnarketaren aberastasun eta tresna moduan. Hurbilketa zeinu hizkuntzetara. | Aniztasun etnokultural eta linguistikoa, hizkuntzen arteko hausnarketaren aberastasun eta tresna moduan. Hurbilketa zeinu hizkuntzetara. |
| A.3.3 | Espainiako hizkuntzak eta gaztelaniaren dialekto aldaerak. Hizkuntzen gaineko aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzeko eta zalantzan jartzeko estrategiak. | Espainiako hizkuntzak eta gaztelaniaren dialekto aldaerak. Hizkuntzen gaineko aurreiritziak eta estereotipoak identifikatzeko eta zalantzan jartzeko estrategiak. |
| A.3.4 | Hizkuntzaren etika: hizkuntza ez baztertzailea eta desberdintasunekiko begirunetsua. | Hizkuntzaren etika: hizkuntza ez baztertzailea eta desberdintasunekiko begirunetsua. |
| A.3.5 | Hizkuntzara hurbiltzea sistema gisa ikusita, baita haren oinarrizko unitateetara ere, testu errealen ekoizpen eta ulermen testuinguruetan: soinua eta idazteko sistema, hitzak (forma eta esanahia) eta diskurtsoan duten antolaketa (hitzen ordena eta perpaus osagaien arteko lotura). | Hizkuntzara hurbiltzea sistema gisa ikusita, baita haren oinarrizko unitateetara ere, testu errealen ekoizpen eta ulermen testuinguruetan: soinua eta idazteko sistema, hitzak (forma eta esanahia) eta diskurtsoan duten antolaketa (hitzen ordena eta perpaus osagaien arteko lotura). |
| A.3.6 | Hitzak eskuratu eta sortzeko prozedurak. Esanahiaren aldaketak, hitzen arteko harreman semantikoak eta haien balio denotatiboak eta konnotatiboak testuinguruaren eta komunikazio xedearen arabera. | Hitzak eskuratu eta sortzeko prozedurak. Esanahiaren aldaketak, hitzen arteko harreman semantikoak eta haien balio denotatiboak eta konnotatiboak testuinguruaren eta komunikazio xedearen arabera. |

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.4 Alfabetatze mediatiko eta informazionala | | |
| A.4.1 | Informazio fidagarria, egokia eta kalitatezkoa bilatzeko eta hautatzeko estrategiak. | Informazio fidagarria, egokia eta kalitatezkoa bilatzeko eta hautatzeko estrategiak. |
| A.4.2 | Jabetza intelektualaren oinarrizko alderdiak. | Jabetza intelektualaren oinarrizko alderdiak. |
| A.4.3 | Manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak eta ondorioak. | Manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak eta ondorioak. |
| A.4.4 | Informazioa antolatzeko estrategiak: oharrak, eskemak, mapa kontzeptualak, laburpenak, etab. | Informazioa antolatzeko estrategiak: oharrak, eskemak, mapa kontzeptualak, laburpenak, etab. |
| A.4.5 | Informazioa sormenez komunikatzeko estrategia. | Informazioa sormenez komunikatzeko estrategia. |
| A.4.6 | Informazioaren teknologiak. Informazioa bilatzeko gailuak, aplikazio informatikoak eta plataforma digitalak. | Informazioaren teknologiak. Informazioa bilatzeko gailuak, aplikazio informatikoak eta plataforma digitalak. |

## B. Komunikazioa atzerriko hizkuntzan:

## I. MAILA

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| B.1 | Autokonfiantza. Akatsa, hobekuntza tresna gisa; eta zuzentzeko proposamena. | Autokonfiantza. Akatsa, hobekuntza tresna gisa; eta zuzentzeko proposamena. |
| B.2 | Oinarrizko estrategiak ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen ulermena, ekoizpena eta baterako ekoizpena planifikatzeko, gauzatzeko, kontrolatzeko eta zuzentzeko. | Oinarrizko estrategiak ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen ulermena, ekoizpena eta baterako ekoizpena planifikatzeko, gauzatzeko, kontrolatzeko eta zuzentzeko. |
| B.3 | Oinarrizko funtzio komunikatiboak, ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruetakoak: elkartzerakoan eta alde egiterakoan agurtzea, norbait aurkeztea eta nork bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak eta tokiak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; informazioa eskatu eta trukatzea; jarraibideak eta aginduak ematea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta baztertzea; gustua edo interesa eta oinarrizko emozioak hein batean adieraztea; iraganeko gertaerak kontatu, egungo egoerak deskribatu eta etorkizuneko egoerak aipatzea; iritzia, posibilitatea, ahalmena, beharra eta debekua adieraztea. | Oinarrizko funtzio komunikatiboak, ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruetakoak: elkartzerakoan eta alde egiterakoan agurtzea, norbait aurkeztea eta nork bere burua aurkeztea; pertsonak, objektuak eta tokiak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; informazioa eskatu eta trukatzea; jarraibideak eta aginduak ematea; laguntza, proposamenak edo iradokizunak eskaini, onartu eta baztertzea; gustua edo interesa eta oinarrizko emozioak hein batean adieraztea; iraganeko gertaerak kontatu, egungo egoerak deskribatu eta etorkizuneko egoerak aipatzea; iritzia, posibilitatea, ahalmena, beharra eta debekua adieraztea. |
| B.4 | Oinarrizko testuinguru ereduak eta diskurtso generoak ahozko testu, testu idatzi eta testu multimodal labur eta errazen ulermenerako, ekoizpenerako eta baterako ekoizpenerako, ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruan. | Oinarrizko testuinguru ereduak eta diskurtso generoak ahozko testu, testu idatzi eta testu multimodal labur eta errazen ulermenerako, ekoizpenerako eta baterako ekoizpenerako, ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruan. |
| B.5 | Oinarrizko hizkuntza unitateak eta unitate horiei lotutako esanahiak, hala nola entitatearen eta haren ezaugarrien adierazpena; kantitatea eta nolakotasuna; espazioa eta espazio erlazioak; denbora eta denbora erlazioak; baieztapena; ezeztapena; galdera eta harridura; erlazio logiko oinarrizkoak. | Oinarrizko hizkuntza unitateak eta unitate horiei lotutako esanahiak, hala nola entitatearen eta haren ezaugarrien adierazpena; kantitatea eta nolakotasuna; espazioa eta espazio erlazioak; denbora eta denbora erlazioak; baieztapena; ezeztapena; galdera eta harridura; erlazio logiko oinarrizkoak. |
| B.6 | Ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruko oinarrizko lexikoa, esaldiak eta adierazpenak: pertsonaren identifikazioa, pertsonen arteko harremanak, hurbileko toki eta inguruneak, aisialdia, eguneroko bizitza, osasuna eta jarduera fisikoa, etxebizitza eta etxea, klima eta ingurune naturala, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. | Ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruko oinarrizko lexikoa, esaldiak eta adierazpenak: pertsonaren identifikazioa, pertsonen arteko harremanak, hurbileko toki eta inguruneak, aisialdia, eguneroko bizitza, osasuna eta jarduera fisikoa, etxebizitza eta etxea, klima eta ingurune naturala, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. |
| B.7 | Oinarrizko soinu, azentu, erritmo eta intonazio patroiak, eta patroi horiei lotutako esanahi eta komunikazio asmo orokorrak. | Oinarrizko soinu, azentu, erritmo eta intonazio patroiak, eta patroi horiei lotutako esanahi eta komunikazio asmo orokorrak. |
| B.8 | Oinarrizko ortografia konbentzioak, eta formatuei, patroiei eta elementu grafikoei lotutako esanahiak eta komunikazio asmoak. | Oinarrizko ortografia konbentzioak, eta formatuei, patroiei eta elementu grafikoei lotutako esanahiak eta komunikazio asmoak. |
| B.9 | Hizkuntza kortesia eta etiketa digitala. | Hizkuntza kortesia eta etiketa digitala. |
| B.10 | Ahozko testuen, idatzizko testuen eta testu multimodalen ulermenerako, ekoizpenerako eta baterako ekoizpenerako oinarrizko tresna analogikoak eta digitalak; eta ikaskuntzarako eta komunikaziorako interakzio eta lankidetza plataforma birtualak, ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruan. | Ahozko testuen, idatzizko testuen eta testu multimodalen ulermenerako, ekoizpenerako eta baterako ekoizpenerako oinarrizko tresna analogikoak eta digitalak; eta ikaskuntzarako eta komunikaziorako interakzio eta lankidetza plataforma birtualak, ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruan. |
| B.11 | Estrategiak eta teknikak izatea oinarrizko behar komunikatibo zehatz bati eraginkortasunez eta ongi ulertzeko moduan erantzuteko, nahiz eta muga batzuk egon ikasleak atzerriko hizkuntzan eta bere hizkuntza errepertorioko beste hizkuntzetan daukan konpetentzia mailaren ondorioz. | Estrategiak eta teknikak izatea oinarrizko behar komunikatibo zehatz bati eraginkortasunez eta ongi ulertzeko moduan erantzuteko, nahiz eta muga batzuk egon ikasleak atzerriko hizkuntzan eta bere hizkuntza errepertorioko beste hizkuntzetan daukan konpetentzia mailaren ondorioz. |

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| B.12 | Oinarrizko estrategiak, hizkuntza unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu patroiak eta abar) identifikatu, berreskuratu eta erabiltzeko, norberaren hizkuntza errepertorioko hizkuntzak eta aldaerak alderatzetik abiatuta. | Oinarrizko estrategiak, hizkuntza unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu patroiak eta abar) identifikatu, berreskuratu eta erabiltzeko, norberaren hizkuntza errepertorioko hizkuntzak eta aldaerak alderatzetik abiatuta. |
| B.13 | Eguneroko bizitzari eta ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruei dagozkien oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak. | Eguneroko bizitzari eta ikasleen esparru pertsonal, sozial, profesional eta prestakuntzako esparruei dagozkien oinarrizko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak. |
| B.14 | Hizkuntza eta kultura aniztasuna. Hura ulertzeko eta estimatzeko oinarrizko estrategiak. | Hizkuntza eta kultura aniztasuna. Hura ulertzeko eta estimatzeko oinarrizko estrategiak. |

## II. MAILA

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| B.1 | Autokonfiantza eta ekimena. Akatsa, ikaskuntza prozesuaren parte. | Autokonfiantza eta ekimena. Akatsa, ikaskuntza prozesuaren parte. |
| B.2 | Ohiko estrategiak, honako alderdi hauek planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta konpontzeko: ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen ulermena, ekoizpena eta baterako ekoizpena. | Ohiko estrategiak, honako alderdi hauek planifikatu, gauzatu, kontrolatu eta konpontzeko: ahozko testuen, idatzizkoen eta multimodalen ulermena, ekoizpena eta baterako ekoizpena. |
Azkenik, alderdi metodologikoei dagokienez, Helduentzako Bigarren Hezkuntzaren gizarte esparruko lanak helduen hezkuntzan garrantzi handia duten oinarrizko printzipio generiko batzuk errespetatu behar ditu. Printzipio horien arabera, komenigarria da, lehenik eta behin, ikasleen premietara eta ezaugarrietara egokitutako hezkuntza dibertsifikatua sustatzen duten estrategia metodologikoak lehenestea, bai irudikapenari dagokionez, bai ikaskuntzen komunikazioari eta ebaluazioari dagokienez.

Bigarrenik, ikaskuntza jardunak eta egoerak modu esanguratsuan kokatu behar dira testuinguruan, ikasleentzat motibagarriak eta erabilgarriak izan daitezen, eta ikaskuntza integrala lortzen saiatu behar da, prestakuntzaren dimentsioari ez ezik, dimentsio pertsonal, sozial, zibiko eta profesionalari ere erantzunen diona. Metodologia proposamenek ikasitakoa beste diziplina eta lan esparru batzuetara transferitzea erraztu beharko dute, bizitza osoko ikaskuntza sustatuz. Horretarako, komenigarria da hautatzen diren baliabideek ikasleen parte hartze aktiboa ziurtatzea, ikasleen autonomia eta ikasten ikasteko gaitasuna sustatzea eta ikaskuntza prozesuari berari buruzko gogoeta piztea.

***1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak.***

*1. konpetentzia espezifikoa.*

Informazio historikoa, geografikoa eta funtsezko arazoei eta gaurkotasunari buruzko informazioa bilatzea, hautatzea eta kritikoki interpretatzea, iturrien fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzea eta manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestea, ezagutza sortu eta komunikatzeko eta aniztasuna errespetatzen duten ongi oinarritutako iritziak taxutzeko.

1. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Informazioa bilatu, hautatu eta tratatzearekin lotutako trebetasunak eta prozesuak ezinbesteko tresnak dira ezagutzaren gizartean moldatzeko. Horregatik, beharrezkoa da ikasleak gero eta autonomia handiagoz trebatzea informazio garrantzitsua aurkitu, antolatu eta interpretatzeko, iturrien fidagarritasuna aztertuz eta iturriek islatzen duten aniztasuna kritikoki alderatuz. Hortaz, beharrezkoa da, irakasleen gidaritzapean, tresna eta ezagutza egokiak erabiltzen ikastea, informazio faltsua, partziala edo argudio okerretan edo iruzurtietan oinarritutako informazioa hautemateko. Helburua da ikasleek gaitasuna gara dezaten informazioa ingurune digital zein analogikoetan kudeatzeko, bai eta informazioa hainbat testuingurutan aplika daitekeen ezagutza bihurtzeko eta eraginkortasunez komunikatzeko ere, betiere erabilera konbentzioak errespetatuz (dokumentuak eta diskurtsoak antolatzea, jarraibide erretorikoak, aipuak eta oharrak erabiltzea, bibliografiak eta webgrafiak, jabetza intelektuala ezagutzea, etab.). Era berean, eta aurrekoarekin lotuta, ikasleek beren jarrerak eta iritziak argudiatuta eta elkarrizketara irekita adierazteko ohitura garatu behar dute, lankidetzan eta beren ingurunean dauden ideien eta balioen aniztasunarekiko errespetuzko jarrera erakutsiz.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK2, HKK3, STEM4, KD1, KD2, HK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 1.1. Ezagutzak sortzea eta komunikatzea, informazio historiko eta geografikoa bilatzeko, hautatzeko, interpretatzeko eta hedatzeko tresna eta jarraibide seguru eta eraginkorrak aplikatuz, bitarteko analogikoen zein digitalen bidez.<br>1.2. Garrantzi sozialeko gaiei buruzko iritzi informatuak sortzea, iturri askotarikoak eta fidagarriak oinarri hartuta, informazio eta argudio okerrak edo alboratuak antzemanez eta baztertuz. | 1.1. Informazioa kudeatzea eta ezagutzak zorrotz eta eraginkortasunez sortzea, tresna digitalak eta bilatzeko, hautatzeko eta interpretazio kritikoa egiteko jarraibideak aplikatuz, hiztegi egokia erabiliz eta informazio faltsua edo alboratua antzemateko estrategiak erabiliz.<br>1.2. Ezagutza geografikoak, historikoak edo garrantzi etiko edo soziala dutenak lantzea eta komunikatzea, iturri askotarikoak eta fidagarriak erabiliz eta argudio egiazkoak eta sendoak erabiliz. |

*2. konpetentzia espezifikoa.*

Gure identitatea definitzen duten elementu sozialen, ekonomikoen, politikoen eta kulturalen dimentsio historikoa eta geografikoa identifikatzea eta ulertzea, eta elementu horien jatorriak, aldaketak eta bilakaera aztertzea, baita gaur egun dituzten arazoak ere, denon ongizatean lagunduko duten proposamenak egiteko.

2. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Gure identitatearen dimentsio soziala ulertzeko, bai eta besteekin eta ingurunearekin modu eraikitzaile eta arduratsuan elkarreragiteak duen garrantzia ulertzeko ere, oso garrantzitsua da bizi

garen kulturaren eta garaiaren eta aurretik egon ziren beste garai batzuen azterketa historiko eta geografikoa egitea. Horrela, beharrezkoak da elementu geografikoak, gizarte loturak, egitura eta jarduera ekonomikoak, sistema politikoak eta gure gizarte ingurunea eta gure identitatea osatzen duten eta sortu duten kultura eta ondare balioak eta irudikapenak ezagutzea, ikasleak beren garai eta kulturaren garapenean protagonista gisa kokatu eta ulertu ahal izateko. Helburu hori lortzeko, sustrai, iraunkortasun eta aldaketa historiko eta geografikoen oinarrizko azterketa egin behar da, denboran zehar, bai munduan, bai Europan eta Espainian, gaur egun ezagutzen dugun oraina taxutu baitute. Horretarako, ezinbestekoa da pentsamendu historikoaren eta pentsamendu geografikoaren estrategiak eta metodoak erabiltzea, aukera ematen dutenak gaur egungo arazoen testuingurua finkatzeko, horiek argitzeko eta haien aurrean pertsonalki kokatzeko, horretarako identifikatuz arazoen kausak, ondorioak eta baldintzatzaile historiko eta geografikoak, ikasleek errazago lor dezaten beren ongizate kolektiboa eta gizarte eta kultura ingurunearen garapen jasangarria, lanean rol aktiboa eta proposatzailea emanez.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: ELK3, KPSII1, HK1, HK2, HK3, HK4, KKAK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 2.1. Natura, landa eta hiri inguruneak aztertzea eta interpretatzea, bai eta ziklo demografikoak eta Antzinaroko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko beste elementu geografiko batzuk ere, ikuspegi sistemiko eta integratzaile batetik eta pentsamendu geografikoaren berezko kontzeptu eta prozeduren bidez.<br>2.2. Antzinako kultura eta zibilizazioek gure garai, kultura eta identitatean izan duten eragina ezagutzea, haien analisiaren eta alderaketaren bidez.<br>2.3. Egungo munduaren arazoak testuinguruan kokatzea eta aztertzea, eta rol aktiboa eta proposatzailea hartzea guztion ongizate kolektiboa lortzeari dagokionez, Antzinaroko, Erdi Aroko eta Aro Modernoko berezko antolamendu ekonomiko, sozial eta politikoko zenbait eredu alderatuz.<br>2.4. Antzinarotik Aro Modernora arte gure identitatea eta sentitzeko eta pentsatzeko modua osatzen lagundu duten arte, erlijio eta kultura adierazpenak identifikatzea eta aintzat hartzea, adierazpen horien esanahiaren analisi kritikoaren bidez.<br>2.5. Ikusezin bihurtutako pertsonen ekarpena aitortzea eta aintzat hartzea, Antzinarotik Aro Modernora arte gertatu diren marjinazio, segregazio, kontrol eta mendetasun prozesu historiko batzuen azterketatik abiatuta. | 2.1. Hiri garapen garaikidea, landa eremuari eusteko arazoa, ziklo demografikoen bilakaera eta beste elementu geografiko batzuk aztertzea, garapen jasangarriaren ikuspegitik eta pentsamendu geografikoaren berezko kontzeptu eta prozeduren bitartez.<br>2.2. Egungo munduaren arazoak testuinguruan jartzea eta modu kritikoan aztertzea, Aro Garaikideko elementu eta prozesu ekonomiko, sozial eta politiko bereizgarrienak aztertuz.<br>2.3. Gerren, terrorismoaren eta indarkeria politikoko beste modu batzuen ondorioez jabetzea, Aro Garaikideko gatazka eta gerra nagusiak aztertuz, bai eta gatazka horietan sortutako genozidioez eta gizateriaren aurkako krimenez ere.<br>2.4. Guztion ongizatea lortzeari dagokionez, rol aktiboa eta proposatzailea hartzea, ikuspuntu historiko eta kritiko batetik aztertuz gizarte eta kultura mugimenduak, eskubide indibidualak, lanekoak eta sozialak konkistatzeko prozesua eta egungo garapen tekniko eta zientifikoa.<br>2.5. Natura eta kultura ondarearekiko errespetua eta zaintza sustatzea, egungo arte adierazpen nagusien ezagutzatik eta gozamenetik abiatuta, bai eta gure ingurune naturalaren aniztasunetik eta baliotik abiatuta ere. |

*3. konpetentzia espezifikoa.*

Gure sistema demokratiko eta konstituzionalaren printzipioak eta oinarrizko elementuak ezagutzea, haren historia, erakundeak eta funtsezko mekanismoak aztertuz, bai eta parte hartzen duen esparru europarra eta globala ere, herritartasun aktibo, kritiko eta arduratsua sustatzeko.

3. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Gizarte esparruko hezkuntzaren funtsezko helburuetako bat da gure sistema politikoaren historia ezagutu eta ulertzea, ulermen hori beharrezkoa baita herritartasun aktibo, kritiko eta arduratsua izateko. Ildo horretatik, ezinbestekoa da ikasleek oinarrizko ezagutza izatea gure sistema demokratikoaren sorrerari, printzipioei, balioei, prozedurei, antolamenduari eta erakunde nagusiei buruz, Konstituzioa funtsezko arau esparrutzat hartuta, eta haren sustrai eta bilakaera historikoak aitortuta, bai eta hura garatzeko erabakigarrian izan ziren prozesuen eta eragileen memoria ere. Horretarako, gure herrialdearen historiako funtsezko mugarriak ezagutzea komeni da, Antzinarotik Aro Garaikidera, aldaketa politiko berrienek ekarri dituzten lorpenak eta aurrerapenak behar bezala testuinguruan kokatzeko. Helburua ez da soilik ikasleak zenbait balio eta printzipiorekin identifikatzea, baizik eta parte hartzea, elkarrizketa eta kritika sustatzea ere bai, prozedura demokratikoen funtsezko elementu gisa. Azkenik, beharrezkoa da, halaber, ikasleek ulertzea tokiko, autonomia erkidegoko eta nazioko ekintza politikoaren eta Europako zein munduko fluxu ekonomiko, politiko, tekniko eta kulturalean integratzeak dakartzan

baldintza eta erronken arteko harremana. Azken alde horretatik, ikasleek ezagutu eta aintzat hartu behar dute zer eginkizun duten Estatuak, haren erakundeek eta nazioarteko beste erakunde batzuek, zibilak zein gobernuz kanpokoak barne, bakeari eta herritarren segurtasun integralari eusteko, indarkeriaren biktimei arreta emateko, nazioarteko lankidetzan aritzeko eta balio demokratikoekin, garapen jasangarriarekin eta XXI. mendeko gainerako erronka eta desafioekin konprometitutako munduko herritartasuna lortzeko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK5, HK1, HK2, HK3, KKAK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 3.1. Herritarren jardun aktibo eta kritikoaren balioa aitortzea, Espainiako historiaren funtsezko mugarriak identifikatuz eta ulertuz eta Europako eta munduko testuinguruarekin duen loturatik abiatuta, Antzinarotik Aro Modernora.<br>3.2. Espainiako aniztasun eta aberastasun kulturala aintzat hartzea, Iberiar penintsulan bizi izan diren zibilizazioen ondare historiko eta kulturala aitortuz eta gure herrialdea protagonista izan duten hedapen, kolonizazio eta eraikuntza prozesuen analisi kritikoa eginez. | 3.1. Gure historiako aldaketa sozial eta politiko berrienak ezagutzea eta testuinguruan kokatzea, Espainiak Aro Garaikidean izandako mugarri eta gertaera historiko nagusiak identifikatuz eta aztertuz.<br>3.2. Herritartasun aktiboa eta kritikoa, parte hartzea eta memoria demokratikoa gauzatzea zertan datzan azaltzea, Espainiako sistema demokratikoaren sorrera eta printzipioak, prozedurak, erakundeak eta antolamendua ulertuz, bai eta Konstituzioa ere, Estatuaren funtsezko arau esparru gisa.<br>3.3. Europaren integrazio prozesuaren garrantzia justifikatzea, haren dinamika historikoa, zehazten diren erakundeak eta balioak eta gure herrialdeari dakarzkion abantailak, erronkak eta betebeharrak ezagututa.<br>3.4. Estatuak, haren instituzioek eta nazioarteko beste erakunde batzuek, zibilak zein gobernuz kanpokoak barne, herritarren segurtasun integralari eusteko, indarkeriaren biktimei arreta emateko eta nazioarteko bakea eta lankidetza sustatzeko betetzen duten zeregina aztertuz eta aitortuz munduko herritartasuna lortzearen garrantzia ulertzea. |

*4. konpetentzia espezifikoa.*

Arau eta balio zibiko eta etikoen arabera jardutea eta elkarreragitea. Horretarako, arau eta balio horiek modu arrazoituan ezagutu eta testuinguruan kokatu behar dira, eta bizitza pertsonal eta kolektiboaren erregulazioan duten garrantzia identifikatu behar da, bizikidetza baketsua sustatzeko eta garrantzi soziala duten funtsezko arazoen aurrean norberaren iritziak garatzeko.

4. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Gizarte zientzietan hezteko eta herritartasun aktibo eta arduratsua gauzatzeko, funtsezkoa da balio zibiko eta etikoetan heztea. Balio horiek ezagutu eta onartzeak gure izaera sozial eta morala ulertzeaz gain, gure izaera etiko eta politikoari buruzko hausnarketa kritikoa egitea dakar, baita gure bizitza pertsonala eta soziala arautzen duten balioen legitimitateari buruzkoa ere. Hortaz, ikasleek oinarrizko kontzeptuak eta prozedurak erabiltzen jakin behar dute, hala nola argudiatzea eta besteekiko elkarrizketa, balio, printzipio eta planteamendu zibiko, etiko eta politikoen analisi kritikoa behar duten egoerak eta arazoak identifikatzeko eta kudeatzeko. Balio, printzipio eta planteamendu horiek modu arrazoituan eta testuinguruan kokatuta ezagutzeak soilik lagundu dezake haiekin konpromiso aktiboa hartzen. Era berean, konpromiso hori ikasle helduen ingurunean aplikatu beharko da, eta, horrela, bizikidetza baketsua, demokratikoa eta guztion ongizaterantz bideratua lortzeko behar diren jarrerak eta ohiturak sustatuko dira. Hor azpimarratu beharko dira, alde batetik, gure erreferentziazko esparru zibiko eta etikoa osatzen duten printzipioen eta balioen garrantzia (giza eskubideak, justizia eta gizarte kohesioa, lankidetza, kultura aniztasuna, diskriminaziorik eza, bakea, gizonen eta emakumeen berdintasuna eta erantzukidetasuna, edo kultura eta natura ondarearen zaintza, besteak beste), eta, bestetik, ikasleen iritzi autonomia sustatzeko beharra ere, hori ezinbesteko baldintza baita balio horiek aktiboki hartzeko eta herritartasun demokratikoa baliatzeko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK5, KD3, HK1, HK2, HK3, HK4, KKAK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 4.1. Bizitza pertsonala eta soziala arautzen duten arauak eta balioak kritikoki eta etikoki aztertzea, eta haien beharrari eta legitimitateari buruz hausnartzea eta arrazoitzea.<br>4.2. Funtsezko eta gaur egungo arazoen eta erronken aurrean norberaren iritzia azaltzea eta argudiatzea, herritarren eskubide eta betebeharrekin, desberdintasunarekin eta pobreziarekin, aniztasunarekiko errespetuarekin eta genero berdintasunarekin lotutako gai etikoak planteatuz, kritikoki aztertuz eta azalduz. | 4.1. Modu kritikoan aztertzea bizikidetza soziala arautzen duten arauak eta balioak, bai eta horien oinarri etiko eta politikoa ere, giza eskubideei dagokienez, eta haien beharrari eta legitimitateari buruz hausnartzea eta arrazoitzea.<br>4.2. Funtsezko eta gaur egungo arazoen eta erronken aurrean norberaren iritzi etikoa azaltzea eta argudiatzea, globalizazio ekonomikoari, eskubide sozialei, zergen balio sozialari, identitate etnokulturalekiko eta genero identitatearekiko errespetuari, eta jokabide sexisten eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko gaiak eta argudioak planteatuz, aztertuz eta azalduz. |

*5. konpetentzia espezifikoa.*

Ulertzea giza jarduerak elkarren artean eta ingurunearekin lotuta daudela eta harekiko ekodependentzia dutela, arazo ekosozial esanguratsuak identifikatuta eta aztertuta; hori guztia, jasangarritasunarekiko konpromiso etikoa duten bizitzeko erak sustatzeko.

5. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Gure bizimoduek elkarren artean eta ingurune sozial eta naturalarekiko dituzten harreman sistemikoak ezagutzea (interdependentzia, ekodependentzia eta interkonexioa); horra hor aldez aurretik eman beharreko urratsa jasangarritasunaren eta planeta zaintzearen aldeko konpromiso etikora iristeko. Ezagutza hori lortzeko, lehenik, naturarekin dugun erlazioaren inguruan gizakiok izan ditugun eta oraindik ere baditugun ikuskerak kritikoki aztertu behar dira eta, bigarrenik, gaur egungo erronka eta arazo ekosozialei aurre egiteko hartu daitezkeen planteamendu etiko eta politikoen inguruan eztabaidatu behar da, alderdi instrumental eta antropozentriko hutsetatik haratago joanda. Bestalde, ingurunearen errespetuarekin eta zaintzarekin konprometitutako jarrera bat izateak eskatzen du ikasle helduek ohitura eta jarduteko modu jakin batzuk izatea eguneroko bizitzan, bizitzeko era jasangarriak lortzen lagunduko dutenak. Ohitura eta ekintza horien adibide dira, besteak beste, honako hauek: hondakinen prebentzioa eta kudeaketa; oinarrizko baliabideen erabilera jasangarria; mugikortasun segurua, osasungarria eta jasangarria; ingurumen legeekiko konpromiso etikoa eta zibikoa; kontsumo arduratsua sustatzea; espazio publikoak eta natura eta kultura ondarea zaintzea; aniztasuna errespetatzea; komunitateari zerbitzu egitea eta animaliak babestea.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: STEM1, KPSII2, HK1, HK2, HK3, HK4, EK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 5.1. Planetaren mugez eta baliabideak agortzearen arazoaz jabetzea, analisi historikoaren bidez eta gizakiaren eta naturaren artean dauden eta izan diren harremanen azalpen kritikoaren bidez.<br>5.2. Bizimodu jasangarria hartzea eta sustatzea, honako hauek dakartenaren ulermen praktikoaren bidez: hondakinen prebentzioa eta kudeaketa, oinarrizko baliabideen erabilera jasangarria, mugikortasun segurua, osasungarria eta jasangarria, kontsumo arduratsua, natura eta kultura ondarearekiko errespetua, eta animalien zaintza eta babesa. | 5.1. Gure bizitzen eta ingurunearen arteko interkonexio, interdependentzia eta ekodependentziaren erlazioak deskribatzea, gure garaiko arazo ekosozial larrienak aztertuz.<br>5.2. Bizimodu jasangarria hartzea eta sustatzea, garapen jasangarriarekiko eta munduko herritartasunarekiko azterketa eta konpromiso etiko eta zibikotik abiatuta. |

***2.–Oinarrizko jakintzak.***

I. MAILA

A. Gizarteak eta lurraldeak:

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.1 | Gizarte zientzietako metodologia. | Gizarte zientzietako metodologia. |

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.2 | Ezagutza historiko eta geografikoaren iturriak. Informazioaren eta IKTen erabilera segurua eta arduratsua. | Ezagutza historiko eta geografikoaren iturriak. Informazioaren eta IKTen erabilera segurua eta arduratsua. |
| A.3 | Historiaurrea eta lehenengo kultura eta zibilizazioen sorrera. | |
| A.4 | Hiria eta landa mundua Antzinarotik Aro Modernora: polisak, urbeak, hiriak, herriak eta herrixkak. | Hiria eta landa mundua Antzinarotik Aro Modernora: polisak, urbeak, hiriak, herriak eta herrixkak. |
| A.5 | Mendebaldeko munduaren sustrai klasikoak: erakundeak, pentsamendua eta arte greko-latindarra. | |
| A.6 | Antolaketa ekonomikoa eta soziala. Ziklo demografikoen, bizimoduen, sistema ekonomikoen eta antolaketa sozialeko ereduen bilakaera Antzinarotik Aro Modernora. | Antolaketa ekonomikoa eta soziala. Ziklo demografikoen, bizimoduen, sistema ekonomikoen eta antolaketa sozialeko ereduen bilakaera Antzinarotik Aro Modernora. |
| A.7 | Antolaketa politikoa Antzinaroan, Erdi Aroan eta Aro Garaikidean. Gizartearen konplexutasun eta desberdintasunak, eta boterea lortzeko gatazkak. Demokraziak, errepublikak, inperioak eta erresumak. | Antolaketa politikoa Antzinaroan, Erdi Aroan eta Aro Garaikidean. Gizartearen konplexutasun eta desberdintasunak, eta boterea lortzeko gatazkak. Demokraziak, errepublikak, inperioak eta erresumak. |
| A.8 | Zibilizazioen adierazpen artistiko, erlijioso eta kulturalen esanahia eta eginkizuna Antzinarotik Aro Modernora. | Zibilizazioen adierazpen artistiko, erlijioso eta kulturalen esanahia eta eginkizuna Antzinarotik Aro Modernora. |
| A.9 | Historiako pertsona ikusezinak: emakumeak, esklaboak eta atzerritarrak. Marjinazioa, segregazioa, kontrola eta mendetasuna gizateriaren historian. | Historiako pertsona ikusezinak: emakumeak, esklaboak eta atzerritarrak. Marjinazioa, segregazioa, kontrola eta mendetasuna gizateriaren historian. |

B. Espainia Europan eta munduan:

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| B.1 | Kultura aniztasuna eta aberastasuna: kultura greko-latindarrak, islamikoak eta juduak Espainian utzi duten ondare historiko eta kulturala. | Kultura aniztasuna eta aberastasuna: kultura greko-latindarrak, islamikoak eta juduak Espainian utzi duten ondare historiko eta kulturala. |
| B.2 | | Amerikaren aurkikuntza. Arrazoiak, garapena eta ondorioak Espainian, Europan eta Latinoamerikan. |
| B.3 | | Eraikuntza nazionalaren prozesua Espainian. Monarkiaren zentralizazio politiko eta administratiboa. Espainiar inperioaren eraikuntza eta gainbehera. |
| B.4 | | Antzinako Erregimenaren krisia eta gizarte burgesaren hastapenak Europan eta Espainian. |

C. Balio zibikoak eta etikoak:

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| C.1 | | Arazo moralen inguruko elkarrizketa eta argudiatzea. Gatazkak bakebidez konpontzea. |
| C.2 | | Gizakien alderdi morala. Borondatea eta judizio morala. Balioen garrantzia. Autonomia morala. |
| C.3 | | Moralitatea eta legezkotasuna. Kontzientzia eragozpena. |
| C.4 | | Jokabide zibikoa. Herritarren eskubide eta betebeharrak. Asoziazionismoa eta boluntariotza. |
| C.5 | Desberdintasun ekonomikoa eta pobreziaren aurkako borroka. | |
| C.6 | Gizarteratzea eta aniztasunarekiko errespetua. Migrazioak, kultura aniztasuna eta mestizajea gizarte irekietan. | |
| C.7 | | Genero berdintasuna. Erantzukidetasuna etxeko lanetan eta zaintza lanetan. |
| C.8 | Gizakien eta naturaren arteko harremana historian zehar. Planetaren mugak eta baliabideak agortzea. | |
| C.9 | Bizimodu jasangarriak: hondakinen prebentzioa eta kudeaketa; oinarrizko baliabideen erabilera jasangarria; mugikortasun segurua, osasungarria eta jasangarria; kontsumo arduratsua; natura eta kultura ondarearekiko errespetua; eta animalien zaintza eta babesa. | |

## II. MAILA

A. Gizarteak eta lurraldeak:

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.1 | Pentsamendu geografikoaren eta pentsamendu historikoaren metodologiak. | Pentsamendu geografikoaren eta pentsamendu historikoaren metodologiak. |

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.2 | Ingurune digitaletan informazioa kudeatzea. Desinformazioaren arazoa eta alborapenak eta gezurrak antzematea. Lexiko historiko eta geografikoa erabiltzea. | Ingurune digitaletan informazioa kudeatzea. Desinformazioaren arazoa eta alborapenak eta gezurrak antzematea. Lexiko historiko eta geografikoa erabiltzea. |
| A.3 | Hiri garapen jasangarria: hiria, elkarbizitzarako espazio. Despopulazioa eta landa munduari eustea. | |
| A.4 | Ziklo demografikoen, bizimoduen eta gizarte antolaketako ereduen uneko bilakaera. | |
| A.5 | Sistema kapitalista, hastapenetatik gaur egunera arte. Kolonialismoa, inperialismoa eta mendekotasun ekonomiko eta kultural berriak. Hazkundearen, enplegagarritasunaren eta jasangarritasunaren ziurgabetasunak. | |
| A.6 | | Iraunkortasun eta aldaketa politikoak aro garaikidean. Morrontzatik herritartasunera. Legea kontratu sozial gisa. Eskubide indibidualak, lanekoak eta sozialak konkistatzea. Ongizate estatua. |
| A.7 | | Ideologia politikoak, nazionalismoak eta mugimendu kultural, sozial eta erlijiosoak Aro Garaikidean. |
| A.8 | | Gaur egungo gatazka eta gerra nagusien kausak eta ondorioak. Genozidioak eta gizateriaren aurkako krimenak; holokaustoaren kasua. Terrorismoa eta bestelako indarkeria politikoak. |
| A.9 | Garapen zientifiko eta teknologikoa eta bere muga etikoak. | |
| A.10 | | Aro Garaikideko adierazpen artistiko eta kultural nagusiak. Globalizazioa eta kultura aniztasuna. Natur eta kultur ondarea. |

B. Espainia Europan eta munduan:

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| B.1 | | Mugarriak, krisiak eta aldaketak gaur egungo Espainiako ekonomian eta gizartean. |
| B.2 | | Erregimen liberalak eta konstituzionalismoa Espainian. |
| B.3 | | II. Errepublika, Gerra Zibila eta Frankismoa. |
| B.4 | | Trantsizioa eta 1978ko Konstituzioa. Memoria demokratikoa eta indarkeriaren biktimei erreparazioa ematea. |
| B.5 | Demokrazia Espainian: printzipioak, prozedurak, antolaketa eta instituzioak. Parte hartze politikoa. | |
| B.6 | Nazionalismoak eta erregionalismoak. Autonomien estatua. | |
| B.7 | Europar Batasunera sartzeko prozesua. Europako erakundeak. Identitate europarra. | |
| B.8 | Espainiaren nazioarteko konpromisoak: Estatuak, bere erakundeek eta indar armatuek bakeari, herritarren segurtasun integralari eta nazioarteko lankidetzari egiten dioten ekarpena. GKEak eta GGKEak. | |

C. Balio zibikoak eta etikoak:

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| C.1 | | Legeen legitimotasuna eta justiziaren arazoa. |
| C.2 | | Giza eskubideen belaunaldiak. Horien jatorri historikoa eta garrantzi etikoa. |
| C.3 | Globalizazio ekonomikoa eta ondasun publiko erkideak. Lanerako, osasunerako, hezkuntzarako eta justiziarako eskubidea. Zergen balio soziala. | |
| C.4 | Identitate etnokulturalekiko eta genero identitateekiko errespetua. Eurozentrismoaren kritika. LGTBIQ+ eskubideak. | Identitate etnokulturalekiko eta genero identitateekiko errespetua. Eurozentrismoaren kritika. LGTBIQ+ eskubideak. |
| C.5 | Sexismoaren eta emakumeen aurkako esplotazioaren eta indarkeriaren prebentzioa. | Sexismoaren eta emakumeen aurkako esplotazioaren eta indarkeriaren prebentzioa. |
| C.6 | Interdependentzia, interkonexioa eta ekodependentzia gure bizimoduen eta ingurunearen artean. Giza ekintzen aztarna ekologikoa. Larrialdi klimatikoa. | |
| C.7 | Garapen jasangarria eta mundu herritartasuna. | |

*ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA ESPARRUA*

Kontzeptu eta prozedura zientifikoak ulertzea ikaskuntza bat da, helduek lortu behar dutena garapen pertsonal eta profesional handiagoa erdiesteko. Zientzia eta teknologia esparruko konpetentzia espezifikoek aukera ematen diete gizabanakoei oinarrizko kultura zientifikoa eskuratzeko; zientziarekin lotutako gaietan modu informatuan eta gogoetatsuan parte hartzeko; erabaki arrazoituak hartzeko; eta etengabeko garapen zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta sozialean dagoen mundu batean moldatzeko, gizarte demokratikoan aktiboki eta modu konprometituan parte hartzeko helburuarekin.

Esparru honetako curriculum garapenak helduentzako irakaskuntzen xede pedagogikoei erantzuten die: lehenik eta behin, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako funtsezko konpetentziak eskuratzen laguntzea, arlo zientifiko eta teknologikoei lotutako konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak integratuz; bigarrenik, etengabeko ikaskuntzarako konpetentziak garatzen laguntzea, ikasleak kontzientziatuz ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak modu jarraituan eskuratzeko beharraz, enplegurako konpetentziak hobetu ahal izateko edo hezkuntza formalaren bidez prestakuntza ibilbidearekin jarraitu ahal izateko. Helduen hezkuntzaren dimentsio soziala ere sustatu beharko da, bai eta gero eta teknologikoagoa den gizarte batean integratzea ahalbidetuko duten trebetasun digitalak ere.

Esparru honetako konpetentzia espezifikoak lotuta daude ikasleen irteera-profileko funtsezko konpetentzien deskriptoreekin eta etapako helburuekin. Ikasle helduek mundua jakin-min zientifikoarekin behatzen ikastea dute helburu, beren inguruan gertatzen diren fenomenoei buruzko galderak eginez, fenomeno horiek ikuspuntu zientifikotik interpretatuz, arazoak konponduz eta irtenbideen baliozkotasuna modu kritikoan aztertuz, eta, azken batean, pentsamendu zientifikoaren eta pentsamendu konputazionalaren arrazoibideak garatuz. Esparru honetako konpetentziak lotuta daude, halaber, teknologia digitalak ikaskuntza prozesuetan sartzearekin, garapen teknologiko jasangarrira hurbiltzearekin eta teknologiak mundu errealarekin duen lotura aztertzearekin. Horrela, espero da ikasle helduek teknologia digitalen erabilera arduratsua eta etikoa eginen dutela, bai eta inguratzen dituen gizarte digitalari buruz modu kontzientean, informatuan eta kritikoan hausnartu ere. Era berean, garrantzi berezia dute komunikazioak eta talde lanak, modu integratzailean eta aniztasuna errespetatuz, eta baita ikaskuntzan eragina duten elementu sozioafektiboek ere, trebetasun horiei esker ikasleak informazioaren gizartean moldatzen ahalko direlako.

Konpetentzia espezifikoen eskuratze maila baloratzeko, haiekin lotura zuzena duten ebaluazio irizpideak aplikatuko dira eta, horrela, konpetentzietan oinarritzen den ikuspegia emanen zaio esparruari.

Oinarrizko jakintzek konpetentzia espezifikoak eskuratzen laguntzen duten ezagutza, trebetasun eta jarreren multzoa biltzen dute. Ez dago lotura uniboko eta zuzenik ebaluazio irizpideen eta oinarrizko jakintzen artean: konpetentzia espezifikoak zenbait jakintza mobilizatuz ebaluatzen ahalko dira, blokeen artean eta ikasleen gizarte edo laneko testuinguruari dagozkion zenbait alderdirekin loturak ezartzeko behar den malgutasuna emanda. Jakintzak zenbait bloketan multzokatu dira, kontuan hartuta esparrua osatzen duten irakasgaiak eta ezarritako konpetentzia espezifikoak eskuratzeko behar diren trebetasun erkideak.

Ondorioz, curriculum osoan berariaz garatu beharko diren jakintzak biltzen dituzten bi bloke daude. Alde batetik, «Trebetasunak zientzian eta teknologian» blokeak barne hartzen ditu zientzia eta teknologiaren berezko estrategia eta pentsamoldeak. Bestalde, «Trebetasun sozioafektiboak» izeneko blokean, honako jakintza hauek lantzen dira: emozioak ulertu eta haiekin moldatzeko estrategiak bereganatu eta aplikatzea, helburuak ezarri eta erdiestea, enpatia sentitu eta erakustea, elkartasuna, gutxiengoekiko errespetua eta emakume eta gizonen berdintasun eraginkorra jarduera zientifiko-teknologikoetan. Horrela, erabaki arduratsu eta informatuak hartzeko trebetasunak areagotzen dira, eta horrek, era berean, ikasleen errendimendua hobetzen du zientzietan eta teknologian, zientziekiko jarrera negatiboak apaltzen ditu, eta arazoak ebazteko ikaskuntza aktiboa eta elkarlanerako estrategiak garatzea sustatzen du.

Esparruko irakasgaiekin lotutako blokeen kasuan, «Matematika» blokeak erreferentzia moduan hartzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan irakasgai hori egituratzeko baliatzen diren zentzuak: zenbakizko zentzuaren bereizgarria da zenbaketari eta kalkuluari buruzko ezagutzaren aplikazioa

hainbat testuingurutan, bereziki eguneroko bizitzako testuinguruetan, finantza pertsonalak barne; neurriaren zentzuaren jomuga nagusia objektuen atributuak ulertzea eta alderatzea da; zentzu espazialak gure munduaren alderdi geometrikoen ulermena lantzen du; zentzu aljebraikoak matematikaren eta zientzien komunikazio hizkuntza ematen dute; azkenik, zentzu estokastikoaren barruan daude datuen analisia eta interpretazioa eta ausazko fenomenoen ulermena, lanaren arloan eta, oro har, ziurgabetasun handiko mundu batean erabakiak hartzeko oinarriak izateko.

Bestalde, «Fisika eta kimika» eta «Biologia eta geologia» blokeek barne biltzen dituzte lau oinarrizko zientzia horiekin lotutako ezagutza, trebetasun eta jarrerak. Horren helburua da ikasleei oinarrizko ikaskuntzak ematea zientziari eta haren metodologia eta aplikazioei buruz, haien profil pertsonala, soziala eta profesionala osatu dezaten. Bloke horien oinarrizko jakintzek ahalbidetuko diete ikasleei beren organismoaren anatomia eta fisiologia aztertzea eta zaintzeko ohitura osasungarriak hartzea; osasun publikoarekin konpromiso soziala ezartzea; sistema biologiko eta geologikoen funtzionamendua aztertzea eta garapen jasangarriaren garrantzia baloratzea; materiaren egitura eta eraldaketak azaltzea; sistema fisiko-kimikoen arteko interakzioak aztertzea eta energiak gizartean duen garrantzia baloratzea.

Azkenik, «Teknologia eta digitalizazioa» blokeak barne hartzen ditu prototipoak asmatzeko, planifikatzeko, antolatzeko, eraikitzeko edo fabrikatzeko eta ebaluatzeko erabiltzen diren materialak, tresnak eta operadore teknologikoak, ikasleek konpontzea espero diren arazoei edo erronkei erantzuteko, bai eta teknologia jasangarriarekin zerikusia dutenak ere, aurrerapen teknologikoaren ondorio ekosozialak aztertu ahal izateko. Bloke horretan, halaber, aplikazioen programazioari eta sortzen ari diren teknologien integrazioari aplikatutako pentsamendu konputazionala garatzera bideratutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak biltzen dira, baita ikaskuntzako ingurune pertsonalaren digitalizazioa modu seguruan, arduratsuan eta etikoan gauzatzekoak ere.

Konpetentziak garatzeko, proposatzen da zientziari, pentsamendu konputazionalari eta teknologia digitalei dagozkien metodologiak erabiltzea, ikasleen errealitatearekin konektaturik dagoen ikuspegi diziplinartekoa, motibatzailea eta hezkidetzakoa baliatuta. Horren helburua da ikaskuntza esanguratsua izatea, eta horretarako planteatzen diren ikaskuntza egoerak, ahal dela, lotuta egonen dira ikasleen testuinguru pertsonalarekin eta ingurune sozial, profesional eta prestakuntzako ingurunearekin. Horrek guztiak lagundu behar du egungo munduaren erronka eta desafioekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin konprometiturik dauden helduak trebatzen, eta haien laneko integrazioa eta gizarte demokratiko eta pluralean erabateko parte hartzea izatea errazten.

### ***1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak.***

*1. konpetentzia espezifikoa.*

Fenomeno natural nagusiak nola gertatzen diren ulertzea, eguneroko egoeretatik abiatuta, lege eta teoria zientifiko egokiak aplikatuz, ikusitako gertakarien azalpen zuzenak eraikitzeko.

1. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Zientziak STEM ikuspegi integratzailetik ikasteko abiapuntua da mundu errealean gertatzen diren fenomenoen oinarri zientifikoak ezagutzea. Konpetentzia eskuratzen duten ikasle helduak gai izanen dira fenomeno naturalak lege eta teoria zuzenen bitartez interpretatu eta azaltzeko, eta, horri esker, nola gertatzen diren ulertuko dute. Hartara, ikasleek harreman eraikitzaileak ezartzen ahal dituzte zientziaren, beren eguneroko bizitzaren eta beren laneko ingurunearen artean, eta horrek aukera emanen die beste fenomeno batzuei buruzko interpretazioak egiteko, fenomeno horiek lehenago ikasi ez badituzte ere. Konpetentzia espezifiko hori eskuratzean, ikasleen zientziarekiko interesa hobetzen da, eta horrek ikasleen ingurunea eta bizi kalitatea hobetzen laguntzen du.

Ingurumena errespetatzea eta zaintzea edo osasuna zaintzea bezalako alderdi garrantzitsuek oinarri zientifikoa dute, eta horien azalpena eta funtsezko oinarriak ulertzeak laguntzen du errealitatea hobeki ulertzen. Horrek ikasleen jarrera proaktiboa sustatzen du beren ingurune pertsonal eta laneko ingurunean, eta gizarte inklusibo baten garapen globalarekiko inplikazioa eta konpromisoa hobetzen ditu.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK1, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KPSII4, HK3.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 1.1. Fenomeno natural garrantzitsuenak azaltzea, teoria, lege eta printzipio zientifiko egokietatik abiatuta.<br>1.2. Erabaki informatuak eta koherenteak hartzea, benetako egoerak aztertuta eta eskuratutako ikaskuntza zientifikoak aplikatuta.<br>1.3. Zientziak gizarteari egiten dion ekarpena eta zientziaren garapenean aritzen diren gizon eta emakumeen lana aztertzea eta azaltzea, ikerketa etengabeko bilakaeran dagoen lan kolektiboa eta zientziaren, teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko interakzioaren emaitza dela ulertuta. | 1.1. Eguneroko fenomeno eta egoerak azaltzea, bai eremu pertsonalekoak, bai lan arlokoak, horretarako teoriak, legeak eta printzipio zientifikoak behar bezala erabiliz, eta zein baldintza edo parametroren mende dauden identifikatuz.<br>1.2. Zientziak gizarteari egiten dion ekarpena eta zientziaren garapenean aritzen diren gizon eta emakumeen lana justifikatzea, ikerketa etengabeko bilakaeran dagoen lan kolektiboa eta zientziaren, teknologiaren, gizartearen eta ingurumenaren arteko interakzioaren emaitza dela ulertuta. |

*2. konpetentzia espezifikoa.*

Zientziaren bidez interpretatu eta modelizatzea eguneroko bizitzako eta bizitza profesionaleko arazoak eta egoerak, eta, horretarako, hainbat estrategia, arrazoibide, tresna teknologiko eta pentsamendu konputazionala aplikatzea, konponbideak aurkitu eta horien baliozkotasuna aztertzeko.

2. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Problemak arrazoitzea eta ebaztea funtsezko trebetasuntzat jotzen da edozein testuingurutan, eta, beraz, bi osagai horiek ezinbestekoak dira ikasleen ikaskuntzan. Egoera problematiko bat ebazteko, behar-beharrezkoa da planteatutako egoera interpretatzea, informazio garrantzitsua ateratzea eta enuntziatua eraldatzea, aldez aurretik ikasitako prozedura eta prozesuen bidez ebatzi ahal izateko. Prozesu horren osagarri gisa, arrazoibide deduktiboak eta induktiboak erabiltzen dira soluzio bat lortzeko. Horretarako, beharrezkoa da galdera egokiak planteatzea, problemarako egokiak eta koherenteak diren estrategiak aukeratzea eta prozedurak eta algoritmoak aplikatzea. Lortutako soluzioak aztertzeak balio du gogoeta kritikoa egiteko soluzio horien baliozkotasunari buruz, bai ikuspegi hertsiki matematikotik bai ikuspegi globalago batetik, honako gai hauei lotutako alderdiak baloratuta, besteak beste: jasangarritasuna, kontsumo arduratsua, genero berdintasuna, ekitatea edo diskriminaziorik eza.

Konpetentzia hau garatzeak pentsamendu askotarikoagoa eta malguagoa sustatzen du, ikasleek problemak hainbat testuingurutan ebazteko duten gaitasuna hobetzen du, zientziei eta matematikari buruzko pertzepzioa zabaltzen du eta oinarrizko kontzeptuak aberastu eta finkatzen ditu; horrek guztiak konpromiso maila handiagoa, jakin-mina areagotzea eta ikasteko prozesuaren balorazio positiboa dakartza.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK2, STEM1, STEM2, KD1, KD2, KPSII4, EK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 2.1. Problemak ebazteko estrategia egokiak aukeratzea, problemen irudikapen matematikoa abiapuntu hartuta.<br>2.2. Problema baten konponbide posibleak aurkitzea, emandako datuak eta informazioa baliatuz, eta estrategia eta tresna egokiak aplikatuz.<br>2.3. Problema baten soluzioen zuzentasun matematikoa zalantzan jartzea, eta planteatutako testuinguruarekiko koherentzia baloratzea.<br>2.4. Tresna teknologiko baliagarriak erabiltzea problemak irudikatu eta ebaztean eta soluzioak egiaztatzean. | 2.1. Problemak ebazteko estrategia egokiak aukeratzea, problemen irudikapen matematikoa abiapuntu hartuta, datuak antolatzea eta egindako galderak ulertzea.<br>2.2. Problema baten soluzio posibleak lortzea, eta, helburu horrekin, neurriak ezarrita dituzten objektu geometrikoen marrazkiak erabili eta egitea, estrategia eta tresna egokienak hautatu eta aplikatzea, eta hautaketa hori justifikatzea.<br>2.3. Problema baten soluzioen zuzentasun matematikoa egiaztatzea, eta planteatutako testuinguruarekiko koherentzia aztertzea.<br>2.4. Tresna teknologiko egokienak hautatu eta erabiltzea objektu geometrikoak irudikatzean, problemak ebaztean eta soluzioak egiaztatzean. |

*3. konpetentzia espezifikoa.*

Metodo zientifikoak erabiltzea, arakatzea eta proiektu txikiak gauzatzea, pentsamendu zientifikoaren arrazoibideak garatzeko eta metodologia zientifikoak erabiltzeko trebetasunak hobetzeko.

3. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Konpetentzia espezifiko hori garatzeko trebetasun hauek hobetu behar dira: eguneroko ingurunean behaketak egitea, horiei buruzko galderak eta hipotesiak planteatzea, eta aldez aurretik egindako norberaren azalpenak berrikustea eta horien egiazkotasuna egiaztatzea esperimentazioaren bidez, kasu bakoitzean egokienak diren tresnak erabiliz.

Gainera, metodologia zientifikoak erabiltzen badira, zientzian gauzatzen den elkarlanaren trebetasuna hobetuko da, halaber. Konpetentzia espezifiko hau gero eta beharrezkoagoa da laneko esparruan; beraz, hura garatzeak jauzi kualitatiboa ekar dezake ikasleen gaikuntza profesionalean.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: STEM1, STEM2, STEM3, KD1, KD3, KPSII4, KPSII5, EK1.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 3.1. Metodo zientifikoak, behaketa, informazioa eta arrazoitzea erabiliz erantzun edo alderatu daitezkeen galderak eta hipotesiak planteatzea, eta fenomeno naturalak azaldu eta iragarpenak egitea. | 3.1. Ingurune naturalean eta laborategian fenomeno naturalei buruzko esperimentuak diseinatu eta egitea eta datu kuantitatiboak eta kualitatiboak lortzea, gai zehatzei erantzuten dieten edo hipotesi baten egiazkotasuna alderatzen duten emaitza argiak lortzeko tresna, lanabes edo teknika egokiak behar bezala erabilita.<br>3.2. Ikerketa proiektuetan lortutako emaitzak interpretatzea, modu arrazoituan, bai eta, beharrezkoa denean, tresna matematikoak eta teknologikoak ere erabilita. |

*4. konpetentzia espezifikoa.*

Modu seguruan, arduratsuan eta etikoan jardutea eta teknologia ere hala erabiltzea, eguneroko ekintza jakin batzuek eta teknologien erabilerak osasunean eta ingurune natural eta sozialean dituzten ondorioak aztertuz, eta zientziak eta teknologiak garapen jasangarriari egiten dioten ekarpena ebaluatuz, norberaren eta taldearen osasuna hobetzen duten eta gizartean eta ingurunean ingurumen inpaktu negatiboak saihesten edo murrizten dituzten ohituren garrantzia aintzat hartzeko.

4. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Giza jarduerak eta garapen teknologikoak aldaketa garrantzitsuak eragin dituzte ingurunean, inoiz ez bezalako aurrerapen erritmoarekin. Aldaketa horietako batzuek, hala nola Lurreko batez besteko tenperaturaren igoerak, hondakin plastikoen metaketak edo edateko uraren eskuragarritasuna murrizteak, funtsezko giza jarduera batzuk arrisku larrian jartzea gerta liteke. Halaber, gizarte garatuenetan zenbait ohitura kaltegarri ezarri dira, hala nola gantz eta azukre ugariko dieta, egoneko bizitza, drogen erabilera edo teknologia berriekiko mendekotasuna. Horren ondorioz, egungo gizartean arazo handiak diren zenbait patologiaren maiztasuna areagotu egin da.

Hala ere, ekintza eta ohitura osasungarri eta jasangarri jakin batzuk (elikadura osasuntsua, ariketa fisikoa edo kontsumo arduratsua, adibidez) lagungarriak izan daitezke osasun indibiduala eta kolektiboa zaintzeko eta hobetzeko, bai eta lehen deskribatutako ingurumen joera negatiboak geldiarazteko ere. Horregatik, ezinbestekoa da ikasle helduek bizimodu segurua, osasungarria eta jasangarria justifikatzen duten oinarri zientifikoak eta teknologikoak ezagutzea eta aplikatzea. Konpetentzia hori eskuratzeak segurtasun eta higiene arauak aplikatzea ere badakar, aplikatu beharreko teknika askoren berezko arriskuak saihestu ahal izateko. Horrela, ikasle helduek erabateko garapena eta integrazioa lortzen ahalko dute, eta herritartasun arduratsu eta konprometitua baliatu.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: STEM5, KD4, KPSII2, HK4.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 4.1. Banakako ekintza jakin batzuek organismoan eta ingurune naturalean dituzten ondorioak ebaluatzea, eta ohitura osasungarri eta jasangarriak proposatzea, eskuratutako ikaskuntzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituta.<br>4.2. Teknologia jarduerak gizartean duen eragina ezagutzea, eta sortzen ari diren teknologiek ongizatean, gizarte berdintasunean eta ingurumen inpaktuaren murrizketan egiten dituzten ekarpenak identifikatzea. | 4.1. Banakako ekintza jakin batzuek organismoan eta ingurune naturalean dituzten ondorioak ebaluatzea, eta ohitura osasungarri eta jasangarriak proposatzea, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituta.<br>4.2. Biodibertsitatearen babesa, ingurumenaren kontserbazioa eta inguruneko izaki bizidunen babesa garapen jasangarriarekin eta bizi kalitatearekin lotzea, oinarri zientifikoak aplikatuz.<br>4.3. Teknologia jarduerak gizartean duen eragina aztertu eta ebaluatzea, eta sortzen ari diren teknologiek ongizatean, gizarte berdintasunean eta ingurumen inpaktuaren murrizketan egiten dituzten ekarpenak aztertzea. |

*5. konpetentzia espezifikoa.*

Informazioa eta datu zientifikoak, teknologikoak eta matematikoak irudikatzea eta trukatzea, aldez aurretik egiazkotasuna alderatuz eta irudikapen bitarteko, sinbologia eta hiztegi egokiak erabiliz, ikaskuntzak eskuratu eta finkatzeko eta natura, gizarte eta lan inguruneko arazoei irtenbidea emateko.

5. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Gaur egun, informazio gehiegi dago, eta hautatu, interpretatu eta aztertu egin behar da, helburu zehatzetarako erabili ahal izateko. Informazio zientifikoa askotariko formatuetan aurkez daiteke, hala nola enuntziatuak, grafikoak, taulak, ereduak, diagramak, etab. erabiliz. Horiek guztiak ulertu egin behar dira zientzian modu egokian lan egiteko. Era berean, matematika, teknologia eta zientzia hizkuntzak komunikazio tresna globala ematen die ikasleei; beraz, beharrezkoa da diziplina zientifiko-teknologikoetako lengoaia espezifikoak arautzen dituzten arauak ulertzea eta aplikatzea.

Ikasleek konpetenteak izan behar dute informazio zehatza eta egiazkoa hautatzeko eta, horrez gain, informazio hori behar bezala interpretatu eta transmititzeko ere, behaketatik edo azterketatik abiatuta. Horretarako, komunikazio kode eta protokolo egokiak aplikatu behar dira, zenbait formatutan, eta diziplina zientifiko-teknologikoen arau espezifikoak kontuan hartu behar dira.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK1, HKK2, HKK3, STEM4, KD1, KPSII4, HK4, KKAK4.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 5.1. Informazioa eta datu zientifikoak, teknologikoak eta matematikoak argi irudikatzea eta komunikatzea, formatu, irudikapen bitarteko, sinbologia eta hiztegi tekniko egokiak erabilita.<br>5.2. Eguneroko bizitzako informazio zientifikoa, teknologikoa eta matematikoa aztertzea eta interpretatzea, interpretazio hori justifikatuz eta jarrera kritikoa mantenduz. | 5.1. Informazioa eta datu zientifikoak, teknologikoak eta matematikoak argi eta zorrotz irudikatzea eta komunikatzea, formatua, irudikatzeko bitartekoak, sinbologia eta hiztegi tekniko egokienak erabilita.<br>5.2. Natura, gizarte eta lan inguruneko arazoak konpontzea, arazo horiei eragiten dien informazio zientifikoa, teknologikoa eta matematikoa modu kritikoan aztertuz eta interpretatuz.<br>5.3. Iturri fidagarriak egoki erabiltzea eta aipatzea, informazio zientifiko, teknologiko eta matematiko garrantzitsua hautatzea, eta norberaren eta taldearen ikaskuntza hobetzea. |

*6. konpetentzia espezifikoa.*

Hainbat testuingurutan parte hartzen duten zientzia, teknologia eta matematika identifikatzea eta kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotzea, eguneroko bizitzako egoeretan aplikatzeko.

6. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Zientziak, teknologia eta matematika ezagutzeak gizartearen behar bati erantzuten dio, gizateriak dituen diziplinarteko erronka handien aurrean duenari, alegia. Zientzia eta teknologia esparrua tresna koherente eta funtsezko gisa ikusi behar dute ikasleek, zientzian eta teknologian duten konpetentzia handitzeko. Horri esker, eskuratutako ikaskuntzak esperientzia akademiko eta profesionalarekin konektatzen ahalko dituzte, esanguratsuak izan daitezen eta, ondoren, hainbat egoeratan erabili ahal izan daitezen.

Garrantzitsua da ikasleek aukera izatea zientziak eta matematika hainbat testuingurutan nola aplikatzen diren identifikatzeko eta esperimentatzeko, bai eta beharrezkoak diren tresna, baliabide eta material teknologikoen erabilgarritasunarekin eta erabilerarekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak garatzeko ere, eremu zientifiko-teknologikoko ikaskuntzak bizitza errealeko beste testuinguru batzuetara transferitu eta aplikatu ahal izateko, eta ingurune pertsonaleko, sozialeko eta lan inguruneko arazoei irtenbidea emateko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: STEM1, STEM2, STEM5, KD5, KPSII5, HK4, EK1, KKAK2.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 6.1. Zientziei, teknologiari eta matematikari dagozkien prozedurak identifikatzea hainbat egoeratan; eta testuinguru natural, sozial eta profesionaletan ezagutza arloen arteko loturak ezartzea. | 6.1. Zientziei, teknologiari eta matematikari dagozkien prozedurak aplikatzea hainbat egoeratan; eta testuinguru natural, sozial eta profesionaletan ezagutza arloen arteko loturak ezartzea. |

*7. konpetentzia espezifikoa.*

Arazo teknologikoei autonomiaz eta sormenezko jarreraz heltzea, diziplinarteko ezagutzak aplikatuta eta lankidetzan arituz, arazo edo behar zehatzetarako soluzioak modu eraginkor, berritzaile eta jasangarrian diseinatu, planifikatu eta garatzeko.

7. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Konpetentzia hau teknologia erabiltzearekin zerikusia duten sormen eta ekintzailetzarekin lotuta dago. Teknikak eta trebetasunak ikasten laguntzen du, zenbait baldintza bete behar dituzten problema definituetarako irtenbideak asmatu eta diseinatzeko, bai eta ikasleak orientatzeko ere, arazoa sormenez ebazteko prozesuan bete beharko dituzten zereginak antolatzeari dagokionez. Konpetentzia hau garatzeko, beharrezkoak dira plangintza egitea, beharrezko baliabide jasangarriak aurreikustea, eta prozesu osoan lan kooperatiboa sustatzea. Arazo teknologikoak konpontzeko metodologiek edo esparruek jarduera edo fase sekuentzial edo zikliko batzuk abian jartzea eskatzen dute, lan pertsonalaren eta talde lanaren dinamika markatzeko. Emaitza zehatzak eskaintzen dituzten produktuak, prototipoak edo aplikazio informatikoak lortzeko erronkei ekitea sormena eta berrikuntzarako gaitasuna suspertzen dituen jarrera ekintzailea da. Horretarako, ekonomiaren hazkundearen, gizarte ongizatearen eta ingurumen ongizatearen arteko oreka bermatu behar da, eta soluzio bideragarri eta egokiak ekarri. Halaber, autoebaluazioa eta koebaluazioa sustatzen dira, eta lortutako emaitzak kalkulatzen dira, etengabeko hobekuntzako zikloekin jarraitzeko.

Ildo horretan, ezagutzak eta diziplinarteko trebetasun eta jarrera jakin batzuk konbinatzea (hala nola autonomia, berrikuntza, sormena, emaitzen balorazio kritikoa, lankidetza eta elkarlana, erresilientzia, eta ekintzailetza) ezinbestekoa da arazoak ebazteko orduan emaitza eraginkorrak lortzeko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: STEM1, STEM3, KD3, KPSII3, KPSII5, EK1, EK3.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 7.1. Problema teknologiko errazetarako soluzio eraginkor, berritzaile eta jasangarriak asmatzea, jarrera ekintzaile, saiatu eta sortzailearekin, eta kontzeptu, teknika eta diziplinarteko prozeduren eta jasangarritasun irizpideen bidez.<br>7.2. Problema teknologiko erraz bati irtenbidea ematen dion objektu, prototipo edo programa informatiko bat eraikitzeko materialak, tresnak eta beharrezkoak diren zereginak hautatzea eta antolatzea, banaka edo taldean, lankidetzaren bidez. | 7.1. Problema teknologiko zehatzentzako soluzio eraginkor, berritzaile eta jasangarriak asmatzea eta diseinatzea, jarrera ekintzaile, saiatu eta sortzailearekin, eta kontzeptu, teknika eta diziplinarteko prozeduren eta jasangarritasun irizpideen bidez.<br>7.2. Planteatu den problema teknologiko bati irtenbidea ematen dion objektu, prototipo edo programa informatiko bat eraikitzeko materialak, tresnak eta beharrezkoak diren zereginak hautatzea, planifikatzea eta antolatzea, banaka edo taldean, lankidetzaren bidez. |

*8. konpetentzia espezifikoa.*

Ohiko gailu eta aplikazio digitalen funtzionamenduaren oinarriak aztertzea, horien osagaiak eta funtzioak ikertzea, eta haien baliagarritasuna deskribatzea, gailu eta aplikazio horiek efizientzia eta segurtasun handiagoarekin erabiltzeko eta arazo tekniko errazak hautemateko eta ebazteko.

8. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Gaur egun teknologia gero eta gehiago erabiltzen denez gure bizitzetan, beharrezkoa da tresna digitalak etengabeko ikaskuntzako prozesuan txertatzea. Konpetentzia hau bideratuta dago gailu eta aplikazio digitalak segurtasunez erabiltzeko eta behar bezala mantentzeko aukera emanen duten ikaskuntzak eskuratzera. Barnean hartzen ditu ohiko erabilerako gailu eta aplikazio digitalen funtzionamendua ulertzea eta horiei eragiten ahal dieten gorabehera txikiak identifikatzea, gailu eta aplikazio horiek erabiltzean sortzen diren arazo tekniko errazak konpontzeko. Horretarako, ikasle helduek, alde batetik, erabilitako hardwarearen arkitektura, osagaiak eta gailuaren barruan dituzten funtzioak ezagutu behar dituzte. Bestalde, ikasi beharko dute ikasleen ingurune pertsonalean, sozialean, prestakuntzakoan eta lanekoan dauden software aplikazioak erabiltzen, erabiltzaileen beharretara egokitutako konfigurazioa eta doikuntza behar baitute.

Elementu horien oinarriak eta funtzionaltasunak aztertzeak eta elementu horiek hainbat testuingurutan aplikatzeak eta transferitzeak etengabeko ikaskuntza erraztuko dute. Horrela, helduek tresna digitalak modu eraginkorragoan eta seguruagoan erabiltzen ahalko dituzte, beren beharrei erantzuteko, eta tresna horiek sormenez erabiliko dituzte bitarteko eta formatu ugaritan –plastikoak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak, soinuzkoak, etab.–.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: KD2, KD4, KD5, KPSII4, KPSII5.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 8.1. Egunero erabiltzen diren gailu digitalak arazo errazak konpontzeko erabiltzea, osagaiak eta horien funtzioak aztertuz, arriskuak identifikatuz eta datuak eta ekipamenduak babesteko hartu behar diren segurtasun neurriak identifikatuz.<br>8.2. Norberaren ingurune pertsonalean, sozialean, prestakuntzakoan eta lanekoan dauden ohiko aplikazio digitalak erabiltzea, lagunduta, eta norberaren beharrei nola erantzun behar dieten identifikatzea. | 8.1. Eguneroko gailu digitalak arazo errazak konpontzeko modu efiziente eta seguruan erabiltzea, osagaiak eta horien funtzioak aztertuz, arriskuak identifikatuz eta datuak eta ekipamenduak babesteko hartu behar diren segurtasun neurriak hautatuz.<br>8.2. Norberaren ingurune pertsonalean, sozialean, prestakuntzakoan eta lanekoan dauden ohiko aplikazio digitalak erabiltzea, konfiguratzea eta norberaren beharretara moldatzea, eta etiketa digitala errespetatzea. |

*9. konpetentzia espezifikoa.*

Trebetasun pertsonalak garatzea eta emozioak identifikatu eta kudeatzea, akatsa ikaskuntza prozesuaren parte dela onartzeko estrategiak baliatuta eta ziurgabetasun egoeretara egokituta; hori guztia, pertseberantzia hobetzeko, helburuak lortzeko bidean, eta zientzien eta teknologiaren ikaskuntza baloratzeko.

9. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Galderak egitea eta problema zientifiko edo teknologikoak ebaztea, edo pentsamendu zientifikoak, arrazoiketa matematikoak edo tresna teknologiko digitalek esku hartzen duten erronka globalei aurre egitea ez dira lan aspergarriak izan behar. Horregatik, zientzien, teknologiaren eta matematikaren ikaskuntzaren barruan trebetasun emozionalak garatzeak ikasleen ongizatea, autorregulazioa eta esparru honetako ikaskuntzarako interesa sustatzen ditu.

Konpetentzia honen garapenak berekin dakar emozioak identifikatzea eta kudeatzea; estres iturriak ezagutzea, saiatua izatea, modu kritikoan eta sortzailean pentsatzea, erresilientzia hobetzea eta jarrera proaktiboa izatea erronka berriekiko. Konpetentzia hau eskuratzen laguntzeko, ikasleek erronka txikiei aurre egin behar diete, nork bere pentsamenduari buruz hausnartzen laguntzeko, blokeoak saihesteko eta esparruaren ikaskuntzan autokontzeptuaren hobekuntza sustatzeko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: STEM5, KD2, KPSII1, KPSII4, KPSII5, HK1, EK1, EK3.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 9.1. Akatsa hobetzeko aukeratzat hartzea, eta zientzien aurrean autokontzeptu positiboa garatzea. | 9.1. Akatsa hobetzeko aukeratzat hartzea, eta zientzien aurrean autokontzeptu positiboa garatzea. |

*10. konpetentzia espezifikoa.*

Trebetasun sozialak garatzea eta elkarlanean aritzea talde askotarikoetan, parekoen arteko hazkundea indartzeko esleitzen zaizkien rolak betetzen, ikerketa zientifiko eta teknologikoan genero estereotipoak hausteak duen garrantzia ulertuz, ekimen pertsonala nola lanekoa lantzeko.

10. konpetentzia espezifikoaren deskribapena:

Aurrerapen zientifiko eta teknologikoa ahalegin kolektiboaren emaitza da, eta oso gutxitan gertatzen da gizabanako bakar baten lanaren emaitza izatea. Profesionalen arteko komunikazioa eta elkarlana eskatzen ditu, batzuetan zenbait diziplinari atxikita daudenen artekoa. Era berean, ezagutza berriak sortzeko, funtsezkoa da ikerketa talde batek lortutako ondorioak eta prozedurak komunitate zientifikoarekin partekatzea. Ezagutza horiek ikerketa eta aurkikuntza berriak eraikitzeko oinarri gisa balio dute.

Elkarlanak aberastu egiten ditu lortutako emaitzak eta partaideen garapen pertsonala, askotan oso desberdinak diren ikuspegiak trukatzeko aukera ematen baitu. Elkarlanak berekin dakar ikasleen komunikazio trebetasunak eta trebetasun sozialak mobilizatzea eta errespetuzko jarrera irekia izatea besteen ideiekiko, genero rolak eta estereotipo sexistak haustea garrantzitsua dela ulertzeko. Horrexegatik, taldean lan egiten ikastea ezinbestekoa da ikasleen garapen profesional eta sozial erabatekorako, gure gizarteko kide aktibo gisa.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura:

Konpetentzia espezifiko hau ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren I. eranskinean ezartzen den irteera-profileko deskriptore hauekin lotuta dago: HKK5, ELK3, STEM2, STEM4, KD3, KPSII3, HK2, EK2.

Ebaluazio irizpideak:

| I. MAILA | II. MAILA |
|---|---|
| 10.1. Proiektu zientifiko baten barruan funtzio zehatz bat bere gain hartzea, beharrezkoa denean espazio birtualak erabilita, eta balioa ematea, taldeko gainerako kideen ekarpenak kritikoki aztertzea, aniztasuna errespetatuta eta inklusioa bultzatuta. | 10.1. Proiektu zientifiko baten barruan funtzio zehatz bat arduraz bere gain hartzea, beharrezkoa denean espazio birtualak erabilita, eta balioa ematea, taldeko gainerako kideen ekarpenak kritikoki aztertzea, aniztasuna errespetatuta eta inklusioa bultzatuta.<br>10.2. Gizartean balioa sortzera eta hobekuntzara bideratutako elkarlaneko proiektu zientifikoei ekitea, gidatuta eta metodologia egokiaren arabera. |

***2.–Oinarrizko jakintzak.***

## I. MAILA

### A. Trebetasunak zientzian eta teknologian:

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.1 | Ikerketa zientifikoaren metodologiak: gaiak identifikatzea eta formulatzea, hipotesiak egitea eta esperimentazio bidez egiaztatzea. Ikerketa proiektuak. | Ikerketa zientifikoaren metodologiak: gaiak identifikatzea eta formulatzea, hipotesiak egitea eta esperimentazio bidez egiaztatzea. Ikerketa proiektuak. |
| A.2 | Objektu teknologikoak eta sistemak aztertzeko metodoak. | |
| A.3 | Ikaskuntza zientifiko-teknologikoko inguruneak eta baliabideak (hala nola laborategia, lantegia eta ingurune birtualak): erabilera egokirako estrategiak, norberaren eta komunitatearen osasunaren kontserbazioa, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuko dituztenak. | Ikaskuntza zientifiko-teknologikoko inguruneak eta baliabideak (hala nola laborategia, lantegia eta ingurune birtualak): erabilera egokirako estrategiak, norberaren eta komunitatearen osasunaren kontserbazioa, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuko dituztenak. |
| A.4 | Oinarrizko hizkuntza zientifiko-teknologikoa: hiztegi teknikoa eta adierazpen zientifiko-teknologikoak testuinguru profesionaletan eta prestakuntzakoetan. | Oinarrizko hizkuntza zientifiko-teknologikoa: hiztegi teknikoa eta adierazpen zientifiko-teknologikoak testuinguru profesionaletan eta prestakuntzakoetan. |
| A.5 | | Irudikapen grafikoko teknikak: kotatzea eta eskalak. |
| A.6 | Ideiagintza teknikak ideiak sortu, iragazi eta hautatzeko metodo gisa. | Ideiagintza teknikak ideiak sortu, iragazi eta hautatzeko metodo gisa. |
| A.7 | Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak ikerketa zientifiko-teknologikoetan. | Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak ikerketa zientifiko-teknologikoetan. |
| A.8 | | Jabetza intelektuala. Ohiko erabilera lizentzia motak. |
| A.9 | Problema zientifiko-teknologikoei irtenbidea emateko diseinu, plangintza eta antolaketa prozesuak. | Problema zientifiko-teknologikoei irtenbidea emateko diseinu, plangintza eta antolaketa prozesuak. |
| A.10 | Prozesu teknologikoa problema teknikoei irtenbidea emateko metodo gisa. Faseak. | Prozesu teknologikoa problema teknikoei irtenbidea emateko metodo gisa. Faseak. |
| A.11 | Zientziaren, teknologiaren eta arlo horietan aritzen diren pertsonen oinarrizko ekarpena giza jakintzaren esparruetan eta gizartearen aurrerapen eta hobekuntzan. | Zientziaren, teknologiaren eta arlo horietan aritzen diren pertsonen oinarrizko ekarpena giza jakintzaren esparruetan eta gizartearen aurrerapen eta hobekuntzan. |

### B. Trebetasun sozioafektiboak:

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| B.1 | Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioak ezagutzeko eta jakin-mina, ekimena, pertseberantzia eta erresilientzia garatzeko estrategiak, bai eta ikasteko eta zientzia ulertzeko plazerarena ere. | Ikaskuntzan esku hartzen duten emozioak ezagutzeko eta jakin-mina, ekimena, pertseberantzia eta erresilientzia garatzeko estrategiak, bai eta ikasteko eta zientzia ulertzeko plazerarena ere. |
| B.2 | Malgutasun kognitiboa eta aldaketetarako jarrera irekia areagotzen duten estrategiak, eta akatsa ikasteko aukera bihurtzen laguntzen dutenak. | Malgutasun kognitiboa eta aldaketetarako jarrera irekia areagotzen duten estrategiak, eta akatsa ikasteko aukera bihurtzen laguntzen dutenak. |

### C. Matematika:

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| C.1 Zenbakizko zentzua | | |
| C.1.1 | Zenbaki natural, oso eta dezimaldunak: interpretatzea, zenbakizko zuzenean ordenatzea eta eguneroko bizitzako eta laneko problemak ebazteko aplikatzea. | Zenbaki arrazional eta irrazional garrantzitsuak (erro karratuak, π, etab.): interpretatzea, zenbakizko zuzenean ordenatzea eta eguneroko bizitzako eta laneko problemak ebazteko aplikatzea. |
| C.1.2 | Zenbaki natural, oso edo dezimaldunekin eragiketak egitea edo eragiketak konbinatzea (batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa eta berretzaile naturalak dituzten potentziak): propietateak, haien arteko erlazioak eta problemak ebazteko aplikatzea. Kalkulu-estrategiak: mentala eta kalkulagailuarekin. | Zenbaki arrazionalekin eragiketak egitea edo eragiketak konbinatzea (batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa eta berretzaile naturalak dituzten potentziak): propietateak, haien arteko erlazioak eta problemak ebazteko aplikatzea. Kalkulu-estrategiak: mentala eta kalkulagailuarekin. |
| C.1.3 | Zatitzaileak eta multiploak: faktorizazioa zenbaki lehenetan, problemak ebazteko. | |
| C.2 Neurriaren zentzua | | |
| C.2.1 | Luzera, azalera eta bolumen unitate konbentzionalak: multiploak eta azpimultiploak. | |
| C.2.2 | Forma lauen eta tridimentsionalen eta eguneroko bizitzako eta laneko objektuen zeharkako neurrien estimaziorako edo kalkulurako estrategiak. | |
| C.2.3 | Perimetroak eta azalerak: interpretatzea, formulak lortzea eta forma lauetan aplikatzea. | |

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| C.2.4 | Objektu tridimentsionalen irudikapen laua: bistaratzea eta problemak ebazteko erabiltzea. | |
| C.3 Zentzu espaziala | | |
| C.3.1 | Bi dimentsioko forma geometrikoak: deskribapena eta sailkapena, propietateen edo ezaugarrien arabera. | |
| C.3.2 | Planoko objektu geometrikoak: marrazketa tresnekin eraikitzea, manipulazio tresnekin eta tresna digitalekin (geometria dinamikoko programak, errealitate areagotua, etab.). | |
| C.3.3 | Koordenatu kartesiarrak. | |
| C.4 Zentzu aljebraikoa | | |
| C.4.1 | | Patroiak. Egiturak osatzeko arauak: zenbakizkoak, espazialak, grafikoak edo aljebraikoak. |
| C.4.2 | | Aldagaia: erlazio errazak. Adierazpen aljebraikoen arteko baliokidetasuna. |
| C.4.3 | | Ekuazio linealak: problemak ebazteko testuinguruetan ebazpen aljebraiko eta grafikoak egitea. |
| C.4.4 | | Hizkuntza aljebraikoa. |
| C.4.5 | | Problemak ebazteko tresna teknologikoak. |
| C.5 Zentzu estokastikoa | | |
| C.5.1 | | Estatistika azterketak diseinatzea: galderak egitea, datuak antolatzea, taula eta grafiko egokiak egitea, kokapen eta sakabanatze neurriak kalkulatzea eta interpretatzea kalkulagailuarekin eta kalkulu-orriarekin. |
| C.5.2 | | Informazio estatistikoa eguneroko testuinguruetan eta ondorio arrazoituak lortzeko estrategiak. |

## D. Fisika eta kimika:

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| D.1 Materia eta bere aldaketak | | |
| D.1.1 | | Teoria zinetiko-molekularra: sistema materialen propietate garrantzitsuenak agregazio egoeraren arabera, ikuspuntu kualitatibotik. Egoera aldaketak. |
| D.1.2 | | Substantzia puruak eta nahasketak: nahasketak banantzeko metodoak. |
| D.2 Interakzioak eta energia | | |
| D.2.1 | | Energia: hipotesiak aztertu eta egitea, propietateak, transferentzia eta energiaren adierazpenak. Energia lortu eta kontsumitzea eta lotutako ingurumen ondorioak. |
| D.2.2 | | Elektrizitatea: korronte elektrikoa zirkuitu sinpleetan. Magnitudeak esperimentalki lortzea eta haien arteko erlazioa. Segurtasun eta prebentzio neurriak. |

## E. Biologia eta geologia

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| E.1 Giza gorputza eta osasuna. | | |
| E.1.1 | Zelula, izaki bizidunen unitate funtzional eta estrukturala. Zelula prokariotoa, animalia zelula eukariotoa eta horien zatiak. Antolaketa mailak. Funtzio zelularrak. | |
| E.1.2 | Nutrizio funtzioa eta haren garrantzia. Digestio, arnas, zirkulazio eta iraitz aparatuen anatomia eta fisiologia. Haien arteko harremana. | |
| E.1.3 | Ugalketa funtzioa eta haren garrantzi biologikoa. Ugalketa aparatua: anatomia eta fisiologia. | |
| E.1.4 | Hezkuntza afektibo-sexuala pertsonen arteko berdintasunaren eta sexu aniztasunarekiko errespetuaren ikuspegitik. Sexu praktika arduratsuen garrantzia. Asertibitatea eta autozaintza. Sexu transmisiozko infekzioen (STI) eta nahi gabeko haurdunaldien prebentzioa. Metodo antikontzeptiboak eta STIak prebenitzeko metodoak egoki erabiltzea. | |
| E.1.5 | Ohitura osasungarriak (legezko eta legez kanpoko drogen kontsumoaren prebentzioa, jarrera higienea, autorregulazio emozionala, dieta orekatua, gailu teknologikoen erabilera arduratsua, ariketa fisikoa eta loaren higienea, etab.). | |

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| E.2 Lurra sistema gisa eta garapen jasangarria | | |
| E.2.1 | Atmosfera eta hidrosfera: funtzioak, funtzioa biosferarekin eta geosferarekin batera edafogenesian, eta garrantzia Lurreko bizitzarako. | |
| E.2.2 | Klima aldaketaren eta ingurumenaren degradazioaren kausak eta ondorioak: ekosistemak ohitura jasangarrien bidez kontserbatzearen garrantzia eta banakako eta taldeko ekintzen ondorio globalei buruzko hausnarketa. | |
| E.2.3 | Fenomeno geologikoak: barnekoak eta kanpokoak bereiztea, baita horien agerpenak eta planetaren dinamika globala ere, plaken tektonikaren teoriarekin azalduta. | |

## F. Teknologia eta digitalizazioa:

| | 1. IKASMAILA | 2. IKASMAILA |
|---|---|---|
| F.1 Materialak, tresnak eta operadore teknologikoak | | |
| F.1.1 | Material teknologikoak eta neurketa eta fabrikazio tresnak: ezaugarriak eta aplikazioak. Erabiltzeko segurtasun arauak. | |
| F.1.2 | Operadore teknologiko errazak: egiturak. | Operadore teknologiko errazak: mekanismoak eta elementu elektriko eta elektronikoak. Ezaugarriak, aplikazioak eta muntaketa fisikoa edo simulatua. |
| F.1.3 | Segurtasun arauak fabrikazio lantegian edo laborategian. | |
| F.2 Pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika | | |
| F.2.1 | | Algoritmia. Sententzia sekuentzialak, kondizionalak eta errepikakorrak. Oinarrizko elementuak: datu motak, operadore motak eta jarraibide motak. Oinarrizko fluxu diagramak, programa informatiko errazak egiteko. |
| F.2.2 | | Programazio testuala edo bloke bidezko programazioa. Sintaxia: motak eta baliokidetasunak. |
| F.2.3 | | Adimen artifizialeko moduluen oinarrizko aplikazioa. |
| F.2.4 | | Sistema robotiko errazak. Programazioa, muntaketa edo simulazioa. |
| F.3 Ikasteko ingurune pertsonalaren digitalizazioa | | |
| F.3.1 | Ohiko gailu digitalak. Hardwarearen eta softwarearen elementuak. | |
| F.3.2 | Ohiko komunikazio digitaleko sistemak. Datuen transmisioa. | |
| F.3.3 | Sareko segurtasuna: arriskuak, mehatxuak, erasoak eta jarduteko modu efizienteak. Pribatutasuna eta ongizate digitala. Jardunbide seguru eta osasungarriak. | |
| F.3.4 | Ikaskuntza ingurune pertsonala. Osaera, konfigurazioa eta funtzionalitateak. | |
| F.3.5 | Informazioaren tratamendu, antolaketa eta kudeaketa digitalerako teknikak. Biltegiratze segurua, ezaugarriak, alternatibak eta segurtasun kopiak. Hodeian biltegiratzeko zerbitzuak. Irisgarritasuna. | |
| F.3.6 | Ikasteko tresna eta plataforma digitalak. Konfigurazioa, oinarrizko mantentzea eta erabilera kritikoa. | |
| F.3.7 | | Edukiak editatu eta sortzeko tresna digitalak. Instalazioa, konfigurazioa eta erabilera arduratsua. |
| F.3.8 | | Ideiak eta diseinuak grafikoki irudikatzeko oinarrizko tresnak, eskuzkoak zein digitalak, 2D eta 3D-n. Sinbologia. |
| F.4 Teknologia jasangarria | | |
| F.4.1 | Garapen teknologikoa. Alderdi orokorrak, sormena, berrikuntza, ikerketa, zaharkitzea. Garapen teknologikoak gizartean eta ingurumenean duen eragina. | |
| F.4.2 | Prozesu teknologikoko baliabideak modu efiziente eta jasangarrian erabiltzeko irizpideak, eta irizpide horiek prozesu eta produktu teknologikoak diseinatzeko prozesuetan txertatzea. | |

# II. MAILA

## A. Trebetasunak zientzian eta teknologian:

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.1 | Magnitude fisikoen neurria eta zenbakizko adierazpena: magnitude ordena, notazio zientifikoa, neurketen zehaztasun adierazleak eta emaitzak, eta neurketa unitateen garrantzia. | Magnitude fisikoen neurria eta zenbakizko adierazpena: magnitude ordena, notazio zientifikoa, neurketen zehaztasun adierazleak eta emaitzak, eta neurketa unitateen garrantzia. |

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| A.2 | Problema zientifiko-teknologikoak ebazteko estrategiak. | Problema zientifiko-teknologikoak ebazteko estrategiak. |
| A.3 | Ikerketa zientifikoaren metodologiak: gaiak identifikatzea eta formulatzea, hipotesiak egitea eta esperimentazio bidez egiaztatzea. Ikerketa proiektuak. | Ikerketa zientifikoaren metodologiak: gaiak identifikatzea eta formulatzea, hipotesiak egitea eta esperimentazio bidez egiaztatzea. Ikerketa proiektuak. |
| A.4 | Ikaskuntza zientifiko-teknologikoko inguruneak eta baliabideak (hala nola laborategia, lantegia eta ingurune birtualak): erabilera egokirako estrategiak, norberaren eta komunitatearen osasunaren kontserbazioa, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuko dituztenak. | Ikaskuntza zientifiko-teknologikoko inguruneak eta baliabideak (hala nola laborategia, lantegia eta ingurune birtualak): erabilera egokirako estrategiak, norberaren eta komunitatearen osasunaren kontserbazioa, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua ziurtatuko dituztenak. |
| A.5 | Hizkuntza zientifiko-teknologikoa: hiztegi teknikoa eta adierazpen zientifiko-teknologikoak testuinguru profesionaletan eta prestakuntzakoetan. | Hizkuntza zientifiko-teknologikoa: hiztegi teknikoa eta adierazpen zientifiko-teknologikoak testuinguru profesionaletan eta prestakuntzakoetan. |
| A.6 | Irudikapen grafikoko teknikak: kotatzea eta eskalak. | |
| A.7 | Ideiagintza teknikak ideiak sortu, iragazi eta hautatzeko metodo gisa. | Ideiagintza teknikak ideiak sortu, iragazi eta hautatzeko metodo gisa. |
| A.8 | Informazioa bilatu eta kritikoki hautatzeko estrategiak ikerketa zientifiko-teknologikoetan. | Informazioa bilatu eta kritikoki hautatzeko estrategiak ikerketa zientifiko-teknologikoetan. |
| A.9 | Jabetza intelektuala. Ohiko erabilera lizentzia motak. | Jabetza intelektuala. Ohiko erabilera lizentzia motak. |
| A.10 | Problema zientifiko-teknologikoei irtenbidea emateko diseinu, plangintza eta antolaketa prozesuak. | Problema zientifiko-teknologikoei irtenbidea emateko diseinu, plangintza eta antolaketa prozesuak. |
| A.11 | Prozesu teknologikoa problema teknikoei irtenbidea emateko metodo gisa. Faseak. | Prozesu teknologikoa problema teknikoei irtenbidea emateko metodo gisa. Faseak. |
| A.12 | Zientziaren, teknologiaren eta arlo horietan aritzen diren pertsonen ekarpena giza jakintzaren esparruetan eta gizartearen aurrerapen eta hobekuntzan. | Zientziaren, teknologiaren eta arlo horietan aritzen diren pertsonen ekarpena giza jakintzaren esparruetan eta gizartearen aurrerapen eta hobekuntzan. |

B. Trebetasun sozioafektiboak:

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| B.1 | Jarrera inklusiboak, hala nola genero berdintasun eragingarria, erantzukidetasuna, gutxiengoekiko errespetua eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasuna kultura aberastasun gisa baloratzea. | Jarrera inklusiboak, hala nola genero berdintasun eragingarria, erantzukidetasuna, gutxiengoekiko errespetua eta ikasgelan eta gizartean dagoen aniztasuna kultura aberastasun gisa baloratzea. |
| B.2 | Talde lana, jokabide enpatikoak eta gatazkak kudeatzeko estrategiak erabiltzea optimizatzen dituzten lankidetza teknikak. | Talde lana, jokabide enpatikoak eta gatazkak kudeatzeko estrategiak erabiltzea optimizatzen dituzten lankidetza teknikak. |
| B.3 | Abusuak, erasoak, indarkeria egoerak edo osotasun fisiko, psikiko eta emozionalaren urraketa egoerak identifikatzeko eta prebenitzeko estrategiak. | Abusuak, erasoak, indarkeria egoerak edo osotasun fisiko, psikiko eta emozionalaren urraketa egoerak identifikatzeko eta prebenitzeko estrategiak. |
| B.4 | Proaktibitatea eta erresilientzia, akatsa ikaskuntza iturri gisa. | Proaktibitatea eta erresilientzia, akatsa ikaskuntza iturri gisa. |
| B.5 | Ekintzailetza eta sormena arazoei heltzeko. | Ekintzailetza eta sormena arazoei heltzeko. |

C. Matematika:

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| C.1 Zenbakizko zentzua | | |
| C.1.1 | Arrazoiak, proportzioak eta portzentajeak problemak ebaztean: areagotze eta murrizketa portzentualak, beherapenak, deskontuak, zergak, etab. | |
| C.1.2 | Zuzeneko eta alderantzizko proportzionaltasuna: eskala problemak ebaztea, dibisa aldaketak, etab. | |
| C.1.3 | Erabakiak hartzea: kontsumo arduratsua, kalitate-prezioa eta balio-prezioa erlazioak eguneroko testuinguruetan eta testuinguru profesionaletan. | |
| C.2 Neurriaren zentzua | | |
| C.2.1 | Forma lauen eta eguneroko bizitzako eta eremu profesionaleko objektuen zeharkako neurrien estimaziorako edo kalkulurako estrategiak. | Forma lauen eta eguneroko bizitzako eta eremu profesionaleko objektuen zeharkako neurrien estimaziorako edo kalkulurako estrategiak. |
| C.2.2 | Azalerak eta bolumenak: interpretatzea, formulak lortzea eta forma tridimentsionaletan aplikatzea. | |
| C.2.3 | Marrazteko instrumentu eta tresna digitalak. | |
| C.3 Zentzu espaziala | | |
| C.3.1 | Hiru dimentsioko forma geometrikoak: deskribapena eta sailkapena, propietateen edo ezaugarrien arabera. | |
| C3.2 | Espazioko objektu geometrikoak: marrazketa tresnekin eraikitzea, manipulazio tresnekin eta tresna digitalekin (geometria dinamikoko programak, errealitate areagotua, etab.). | |

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| C.3.3 | | Koordenatu kartesiarrak: erlazio espazialak (translazioak, biratzeak eta simetriak). |
| C.4 Zentzu aljebraikoa | | |
| C.4.1 | Ekuazio linealak: problemak ebazteko testuinguruetan ebazpen aljebraiko eta grafikoak egitea. | Ekuazio linealak: problemak ebazteko testuinguruetan ebazpen aljebraiko eta grafikoak egitea. |
| C.4.2 | Erlazio linealak, testuinguruan kokatu diren eta enuntziatu, taula, grafiko edo adierazpen analitiko bidez deskribatu diren egoeretan. | Erlazio koadratikoak eta alderantzizko proportzionaltasunekoak, testuinguruan kokatu diren eta enuntziatu, taula, grafiko edo adierazpen analitiko bidez deskribatu diren egoeretan. |
| C.4.3 | Problemak ebazteko tresna teknologikoak. | Problemak ebazteko tresna teknologikoak. |
| C.5 Zentzu estokastikoa | | |
| C.5.1 | | Gertakari deterministak eta ausazkoak. Zoria eta probabilitatera hurbiltzea: maiztasun erlatiboak. Laplace erregela eta zenbaketa teknikak. Esperimentu sinpleei buruzko erabakiak hartzea hainbat testuingurutan. |

## D. Fisika eta kimika:

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| D.1 Materia eta bere aldaketak | | |
| D.1.1 | | Materiaren osaera: atomoen eta konposatuen egitura. Elementuak eta konposatuak. |
| D.1.2 | | Ekuazio kimiko errazak: interpretazio kualitatiboa eta kuantitatiboa. Kalkulu estekiometriko errazak eta horietan eragina duten faktoreak. Eguneroko bizitzan eta lanean duten garrantzia. |
| D.2 Interakzioak eta energia | | |
| D.2.1 | | Gorputzen mugimendua: magnitude zinematikoak. |
| D.2.2 | | Indarren erlazioa sistemen gainean eragiten dituzten aldaketekiko. |

## E. Biologia eta geologia:

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| E.1 Giza gorputza eta osasuna | | |
| E.1.1 | Zelula, izaki bizidunen unitate estruktural eta funtzionala; zelulen antolaketa motak eta funtzio zelularrak. Zelularen zikloaren faseak; mitosiaren eta meiosiaren funtzio biologikoa eta faseak. | |
| E.1.2 | Erlazio funtzioa eta haren garrantzia. Zentzumen hartzaileak, koordinazio zentroak eta organo efektoreak: funtzionamendu orokorra. | |
| E.1.3 | Sistema immunea, antibiotikoak eta txertoak: funtzionamendua eta garrantzi soziala gaixotasun infekziosoak prebenitzeko eta gainditzeko. | |
| E.1.4 | Transplanteak: gaixotasun batzuen tratamenduan duten garrantzia eta organoak ematea. | |
| E.1.5 | Genetika. Fenotipoa eta genotipoa: definizioa eta desberdintasunak. Karaktereen herentzia genetikoko problema errazak ebazteko estrategiak, gene batekin dominantziako eta errezesibitate erlazioa dutenak, tarteko herentzia eta kodominantzia. | |
| E.2 Lurra sistema gisa eta garapen jasangarria | | |
| E.2.1 | Ekosistemak: haien osagai biotikoak era abiotikoak, eta espeziebarneko eta espeziearteko erlazioak. | |
| E.2.2 | Arrisku naturalak eta haien prebentzioa: prozesu geologikoekiko eta giza jarduerekiko lotura. | |

## F. Teknologia eta digitalizazioa:

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| F.1 Materialak, tresnak eta operadore teknologikoak | | |
| F.1.1 | Material teknologikoak, tresnak eta makinak: ezaugarriak eta aplikazioak, betekizun mekanikoen, termikoen, elektrikoen, magnetikoen eta jasangarritasun betekizunen arabera. | |

| | 3. IKASMAILA | 4. IKASMAILA |
|---|---|---|
| F.1.2 | | Operadore teknologikoak: egiturak, mekanismoak eta zirkuitu elektriko eta elektronikoetako elementuak. Ezaugarriak, aplikazioak eta muntaketa fisikoa edo simulatua. |
| F.1.3 | Neurtzeko, alderatzeko eta prototipatze azkarrerako tresnak. Efizientzia eta zehaztasuna eragiketak gauzatzerakoan. | |
| F.1.4 | Segurtasun arauak fabrikazio lantegian edo laborategian. | |
| F.2 Pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika | | |
| F.2.1 | | Programazio modularra. Problema konplexuak beste sinpleago batzuetan deskonposatzea. Arazketa estrategiak. |
| F.2.2 | | Sistema automatiko edo robotikoen kontrol programatua. Txartel kontrolatzaileak. Sistema robotikoak. Muntatze fisikoa edo simulatua. |
| F.2.3 | | Adimen artifiziala, Gauzen Interneta eta sortzen ari diren beste teknologia batzuk. |
| F.3 Ikasteko ingurune pertsonalaren digitalizazioa | | |
| F.3.1 | Gailu digitalen diagnostikoa eta mantentzea egiteko tresnak: hardwarea eta softwarea eguneratzea, biltegiratzea kudeatzea eta matxurak antzematea. | |
| F.3.2 | Gailuen artean datuak komunikatzeko teknologiak. Komunikaziorako hari gabeko teknologiak. | |
| F.3.3 | Informazioaren segurtasuna eta irisgarritasuna sare pribatu eta publikoetan, hari gabekoak zein haridunak. Datuak eta informazioa babesteko neurriak. Ongizate digitala. Pasahitzen kudeaketa. Autentifikazio prozesuak. | |
| F.3.4 | Interneten informazio bilaketa aurreratuak egiteko iragazkiak eta iturriak. | |
| F.3.5 | | Askotariko edukiak hainbat formatutan sortzeko tresna digital espezifikoak. Instalazioa, konfigurazioa eta erabilera arduratsua. |
| F.3.6 | | Simulazioa eta bistaratze tresnak informazio-iturri gisa. |
| F.4 Teknologia jasangarria | | |
| F.4.1 | Produktu eta prozesu teknologikoen inpaktu ekosoziala. | |
| F.4.2 | Jarrera kritikoa garapen teknologikoak gizartean duen eragina aztertzerakoan. Teknologiak jasangarritasunari, ongizateari eta berdintasun sozialari egiten dion ekarpena aintzat hartzea. | |
| F.4.3 | Teknologia jasangarria eta Garapen Jasangarrirako Helburuei egiten dien ekarpena. | Teknologia jasangarria eta Garapen Jasangarrirako Helburuei egiten dien ekarpena. |
| F.4.4 | Goraka ari diren teknologiak eta prozesu eta produktu teknologikoetan duten inpaktua. Goraka ari diren teknologiak erabiltzeko etika. | |

# LABURPENA

51/2025 FORU DEKRETUA, maiatzaren 14koa, Nafarroako Foru Komunitateko helduentzako Oinarrizko Hezkuntzaren antolamendua arautzen duena eta curriculuma ezartzen duena ....... 2

I. KAPITULUA.–Xedapen orokorrak .... 2
1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua .... 2
2. artikulua. Curriculuma .... 3
3. artikulua. Definizioak .... 3
4. artikulua. Helduentzako Oinarrizko Hezkuntzaren egitura .... 4
5. artikulua. Helburua .... 4
6. artikulua. Printzipio orokorrak .... 4
7. artikulua. Printzipio pedagogikoak .... 4
8. artikulua. Helburuak .... 5
9. artikulua. Irakaskuntza modalitateak .... 5
10. artikulua. Hartzaileak .... 5
11. artikulua. Tutoretza eta orientazioa .... 6
12. artikulua. Banako desberdintasunei erantzutea .... 6
13. artikulua. Ikastetxeen autonomia .... 6
14. artikulua. Ebaluazio agiriak eta txostenak .... 6
15. artikulua. Benetakotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna .... 6

II. KAPITULUA.–HASIERAKO IRAKASKUNTZAK .... 7
16. artikulua. Hasierako Irakaskuntzen antolaketa .... 7
17. artikulua. Hasierako Irakaskuntzen curriculuma .... 7
18. artikulua. Hasierako Irakaskuntzetara sartzea .... 8
19. artikulua. Ebaluazioa .... 8
20. artikulua. Mailaz igotzea .... 8

III. KAPITULUA.–HELDUENTZAKO BIGARREN HEZKUNTZA (HBH) .... 9
21. artikulua. Helduentzako Bigarren Hezkuntzaren antolaketa .... 9
22. artikulua. Helduentzako Bigarren Hezkuntzako curriculuma .... 9
23. artikulua. Helduentzako Bigarren Hezkuntzan sartzea .... 10
24. artikulua. Ebaluazioa .... 10
25. artikulua. Mailaz igotzea .... 11
27. artikulua. Irakasleak .... 11

XEDAPEN GEHIGARRIAK .... 11
Lehen xedapen gehigarria.–Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua zuzenean lortzeko probak .... 11
Bigarren xedapen gehigarria.–Arau osagarriak .... 12

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK .... 12
Xedapen indargabetzaile bakarra.–Arauak indargabetzea .... 12

AZKEN XEDAPENAK .......... 12
Azken xedapenetako lehena.–Aldatzea 71/2022 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena .......... 12
Azken xedapenetako bigarrena.–Ezarpen egutegia .......... 12
Azken xedapenetako hirugarrena.–Erregelamendu bidezko garapena .......... 12
Azken xedapenetako laugarrena.–Indarra hartzea .......... 12

I. ERANSKINA.–OINARRIZKO GAITASUNAK ETA FUNTSEZKO KONPETENTZIAK HELDUENTZAKO OINARRIZKO HEZKUNTZAN .......... 13

II. ERANSKINA.–HASIERAKO IRAKASKUNTZETAKO ARLOEN CURRICULUMA .......... 16

KOMUNIKAZIOAREN ARLOA .......... 16
1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak .......... 17
2.–Oinarrizko jakintzak .......... 20

ARLO DIGITALA .......... 21
1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak .......... 22
2.–Oinarrizko jakintzak .......... 25

MATEMATIKAREN ARLOA .......... 26
1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak .......... 27
2.–Oinarrizko jakintzak .......... 29

III. ERANSKINA.–HELDUENTZAKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ESPARRUEN CURRICULUMA .......... 31

KOMUNIKAZIO ESPARRUA .......... 31
1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak .......... 32
2.–Oinarrizko jakintzak .......... 37

GIZARTE ESPARRUA .......... 46
1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak .......... 48
2.–Oinarrizko jakintzak .......... 51

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA ESPARRUA .......... 54
1.–Konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak .......... 55
2.–Oinarrizko jakintzak .......... 62